

URTEKO  
TXOSTENAK

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO URTEKO TXOSTENA 2011

Haur eta Nerabeentzako  
Bulegoaren txostena

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoria del Pueblo*

[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)



## URTEKO TXOSTENAK



**EUSKO  
LEGEBILTZARRARENTZAKO  
URTEKO TXOSTENA  
2011**

**Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren  
txostena**



**VITORIA-GASTEIZ  
2012**

Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziapean dago



Lizentziaren kopia bat ikusteko,

- sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/>
- edo gutun bat bidali helbide honetara: Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

Euskadi. Ararteko

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2011. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena [Baliabide elektronikoa] / Ararteko. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2012

160 or. – (Urteko txostenak)

Sistemaren eskakizunak: Adobe Acrobat Reader  
Sartzeko modua: [World Wide Web](#)

1. Euskadi. Ararteko 2. Jarduerari buruzko txostena 3. Giza eskubideak

351.941(460.15)“2011”(060.55)

#### **Formatuak eta edizioak:**

Paperean, CD-ROMean, RTF eta XML formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2011. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2011. Laburpena](#)

#### **Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:**

- [web](#) gunean,
- [posta elektronikoz](#) eskatuz,
- **aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)**

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: UTE MANIPULADOS - EPS



## AURKIBIDEA







<b>Aurkezpena</b> .....	11
<b>I) Arau- eta gizarte-testuingurua</b> .....	13
1.1. 2010-2014 Jarduera-esparrua .....	15
1.2. EAEko adingabeen egoeraren adierazle nagusiak .....	16
1.2.1. Egitura demografikoa .....	16
1.2.2. Elkarrekin bizitzeko moduak: familia anitzak .....	17
1.2.3. Osasuna .....	18
1.2.4. Hezkuntza .....	19
1.2.5. Ekonomia-baliabideak; pobrezia eragina .....	20
1.2.6. Aisia .....	21
1.3. Arau- eta eskumen-esparrua .....	21
<b>II) Eskubideen urraketa?: kexak, kontsultak eta inizatiba propioko jarduerak</b> .....	25
2.1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espedienteak: gerturatzeko kuantitatiboa .....	27
2.2. Aztertutako gaiak .....	30
2.2.1. Hezkuntza .....	30
2.2.2. Babesgabatasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak .....	40
2.2.3. Justizia .....	68
2.2.4. Familia .....	70
2.2.5. Osasuna .....	79
2.2.6. Mendeko adingabeak .....	85
2.2.7. Kultur jarduerak eta kirola .....	88
2.2.8. Ohorea, intimitatea eta norberaren irudia .....	89
2.2.9. Beste batzuk: "lapurtutako jaioberriak"; onartzeko eskubidea; genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak; <i>Igtb</i> neska-mutilak .....	91
<b>III) Gomendioen jarraipena</b> .....	99
3.1. <i>Adingabekoei balioak transmititzea</i> izeneko txosten berezia .....	101
3.2. <i>EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan</i> txosten bereziaren jarraipena .....	106

<b>IV) Txosten bereziak</b> .....	109
4.1. <i>Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak</i> txosten berezia .....	111
<b>V) Gure haur eta nerabeen ahotsa: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua</b> ..	119
<b>VI) Hauren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak</b> ..	127
6.1. Gizarte-eragileekiko lankidetz.....	129
6.2. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetz.....	130
6.3. Ekitaldietako parte-hartzea .....	132
6.4. Material didaktikoak eta ikastetxeekiko kolaborazioa .....	133
6.5. Adingabeentzako web gunea.....	134
<b>VII) Ondorioak</b> .....	137
<b>VIII) Grafikoen aurkibidea</b> .....	145
<b>ERANSKINA. Arloko araudia</b> .....	149

## AURKEZPENA

2010. urte hasieran Ararteko erakundearen Haur eta Nerabeentzako Bulegoa egi bihurtu zen, erakundearen berrantolatze prozesu baten emaitza gisa. Horren helburu nagusia haurren eta nerabeen eskubideak hobeto babestea da, Ararteko erakundearen lan orokorrari lotuta; izan ere, lan hori gure adingabeek bizi dituzten errealitateetan gehiago sistematizatzeko eta proiektatzeko aukera ematen du.

2010. urtean zehar garatu zen inplementazio fasea amaitu ostean, 2011. urte hasieran Haur eta Nerabeentzako Bulegoa jendaurrean aurkeztu zen. Aurkezpen hori eta 2010ean Eusko Legebiltzarraren aurrean egin genuen urteko txostenaren aurkezpena batera gertatu ziren. Formatu horren bitartez, antolakuntzako errealitate berria islatu da, modu berezian bulegoaren jarduketara testuinguruan garatutako jarduerak aurkeztuz.

Kasu honetan formatu bera erabili dugu, Legebiltzarrarentzako 2011ko urteko txostenaren moduko osotasun baten zati izango den dokumentua eginez, hau da, modu independentean irakur daitekeen dokumentu bat. laz azaldu genuen bezala, modu horretan bereziki zaugarria den kolektibo horri lotutako jarduerekin gertatzen dena islatu da: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduketak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren zatiari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa zazpi kapitulutan egituratuta dago. Lehenengoan bulegoaren jardueraren gizarte- eta araudi-testuingurua azaltzen da, bai eta txostenak hizpide duen urterako ezarritako plangintzaren barruan dauden lan-ildoak ere.

II. kapitulan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, haurren eta nerabeen eskubideen inguruan antzemandako arazo nagusiak aipatzen dira. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren;


foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak birpasatzen dira.

III. kapituluaren aurreko urteetako txosten berezietan egindako gomendioen jarraipena jaso da. Kasu honetan, 2009. eta 2010. urtean argitaratutako txosten berezietako gomendioen jarraipena abian jarri da: *Adingabeei balioak igortzea* eta *EAEko erakundearen eginkizuna nerabeen droga kontsumoaren arloan, betiere*, 2011ko maiatzean aurkeztu zen Arrisku egoera berezietan dauden haurren gaineko txosten berezian jasotako zaugarritasun egoerei lortutako gomendioen eboluzioarentzako denbora utziz. Hori guztia, agiriaren IV. kapituluaren zehaztasunez azaldu da, kapitulu hori txosten bereziei zuzenduta baitago.

V. kapituluak haurrek eta nerabeek parte hartu dezaten eratu dugun organoan garatutako jardueraren aipamen berezia egiten du: Haurren eta Nerabeen Kontseilua, nolabaiteko sendotze maila eskuratu duen errealitate bihurtu dena. Haren egitura, funtzionamendua eta, batez ere, 2011. urtean zehar jorratu diren gaien inguruan, gure haurren eta nerabeen berzeko ahotsa atal horretako orrialdeetan jaso dira.

VI. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu: ezagutza trukatzeko foroetan parte hartzea, beste gizarte eta erakundearen arteko eragileekin lankidetzan aritzea, hezkuntzako materialak argitaratzea edo 6-11 urteko haurrentzako Ararteko erakundearen web orrialdea bertan aipatzen diren ekimenetako batzuk dira.

Azkenik, VII. kapituluak agiria itxi egiten du laburbilketa gisa egindako zenbait gogoeten bidez.



## ARAU- ETA GIZARTE-TESTUINGURUA





## I) ARAU- ETA GIZARTE-TESTUINGURUA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2011. urtean zehar garatu duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, bai eta 2010-2014 denboraldirako bulegorako marraztu diren jarduketa ildoak kontuan hartuta ere. Plangintza estrategikoaren aukera horiek gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean gertatzen dira. Plangintza erantzunak ematen saiatzen da baina testuinguruak egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatu egiten du. Hori dela eta, adingabeen esparruan egindakoa xehetasunez azaltzen hasi baino lehen, hurrengo orrialdeetan, Haur eta Nerabeen Bulegoaren lan-apustu nagusiak gogora ekarriko ditugu. Halaber, gure ustez, haurren eta nerabeen egoerari lotuta esanguratsuak diren datu nagusiak aipatu eta jarduketaren arau-testuingurua osatzen duten legeak, dekretuak eta erregelamenduak aurkeztuko ditugu.

### 1.1. 2010-2014 Jarduera-esparrua

Haur eta Nerabeen Bulegoaren 2010-2014 jarduketa-esparruan, [iazko urteko txostenean](#) aurkeztu zen horretan, esku-hartze ildo nagusiak nolabaiteko zehaztasunez azaltzen ziren. Hala, erakundearen gainontzeko eremuetan bezala, bulegoak adingabeek aurkezten dituzten edo eurengan eragina duten kexak eta eskaerak jaso eta aztertzen ditu. Kexak eta eskaerak modu zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete. Lan hori modu batean norbaitek (persona batek, kolektibo batek) edo zerbaitek (komunikabideen bitartez edo beste bideren bitartez ezagutu den eskubideen urraketa posible bat) aurkezten digunaren aurrean "erreakzionatzean" datza eta lan-ildo proaktiboagoen bidez osatzen da. Azken horien artean jarduera hauek daude: sarean, modu kolektiboan eta lankidetzara erabiliz egindako lana sustatzera eta haurren eskubidearen kultura zabaltzera zuzendutako jarduerak, bereziki, adingabeen parte hartzea eta euren ahotsa entzunarazteko aukera bultzatzen dituztenak.

Ararteko erakundeak gain hartu duen "matrize-eredua" dela-eta, eremu materialetan espezializatutako sektore-arloak zeharkako begiradek osatzen dituzte, kasu honetan, haurren eta nerabeen eskubideenak. Horren xedea elkar aberastea eta lan koherente eta sinergikoa lortzea da. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa berezko langileen hornidura txikiarekin egitura-tu da, haurrei eta nerabeei maiztasun handiarekin eragiten dieten gaien arloko aholkularien laguntzarekin batera. Horiek guztiak, arartekoak, arartekoaren ondokoak, gizarte harreman, ikerketa eta modernizazioko zuzendariak eta idazkari nagusiak **Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Aholkularien Kontseilua** osatzen dute eta jarduketa-esparru orokor hori abiapuntutzat hartuta, urtero egiten diren lanerako planen definizioan eta konpromisoan egin-kizun nabarmena daukate.

2011ko Jarduketa Planak, esku artean dugun denboraldirako, lehen aipatu ditugun lan-ildoak zehaztu ditu. Plan hori gure bidai orria da eta horri esker adierazitako bidean zehar aurrera egin dezakegu ahaleginak batuz eta gure helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lortzeko beharrezkoak diren sinergiak sortuz. Ondorengo kapituluetan aipatuko diren jarduerak plan horren emaitza dira:

## 1.2. EAEko adingabeen egoeraren adierazle nagusiak

Atal honen helburua EAEko haurren eta nerabeen egoerari buruzko ikuspuntu orokor bat ematea da, ahalik eta daturik eguneratuenean bidez (bigarren mailako iturrietatik hartuak) eta, zenbaitetan, datu horien bilakaera historikoari arreta jarriz.

laz adierazi genuen hainbat eragilek, sozialek zein instituzionalek, egiaztatu zutela haurren eremuan behar bat zegoela: haurren eta nerabeen errealitateari buruzko informazio sistema bat edukitzea, parametroekin, irizpideekin eta partekatutako adierazleekin. Modu horretan, gai edo errealitate zehatzen inguruan gabeziak dituen informazio zabalari eta estatistikako eragiketen arteko desagregazio desegokiaren edo bat egiten ez duen desagregazioaren ondoriozko datuen erabilera eskasari konponbidea emango zaie, horrek guztiak datuen alde-raketa zailtzen eta datuen bilketa eta sistematizazio eskasa eragiten baitu. Esan dezakegu 2011n bide horretan modu nabarmenean aurrera egin dela Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren [Haur eta Nerabeen Behatokiak](#) egin duen [EAEn haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema](#). Sistema horrekin ados egon daiteke edo ez, haren konfigurazio zehatzari dagokionez, baina eztabaidaezina da aztertu den errealitatearen *argazkiak* eskaintzen dizkigula, beti elementu berdinez osatutakoak, osoak eta denboran errepikagarriak direnak. Horri esker, haurren ongizatearen jarraipena egin dezakegu eta egindako aurrerapenak ebaluatu ditzakegu haurren eta nerabeen arloko politikak hobetzeko modu gisa.

Edonola ere, gure asmoa ez da datu multzo horren bitartez EAEn haurrek eta nerabeek bizi duten egoerari buruzko ikuspegi zehatza eskaintzea, baizik eta agiri honetan behin eta berriro aipatuko dugun kolektiboaren gutxieneko karakterizazio bat egiteko aukera ematen diguten zenbait datu azpimarratzea. Horretarako, gaurkotasuna kontuan hartuta, lehen aipatu dugun behatokiak egin duen [EAEko haur eta nerabeei buruzko diagnostikoan](#) jasotako informazioa laburbildu dugu eta 2011ko udazkenean [Osasun eta Gizarte Politika Saileko Haurren Behatokiak](#) argitaratu zuen [Haurrak zifretan 2009](#) ikerketan jasotako zenbait datu-ekin osatu dugu.

### 1.2.1. Egitura demografikoa

2010ean Euskal Autonomia Erkidegoan 18 urte baino gutxiagoko 339.048 neska-mutil zeuden, sexuagatiko banaketa nahiko orekatuarekin (% 48,6 neskek eta % 51,4 mutilak). Termino absolutuetan adingabeen kopurua orain dela hamarkada batekoa baino handiagoa izan arren, populazioaren osotasunaren gainean daukan pisuak ia bi portzentaje-puntu behera egin du. Gaur egun populazio osoaren % 15,6 irudikatzen du, hau da, estatu espainoleko adingabeen portzentajea baino zertxobait txikiagoa da (% 17,5). Dena den, gure arreta ebo-luzioaren dinamikan kontzentratuz gero, antzeman daiteke orain dela gutxi arte populazioan 18 urte baino gutxiagoko pertsonen mailaz-mailako murrizketak eta, momentuz, berria den haren pisuaren egonkortasun murrizak azken urteotan, European antzeman daitekeen dinamikaren antza daukala.



Adingabe atzerritarren populazioa neska-mutil horien % 7,4 osatzen dute. Horrek esan nahi du azken urteetan gora egin duela (% 5,5 2007. urtean). Hala eta guztiz ere, EAE bost puntutara dago, estatu espainolean erregistratutako adingabe atzerritarren populazioaren % 12tik behera.

Epe motzean Estatistikako Institutu Nazionalak egin dituen populazio-proiekzioek aditzera eman dute 2018. urtean 18 urte baino gutxiagokoen populazioa egonkortuko dela eta apur bat suspertuko dela. Aurreikuspenak betez gero, aldea puntu batekoa besterik ez da izango, beraz, ematen du populazio horren baliabideak eta egitura ez direla asko aldatuko.

18 urte baino gutxiagoko populazioaren pisu txikiak emankortasun tasa txikiekin zerikusia dauka (EAE n 1,33 seme-alaba emakume bakoitzeko); izan ere, azken urteetan zertxobait suspertu den arren, "ordezkapen indizea" izenekora heldu arte puntu erdi baino gehiagoko aldea dago. Emankortasun txiki horrek amatasunaren egutegiarekin zerikusi argia dauka. 2008. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan batez besteko adinik berantiarrena 32 urtetik gora kokatu zen. Fenomeno hori ohikoa da estatu espainolean (bataz besteko adina 30 urtetatik gora dago) eta ez da oso desberdina Europa mailan.

### **1.2.2. Elkarrekin bizitzeko moduak: familia anitzak**

2008. urtean EAEko familia guztien % 16k, familia-eredu desberdinak kontuan hartuta, ki-deen artean 16 urte baino gazteagoak diren pertsonak dituzte (127.895 etxe). Bestalde, 18 urte baino gutxiago dituzten pertsonen % 99 familiarekin bizi da eta, kontsultatutako ikerketa kualitatiboen emaitzekin bat eginez, gehienak pozik daude euren familiarekin daukaten harremanarekin, segurtasuna eta konfiantza ematen duen esparrutzat jotzen baitute. Familiak haurren garapenean eta hurrek gizartean duten parte hartzearen elementu zentrala izaten jarraitzen du, balioen igorpenean gizarteko beste eragile batzuen alde garrantzia galdu duen arren.

Ikerketa horien arabera, familiaren balorazio altua mantendu bada, batez ere, demostratu duen egokitzeko gaitasunagatik da eta, beste faktore batzuen artean, barruko jokabideen malgutasunagatik eta askatasun, barruko demokrazia eta seme-alaben arteko berdintasun maila hazi delako. Hala eta guztiz ere, mailaz maila familia tipiko tradizionalarekiko lotura apurtzen ari garen arren, hau da, gizona eta emakumearen, aita-amen eta seme-alaben hierarkia zurruna eta gizonetzkoentzat eta emakumezkoentzat polarizatutako eginkizunak ezaugarri dituen, emakumeek etxeko esparruaren antolakuntzan erreferentzia izaten jarraitzen dute eta familia testuinguruak genero bereizketa indartzen du, familiaren egituraren barruan, jarduera desberdinak esleitu emakumeei eta gizonari. Beraz, sexuagatik tipifikazio prozesuaren kate-maila nagusia da.

Bestalde, familiaren malgutzaren eta demokratizazioaren ondorioz, hazkuntzaren inguruan zenbait zailtasun sortu dira mugak eta arauak ezartzeari lotuta. Familiaren antolakuntzaren barruan hurrek eta nerabeek lortu dituzten botere-kotek (galdetu egiten zaie eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen dute) eta gurasoek nagusikeriazko eredutik aldentzeko

egiten dituzten saiakerek zailtasunak eragin dituzte gertuko familia harremanen eta arauak eta mugak ezartzearen arteko oreka aurkitzeko (agintea galtzea).

Amaitzeko, orain arte aipatu dugun EAEn burutu den diagnosiak agerian jarri du irakasleek eta gurasoek partekatzen duten iritzi bat haurrei eta nerabeei igortzen ari zaien eredu protektionistaren ingurukoa; izan ere, gehiegizko babes ematen zaie eta haurren eta nerabeen beharrak berehala asebetetzearekin eta edozein motatako sufrimendu saihesteko nahiarekin lotzen da. Horrek guztiak, kolektiboa nolabait infantilizatu egiten du. Egoera horrek euren autonomia, gaitasunak, ahaleginaren kultura eta gaingintzeko estrategiak murrizten ditu eta hori frustrazioaren aurrean daukaten tolerantzia urriaren azalpena izan daiteke.

### 1.2.3. Osasuna

Osasunaren arloan erabilgarri dauden adierazle gehienek osasunik ezaren espresiorik larrienari egiten diote erreferentzia: heriotza. Erikortasunari buruzko zenbait datu daude baina horiek baliatuz ezin da fenomenoaren dimentsioaren eta ezaugarrien ikuspegi osoa eduki. Edonola ere, argi dago euskal gizartea osasun eredu moderno baten barruan dagoela eta arazorik larrienak erikortasunari lotuta daudela, ez horrenbeste heriotzari lotuta. Zorionez, heriotza-tasa benetan baxua da, batez ere, gazteen artean.

Esan dugun moduan, EAeko haurrek osasun egoera bikaina daukate, azken urteetan hobetu egin dena. Horren adierazle bat haurren heriotza-tasa da, Europako tasaren (% 4,7) eta Espainiako tasaren (% 3,31) azpian dagoena: bizirik jaiotzen diren 1.000 pertsona bakoitzeko, 2,91 hiltzen dira urte bat bete aurretik.

18 urte baino gazteagoak diren adingabeen artean heriotza kausa nagusien arabera heriotzaren egitura aztertuz gero, funtsezko desberdintasunak antzeman daitezke bizitzaren etaparen arabera. 0 urtetan heriotzen % 80,8k ziklo perinataleko gaixotasunekin eta jaiotzetiko malformazioekin zerikusia dauka, urte bat pasa eta gero kanpoko heriotza kausek garrantzia bereganatzen dute (istripuak eta traumatismoak) eta heriotzen erdia baino gehiago eragiten dituzte (% 55,9 15-17 urteko tartean).

Neurri handi batean, erikortasunaren ezaugarriek heriotza-tasan antzemandako joera baieztatzen dute. Dena den, aintzat hartu behar da arnas sistemaren eta digestio-aparatuaren gaixotasunek garrantzia bereganatu dutela haurren osasun arazo askoren eragile gisa.

Ohitura osasungarriei dagokienez, esan dezakegu, oro har, elikadura-ohiturak osasungarriak direla eta gizentasun portzentajeak (% 5,1) beste autonomia erkidegoekin eta estatuko (% 9) batz bestekoarekin alderatuz argi eta garbi baxuagoak direla. Kirola eta ariketa fisikoaren harira, 1-15 urte bitarteko euskal populazioak ez du inolako ariketa fisikorik egiten aisialdian. Errealitate hori nabarmenagoa da nesken artean eta gorantz doa nerabezaroan sartu ahala.

Eusko Jaurlaritzak substantzia psikoaktiboen kontsumoaren inguruan urtero jasotzen dituen datuei jarraiki, alkohola, tabakoa eta legezkoak ez diren beste substantzia batzuen kontsumoa nerabeen artean zabaldu den errealitate bat da. Alkohola eskuragarrien dagoen substantzia izateaz gain, gehien kontsumitzen dena da (11-17 urte bitarteko euskal populazioaren % 20k alkohola kontsumitzen du astero eta portzentajea handituz doa adina handitu ahala; 17 eta 18 urte dituztenen artean, % 52k kontsumitzen du). Horrez gain, oro har uste dute alkohola ez dela gainontzeko substantziak bezain kaltegarria. 11-17 urte bitarteko nesken % 12,3k eta mutilen % 6,4k egunero erretzen du, nerabeen % 60k tabakoa larria edo oso larria dela uste duen arren. Azkenik, % 71k uste du cannabisa kontsumitzea larria edo oso larria dela eta portzentajea handitu egin da azken urteetan, beraz, ematen du gaur egungo nerabeek ezagutzen dituztela horrek dakartzan arriskuak.

14-17 urteko gazte euskaldunen % 30,2k erabateko sexu-harremanak eduki du eta lehenengo erabateko sexu-harremanaren batz besteko adina 15 urtekoa da. Ematen du, oro har, nerabeek antisorgailuak ezagutzen dituztela, batez ere, preserbatiboa. Hala ere, ikerketaren arabera ohikoena da haurdunaldia saihesteko erabiltzea eta ez horrenbeste sexu-transmisiozko gaixotasunen aurrean babesteko; izan ere, normalean horien eragina ez daukate gogoan. Sexu harremanak eduki dituzten euskal gazteen % 92k segurua den antisorgailua erabili du; hala ere, ezin dugu ahaztu EAEko 14-17 urte bitarteko gazteen % 2,4 haurdun egon dela edo norbait haurdun utzi duela.

#### 1.2.4. Hezkuntza

Azken urteetan 16 eta 17 urteko gazteen eskolatzeko tasak modu nabarmenean gora egin du eta 16 urtera arteko derrigorrezko hezkuntza arrunt bilakatu da. Horren ondorioz, populazioaren batz besteko prestakuntza maila igo da.

EAEk inguruko beste lurralde batzuekin alderatuz etekin maila handiagoak ditu zientzia, matematika eta irakurketa bezalako arloetan; izan ere, PISA proban lortutako ezegokitasun portzentajeak % 15 ingurukoak dira, estatu eta Europa mailan, aldiz, altuagoak dira. Dena den, oraindik ere jorratu beharreko erronkak daude.

2008. urtean, ikasketak behar baino lehen utzi zituzten gazteen portzentajea % 14,7koa zen eta mutil gehiago hartzen zituen barne (% 18, neskek, berriz, % 11). 2010. urterako Europa mailan ezarritako helburura heltzen ez den arren -% 10-, xede hori gertuen daukan autonomia erkidegoa da; izan ere, estatu mailan, ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gazteen batz bestekoa % 31ko da.

Lehen mailako hezkuntzari dagokionez, adin teorikoan etapa amaitzen dutenen portzentajea % 88koa da. Portzentaje hori handiagoa da zentro pribatuetan eta D eremuan ikasten dutenen artean (% 91 bi kasuetan). DBHko etapan portzentajea % 84koa da eta etapa horretan hasten dira sexuagatiko desberdintasunak; izan ere, neska gehiagok adin teorikoan etapa gainditzen dute (% 69, % 59ren aurrean). Batxilergoari dagokionez, 10 ikasle bakoitzeko 6k

amaitzen dute adin teorikoan eta sexuaren arabera desberdintasun nabarmenak antzeman daitezke (nesken % 70ek adin teorikoan gainditzen dute, mutilen kasuan, berriz, % 55ek).

11-17 urte bitarteko euskal ikasleen % 15ek adierazi du ez zaiola eskola batere gustatzen eta, kasu honetan, sexuagatiko desberdintasuna oso adierazgarria da: eskola batere gustatzen ez zaien mutilen portzentajea % 21ekoa da, neskena, aldiz, % 8koa da. Zentzu horretan, adina ere faktore erabakigarria da, hazi ahala eskolarekiko atsekabea handituz doa. Hala, 11 eta 12 urteko adingabeen % 7,8k adierazi du ez zaiola eskola batere gustatzen baina 15 eta 16 urtekoen artean portzentajea % 21ekoa da.

Azken hamar urteetan hiru euskal lurraldeetan behar bereziak dituzten ikasleen proportzioa handitu egin da, hortaz, EAE osoan eskolatuta dagoen ikasleriaren % 3,4 hezkuntza behar berezi eta/edo zehatzak dituen ikasle gisa tipifikatu da.

Haurrak eta nerabeak nahiko pozik daude eskolan euren parekoekin dituzten harremanekin nahiz eta gatazkak ere existitu, muturreko kasuetan, eskolako jazarpen edo bullying bilakatzen direnak. *Arrisku egoera berezietan dauden haurrak* txosten berezian jasotako datuen arabera, 2008/2009 ikasturtean 77 salaketa egon ziren guztira eta tratu txarrei lotutako 40 kasu identifikatu ziren. Txostenak agerian utzi du kasu mota horiek gehienbat bigarren hezkuntzan gertatzen direla. Horietan, eraso fisiko zuzenak, jazarpenarekin hasteko adinaren jaitsiera (baita lehen hezkuntzan ere) eta neskekin alderatuz (% 15), mutilen (% 18) portzentaje handiago bat erasoaren zati adierazgarriak dira. Halaber, aipatu beharra dago nerabezaroan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak parekoen arteko jazarpen tresna berri bilakatu direla.

### **1.2.5. Ekonomia-baliabideak; pobreziaren eragina**

2008. urtean oinarritzko beharren asebetetzeari aurre egiteko diru-sarrera ekonomiko nahikoak ez edukitzeko arriskua 15 urte baino gutxiago duen populazioaren % 6k pairatzen zuen, hau da, portzentajea 2004. urtekoa baino zertxobait altuagoa zen (% 5,3), bai eta populazio osoak daukan pobreziaren arriskua baino altuagoa ere (% 4,1).

2008. urtean 10 adingabeetatik 2 ongizaterik eza pairatzeko arriskuan zeuden (epe motzean, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate eta erosotasun mailak mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren ohiko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik eza), 2004. urteko datuetan jasotako portzentajea baino altuagoa. Halaber, euskal populazio orokorraren kasuan jazoera horri dagokion ehunekoa % 14 da, beraz, berriro ere berretsi egin da pobreziak eragin handiagoa daukala haurren artean.

Ikuspegi hori osatzeko, mendekotasuna duten seme-alabak dituzten familien pobreziaren adierazleak aintzat hartu behar dira. Hala, etxeetan egindako inkestaren arabera, 2008. urtean mendekotasuna duten seme-alabak barne hartzen dituzten euskal etxeen % 34k ez dauka diru-sarrera nahikorik gastu osagarriari aurre egin ahal izateko. % 12k ez dauka diru-sarrera nahikorik seme-alaben ikasketak ordaindu ahal izateko eta mendekotasuna

duten seme-alabak dituzten euskal familien % 12k ez dauka diru-sarrera nahikorik euren seme-alabak zaintzeko pertsona bat kontratatu ahal izateko. Diru-sarrera nahikorik ez edukitzeari buruzko egoera horiek guztiek eragin handiagoa daukate guraso bakarreko familien kasuan. Muturreko kasuetan mendekotasuna duten seme-alabak barne hartzen dituzten euskal etxeek arazoak dituzte oinarrizko beharrak asebetetzeko. Horri dagokionez, 2008ko portzentajeek 2004koak bikoitzen dituzte -% 5,35 2008an eta % 2,97 2004an-.

Egoera ekonomikoak eta lanaren egoerak modu nabarmenean okerrera egin dute 2008. urtetik gaur egun arte, BAIk jasotako langabezia-tasaren hazkundeak erakusten duen moduan (2008ko IV. hiruhilekoan 8,32 egin zuen gora eta 2011ko III. hiruhilekoan 12, 17). Horrek guztiak adierazten du ondorioz gure lurraldean haurren pobrezia egoerek gora egin dutela.

### 1.2.6. *Aisia*

Dirudienez, gaur egun haurren eta nerabeen aisia pasiboagoa da eta kanpoan garatzen ez diren mugimendu gutxiko jarduerak garrantzi handiagoa dute beste belaunaldi batzuekin alderatuz, batez ere, hiri eremuetan bizi direnen artean. Bestalde, ematen du joera argia dagoela antolatutako eta zuzendutako aisiaren alde, arauen bidez erregulatutakoa, heldu baten ikuskapen edo kontrolaren menpe dagoena (eskolaz kanpoko ekintzak, udalekuak, ludotekak...) eta lan merkatuaren eskakizunek eta familia eta lana bateratzeko zailtasunek baldintzatzen dutena.

Bestalde, adingabeen aisialdia gero eta gehiago ikasketei lotutako jarduerak betetzen dute (1,64 orduko batz bestekoa etxerako lanak egiteko eskolako ordutegitik kanpo 11 eta 17 urte bitarteko neska-mutilen kasuan), bai eta eskolako lanekin laguntzeko edo hizkuntzak edo musika ikasteko eskolaz kanpoko jarduerak ere, Kasu batzuetan, gurasoek behartuta eskolako emaitzak txarrak izan direlako edo ikaskuntzak hobetzeko.

Banakako jolasak gero eta ohikoagoak dira (haurrek denbora gehiago pasatzen dute bakarrik lehen baino) eta 11 eta 17 urte bitarteko 10 adingabetatik ia 2 astean zehar egunean 2 ordu inguru egoten da ordenagailuarekin edo kontsolarekin jolasten. Telebistak indarra galdu du ordenagailuaren erabileraren aurrean. Hala ere, 11 eta 17 urte bitarteko euskal populazioaren erdia baino gehiagok (% 55,7) telebista ikusten du (bideoak eta DVDak barne) astean zehar egunean 2 ordu edo gehiago.

### 1.3. Arau- eta eskumen-esparrua

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean Espainiak **Hauren Eskubideei buruzko Konbentzioa (HEK)** berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an **Nazio Batuen Erakundearen (NBE)** batzarrak hartu zuena. HEK modu unibertsalean onartu den hauren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan hauren arloan erakundeen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena.

**Bereizkeriarik ezaren printzipioaren** arabera, haur bakar batek ere ez du bereizkeriarik jasango haurraren, gurasoen edo ordezkari legalen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, estatus ekonomikoa, oztopo fisikoak, jaiotza edo beste edozein baldintzaren ondorioz. Halaber, printzipio horrek nesken eta mutilen, atzerritarren eta bertakoen, ezintasunen bat duten hauren eta ez dutenen eta abarren arteko aukera berdintasuna ere barne hartzen du.

**Adingabearen interes gorena**, hitzez hitz, honela formulatu da: “Herri-administrazioek edo administrazio pribatuak, epaitegiek, administrazio aginpideek edo erakunde legegileek hauren inguruan hartzen dituzten neurri guztietan ezinbestekoa izango da adingabearen interes gorena aintzat hartzea”.

6. artikulutik aurrera hiru eskubide talde handiak zerrendatu dira, HBP letren bitartez adierazi daitezkeenak: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera edukitzeko eskubidea, hauren eta helduen artean baliabideak banatzea; **babesa**, hau da, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **parte hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nor bere burua aditzera emateko eta banaka zein kolektibo batean ahotsa edukitzeko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundeen eta gizartearen ardura partekatua.

Nazioartean, lehen hauren eta nerabeen eskubideak defendatzeko marko unibertsala den Nazio Batuen Hitzarmena aipatu da, baina komeni da jakitea badaudela Espainiak berretsi dituen adingabeei eragiten dieten gai sektorialeki buruzko zenbait nazioarteko itun –hainbat nazioarteko erakundek sustatu dituzte itun horiek, hala nola **Nazio Batuak, Nazioarteko Lan Erakundea, Europako Kontseilua, Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Konferentzia**: Hauren lana, adingabeak ostea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar. Gainera, Espainiako Estatuak gai horri dagozkion nazioarteko foroekiko duen lotura eta konpromisoaren adierazle gisa azpimarratu behar da Nazio Batuen Haurrei buruzko Biltzar Berezian (2002ko maiatzan egin zen) parte hartu zuela eta “**Un mundo apropiado para los Niños y Niñas**” izeneko dokumentuan jasotako Adierazpena eta Ekintza-plana onartu zituela.

Europar Batasunaren markoan ere berriaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailaren 8ko A-3.0172/92 Ebazpena, Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, haurrei babesa ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, [Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#) ere aipatzekoa da. Gutun horrek, adingabeei dagokienez, adingabeen entzunak izateko eskubidea, adingabearen interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea ospetsu egiten ditu. Garapenean, 2006. urtean, Europako Batzordeak oinarri bat ezarri zuen haurren eskubideak euren barruko zein kanpoko politiketan sustatzeko eta babesteko «[Haurren Eskubideen gaineko Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpenean. Bertan, EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko egiturak ezarri ziren eta interesdunekiko elkarrekintza arintzeko xedearekin gertakarietan oinarritutako politiken oinarriak finkatu ziren.

2011n batzorde horrek erabaki zuen eskubide horiei bultzada berri bat emateko uena heldu zela eta helburu politikoak neurrien bidez islatzeko garaia zela. Horretarako, jakinarazpen bat bidali zuen Europako Legebiltzarrera, Kontseilura, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordera eta Eskualdeetako Lantaldeari eta [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agendaren](#) alde egin zuen. Agendak EBko erakunde guztien eta kide diren estatu guztien konpromiso irmoa berretsi behar du, EBko politika guztietan haurren eskubideak sustatzeko, babesteko eta errespetatzeko eta hori guztia emaitza zehatzetan islatzeko. Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agendak gutunak eta HEK-k haurren eskubideen inguruan egindako xedapenak errespetatzeari dagokionez EBko ekintzaren eredugarritasuna bermatu behar duten printzipio orokorrak azaldu ditu. Horrez gain, hainbat eremutako zenbait neurri zehatz ditu hizpide, eremu horietan EBk benetako balio gehigarria ekar dezake-eta, hala nola, haurrentzako justizia, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan haurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz.

Edonola ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipioak, goian azaldu direnak, jada Espainiako Estatuko ordenamendu juridikoaren zati dira, **Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan** sartu ziren heinean (lege horren bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea. Lege hori botere publiko guztiak, berriaz hurrekin lotutako erakundeak, gurasoak eta senideak, eta biztanleria oro har lotzen dituen babeserako marko juridikoa da estatu-mailan. Lege horretan jasotzen dira nazioarteko araudiaren legearen eta haurren eskubideen aplikazio-esparrua, eta bereziki aipatzen da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Herri-administrazioen jardunaren printzipio gidariak ezartzen dira, eta haurren babes gabeko egoeretan zer egin zehazten da, bai eta haurrak babesteko erakundeak ere.

2011. urtean lege hori onartu zenetik adingabeen babesaren gainera legeria eguneratzeko prozesu bat hasi da eta, jendaurrean aurkeztu zen aurreproiektuarekin bat eginez (Haurrak babesteari buruzko legeria eguneratzeko lege organikoaren aurreproiektua), aipatutako 1/1996 Lege Organikoan eta [Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean](#) zenbait aldaketa egiteko proposamena egin du. Proposatutako aldaketen helburua, batez ere, hobekuntzak egitea eta babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako arretan eskubideak bermatzea da, hortaz, horiei buruz II. kapituluari hitz egingo dugu, babesgabetasun egoeran dauden haurren arazoa jorratzen duen kapituluari baita. Baieztapen horren salbuespena da adingabearen interes gorena interpretatzeko eta aplikatzeko aintzat hartu behar diren gutxienezko irizpideak ezartzen dituen artikulua; izan ere, aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazi den moduan, aplikatuko den banakako kasu bakoitzean mugatu eta zehaztu behar den kontzeptu juridiko zehaztugabea da. Horrek guztiak, esperientziak frogatu duen bezala, beti erraza ez den balorazioa eta erabakia eragiten ditu.

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan autonomiako legeria garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, "Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera" izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babesa arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlori eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari, arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizarteratzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugarritan aipatzen da, arau-marko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmendu ditugu dokumentu honen [I. eranskinean](#).





II

**ESKUBIDEEN URRAKETA?  
KEXAK, KONTSULTAK ETA  
INIZIATIBA PROPIOKO JARDUERAK**



ararteko



## II) ESKUBIDEEN URRAKETA? KEXAK, KONTSULTAK ETA INIZIATIBA PROPIOKO JARDUERAK

Arartekoaren erakundeak ikertutako kexen eta kontsulten espedienteen azterketaren hurbiltzeak helburu diagnostikoa du Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren dokumentu espezi-fiko honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkagarriak hautematea da, eta espediente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentsore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes ga-rantzitsua du.

### 2.1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espedienteak: gerturatzeko kuantitatiboa

2011an, haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa argi eta garbi aipatzen zuten 292 kexa-espediente izan ziren guztira, Arartekoaren guztizko jardunaren ia %12,4. Komeni da azpimarratzea zenbaketa horretan hiru suposizio hartu direla kontuan:


- a. Adingabeek zuzenean aurkeztutako kexak.
- b. Adingabe horietako baten ordezkariak direnek aurkeztutako kexak. Oso ehuneko handi batean, pertsona hori haurraren aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak, hezitzaileak edo gertuko pertsonak ere izan daitezke.

Ez dira zenbatu baina aintzat hartu beharko lirateke diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruan zenbait familiek aurkeztu dituzten 290 kexak; izan ere, portzentaje altu batean familia horietan adingabeak daude. Analisi handirik egin gabe, hainbat ikerketek baliabide ekonomikorik eza eta ondasun materialak eskuratzeko aukerarik eza, hezkuntza eta osasuna, besteak beste, bezalako eskubideak aukera berdintasunez gozatzeko zailtasunekin lotzen dituzte. Horrez gain, pobrezia eta gizarte bazterkeria testuinguruek familian eta haurren ongizatean eragina daukate, hala nola, familia eta gizarte harremanetan, tratu txarren, indarkeriaren eta eskola uztearen aurrean zaurkorrago bihurtuz. Krisi ekonomikoak eta enpleguaren egoerak hainbat familian eragina eduki dute eta,aldi berean, bizitzeko gutxieneko errentak bermatzen dituzten (azken babeserako sarea) politika publikoetan egon den atzerakadak, zalantzarik gabe, arriskuan jartzen ditu familia horietan hazten diren haurren garapenerako aukerak.

**Kexa aurkezten duen pertsonari** dagokionez, baieztatu dezakegu soilik kexen % 11 adingabeak berak aurkeztu dituela eta ia kasu guztietan legezko adin nagusitasunetik oso gertu dagoen gaztea izan da. Izan ere, aipatu beharra dago adingabe horien ia % 60 orain dela gutxi arte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako egoitza-baliabideen erabiltzailea izan dela eta euren emantzipazio prozesuari lotutako arazoak mahaigaineratu dituzte. Kexen gainontzeko % 89 helduek aurkeztu dituzten kexak dira, eragindako adingabeak hizpide dituzten egoeren berri eman digutenak. Horietatik 32k, edo % 12,3k, titulartzat elkarte


edo erakunde kolektibo bat daukate eta kasu guztietan zenbait haur eta neraberi eragiten dieten egoerak aurkeztu dizkigute.

**1. grafikoa. Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera**




**Gaikako esparruen** araberako espedienteen sailkapena (horren azterketa zehatua txosten honetako 2.2. ataleko muiin nagusia osatzen du), ondorengo grafikoa islatutakoa da:

**2. grafikoa. Kexen banaketa, arlo tematikoaren arabera**



Jaso ditugun 292 kexen artean eta txosten hau idatzi zen unean eskura genuen informazioari jarraiki, 42 gaitzetsi egin dira eta gainontzekoak itxita (bakoitza bere emaitzarekin) edo izapidetzearen fase jakin batean daude.

### 3. grafikoa. Baztertutako eta tramiterako onartutako kexen ehunekoa




Iturria: guk geuk egina

**Kexak ez onartzeko** hiru **arrazoi** nagusiak (arrazoien % 71,4 biltzen baitute) hauek dira: Ararteko erakundearen eskumenen eremutik kanpo dagoen gai bat izatea (% 33,3), epaiaren ebazpenaren zain dagoen kontu bat izatea (% 21,4) eta irregulartasunen bat dagoela bistakoa izatea (% 16,7). Gainontzeko % 28,6 **Herriaren Defendatzaileari** igorri zaio, azaldutako gaien inguruan duen eskumena aintzat hartuta, egokitzen jotzen badu ikertu ditzan. Hiru kasutan ez da alde aurretik dagokion administrazioaren aurrean erreklamaziorik aurkeztu edo erantzuteko legeak ezarritako epeen zain gaude; beste hiru kasutan, partikularren arteko arazoak dituzte hizpide eta azken bi kasutan ezin izan dira izapidetu anonimoak izateagatik edo formari dagokionez akatsen bat egoteagatik.

Edonola ere, kasu horietan kexan azaldutako egoeraren gaineko ikerketa edo esku-hartzea posible izan ez bada ere eta bistakoa den irregulartasun baten ondorioz gaitzetsi diren kexak alde batera utzita, izapidetzeko onartu ez diren kexen azterketak informazio baliagarria eman digu herritarrek euren eskubideak arriskuan ikusi dituzten egoerei buruzkoa. Izan ere, kapitulu honetako bigarren atalean, egoera horietako batzuk hizpide dituzten oharrak ikusi ahalko dira, bai eta arreta bulegoetan antzeman diren eta goian aipatutako arrazoien pareko arazoimenen ondorioz kexa bihurtu ez diren batzuk ere.

Bestalde, Defentsa Bulego honen irizpidea honako hau da: alde batera utzita aipatutako eskumen-eragozpenen ondorioz erreklamazio bat formalki izapidetu dezakegun edo ez, erreklamazio hori jarri duenari gure esku dagoen laguntza guztia eman behar diogula, betiere haren funtsa egiaztatu badugu. Modu horretan, gure esku-hartzea, nahiz eta beti ezin zaion zuzenean lotu adierazitako asegabetasunaren zioari, eraginkorra izan dadin saiatzen gara, behintzat horrek erreklamatzailerean bizitzan izan dezakeen eraginari dagokionez. Horixe da hurrengo orrialdeetan jaso ditugun jardueretako batzuen helburua.

#### 4. grafikoa. Baztertutako keak: baztertzeko arrazoiak



Amaitzeko, esan beharra dago gure jardueraren zati gehienaren jatorria aditzera eman ditugun keak direla. Dena den, keza horiek azaltzen dizkiguten arazoek banakako kasuak gainditzen dituztenean edo gizartean alarma pizten dutenean, gure ustez haurren eskubi-deetako bat arriskuan jartzen ari den egoera bati dagokionez, Ararteko erakundearen jarduketa-planak ofiziozko espedienteak abian jartzea aurreikusten du. Horren inguruan ari-tuko gara hurrengo ataleko gaien azalpenaren harira.

## 2.2. Aztertutako gaiak

2011. urtean, adingabeen eremuan Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi kuantitativoak agiri honetako atalik luzeena osatzen du, antzemandako arazo eta kezken, burututako jardueraren eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzen edo ondorioen aurkezpen kua-litatiboa barne hartzen baitu. Zenbatu diren kexen portzentajeak iradoki duen ordenan, informazio hori gaikako esparruen arabera antolatuta aurkeztu da.

### 2.2.1. Hezkuntza

Aurreko grafikoetan adierazi bezala, aurreko izapidetu diren eta adingabeekin lotura zeukaten kexen erdia baino gehiagok (% 55) hezkuntza sistema formalari lotutako egoerak hizpi-de ditu. Arlo horretan gertatutakoa azaltzeko, [Hezkuntzari dagokion Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako txosten orokorraren kapituluaren herri-administrazioen jardueraren ikuskapenari buruz adierazitakoa errepikatuko dugu](#); izan ere, gehienbat haur eta nerabeengan eragina dauka. Unibertsitateko ikasketei dagokienez, txosten honetan soilik unibertsitatean sartze-ko proben ondorioz sortutako zenbait zailtasun jaso ditugu, ulertzen baitugu adin nagusita-sunaren mugan duten neska-mutilengan eragina eduki dezaketela.

### 2.2.1.1. *Hezkuntzako plangintza edo programazioa*

Hezkuntzako plangintzaren inguruko kexak **haur hezkuntzako lehen ziklorako** programatutako hezkuntza eskaintzari buruzkoak (**bi urteko gelak**) izan dira bereziki. Horrek, aldi berean, aurrerago aipatuko dugun ikasleak onartzeko prozeduraren inguruan izapidetutako kexa kopuru handia azaltzen du. Horren adibidea da Gasteizen gertatutakoa, haur kopuru nabarmena plazarik gabe geratu Bautzen ikasleak onartzeko prozesuan eta itxaron zerrendatan geratu behar izan dira eskolatzeko aukerak zehaztu diren arte. Egoera hori dela-eta, ofiziozko jarduera bat hasi behar izan dugu, 2011-2012 ikasturtea hasi ondoren, Eusko Jaurlaritzako [Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak](#) ezarritako adierazleen betetze maila ezagutze aldera, unibertsitatez kanpoko zentroen sarearen plangintza lanean hobekuntza jarraitua lortzeko. Adierazle horien artean honako hauek daude: 1) funts publikoekin mantendutako zentroetan hala eskatzen duten bi urteko ikasleen %90ari gutxienez eskola plaza bermatzea eta 2) plaza lortzen duten bi urteko ikasleen eskaera guztiak, gutxienez % 90ean familiak egindako aukerari erantzuten diola ziurtatzea.

Plangintzaren inguruko kexa horiek izapidetzean egiaztatu ahal izan dugu bi urteko maila horretan hezkuntza administrazioak, berezitasun zehatzak kontuan hartuta ratio ezberdineko taldeak eratu ahaliko direla dioen [hezkuntza langileen lan baldintzak arautzen dituen erabakiaren](#) xedapen batean oinarrituta, zenbaitetan, hasiera batean ezarritako ratioak malgutu ditu eskura dagoen hezkuntza azpiegituraren ahalmena hobetzeko asmoz eskola postuen eskaerari erantzuteko.

Kexa horiei jarraiki, ezin dugu gure kezka ezkutatu hezkuntza administrazioak hezkuntza eskaintzaren **plangintza** eredu linguistiko ezberdinen arabera kontuan hartzen ari dela ikusita. Izan ere, hezkuntza zentroek programatutako ereduaren eskaintzaren ustezko izaera irekia erabiltzen ari da (eskaera nahikoa egotera bakarrik baldintzatuta) hezkuntza plangintzan eragina duten eremuen mugatzea zentro bakoitzak benetan eskaintako **eredu linguistikoaren** maila edo xehetasunera jaitsi gabe egin daitekeela azaltzeko. Egia da ikasleak onartzeko prozesuen kudeaketa gero eta hobeagoa egiten saiatzeko nahiak horrelako irizpide motak defendatzea azal dezakeela. Hala eta guztiz ere, horrek ezin gaitzake hezkuntza administrazioak adierazitako eta hartutako konpromisoa alde batera uztera eraman, hau da, familiek eredu linguistikoaren aukera askea bermatzera, Euskal Eskola Publikoari buruzko [otsailaren 19ko 1/1993 Legearen](#) 5 e) artikuluan xedatutakoaren babesean. Gure ustez, errealitate horrek, ikasleak onartzeko prozesuaren plangintza eta kudeaketa modu horrekin jarraitzekotan, gogoeta zehatzagoa eskatzen du horrekin aukeratutako eredu linguistikoaren arabera hezkuntza sistemara sartzeko interesatuta dauden familia guztiak berdintasun baldintzatan lehiatzen ari diren zehazteko.

Hala eta guztiz ere, beste hezkuntza garaiei buruzko kexak ere jaso ditugu eta, gure ustez, **hezkuntza agente guztiak** herritarren benetako hezkuntza premietarako plangintza demokratiko eta egokia egiteko **parte hartu behar dutela** bermatzen du horrek. Horrela gertatu izan da, adibidez, Iruarteta BHI eta Viuda Epalza HLHIko hezkuntza elkarteek sustatutako kexen kasuan.

Atal hau ixteko, egokitzen jotzen dugu hezkuntza administrazioak oraindik ere derrigorrezko **bigarren hezkuntzako ikasketak eta dantza edo musikako ikasketa arautuak aldi berean** egiten dituzten ikasleentzako sarbide lehentasunak ezartzeko aukerari dagokionez ekimenak zehaztu ez dituela bermatzen duten beste kexak jaso ditugula adieraztea. Beste hainbat jaso ditugu hizkuntzen irakaskuntza eskaintzan egon diren aldaketen ondorioz ([Bermeoko HEO](#)).

### 2.2.1.2. *Onartzea*

Aurten kexa ugari jaso ditugu zentro publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen [martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan](#) xedatutakoaren babesean urtero iragarritako prozedura dela-eta.

Izapidetutako kexa gehienak **plaza nahikorik ez** dagoen kasuetan aplikatu beharreko **irizpideekin** lotuta egon dira. Kexa horiek alde zuzenetik emandako hainbat gomendio eta ondorioren jadanekotasuna aztertzea eraman gaituzte. Horrela bada, etxebizitzarekiko gertutasunaren inguruko irizpideari dagokionez erakunde honek 2007ko uztailearen 16ko ebazpenean esandakoa azpimarratu behar du ([Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailearen 16koa](#)). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradokitzen zaio ikasleak onartzeko prozesu baten eraginetarako familia batek aitortu duen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin dezala). Era berean, zentroak askatasunez antzemandako beste egoerak kontuan hartzeko aukerari dagokionez, 2011ko martxoaren 10ean emandako ebazpena azpimarratu beharra dugu ([Arartekoaren ebazpena, 2011ko martxoaren 10ekoa](#)). Horren bidez, ikasleak onartzeko ezaugarri garrantzitsu gisa premutasuna lehenesten duen irizpidea aplikatzeari buruzko jarduerak amaitzen da.)

Eztabaidagai izan den beste irizpide bat familia unitatearen urteroko errentari buruzkoa izan da. Erakunde honetara jo duten familiek irizpide hori aplikatzeko modua berrikusteko komenientzia proposatu dute eta familia eta lan biziaren bateratzeko aukerarekin lotzeko beharra defendatu dute.

Baina, kexa horiez gain, prozesuaren kudeaketa mekanizatu egiteko aukera eskaintzen duen **aplikazio informatikoaren** inguruko beste batzuk ere jaso ditugu. Horiek izapidetzeari esker, baieztatu ahal izan dugu aplikazio horrek ez duela kontuan hartzen eskatzaile bakoitzak egiazta dezakeen puntuazio ezberdina eskatutako hezkuntza zentro bakoitzari dagokionez aplikatzen diren irizpideen arabera. Fase bakar batean bigarren eta hirugarren eskaerak esleitzeak ez du aukerarik ematen eskatutako zentro bakoitzarentzat puntuazio ezberdina bereiztea, berez, baremoaren irizpideen arabera berma daitekeen arren. Horrek, gure ustez, harrera lortu nahi duten hautagai guztien berdintasun baldintzak urratzen ditu.

**Ohiko epe horretatik kanpo**, urteroko izaerarekin deiturikoa, ikasleentzako **onarpenera** eskolatze lurralde batzordeen bidez kudeatzen da. Proposamenak aurkezterakoan, batzorde horiek, familiek adierazitako borondateaz gain, euskal hezkuntza sisteman ahalik eta integrazioerik normalizatuena jarraitu behar dute, zehazki honako irizpideen babesean: 1) zen-



troaren gertutasuna familia etxebizitzari dagokionez eta eskolan dagoeneko anai-arrebarik ote dagoen; 2) funts publikoekin mantendutako zentro guztien (publikoak eta itunduak) arteko oreka; 3) zentroetan dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideen erabilera eraginkorra eta 4) zentroaren egokitasuna ikasleari hezkuntza erantzuna emateko.

Hala eta guztiz ere, izapidetutako hainbat kexa ikusita, kontu-hartze falta egon daitekeela pentsatzen dugu, familien borondatea dela-eta. Horren adibide gisa familiek eskatutako eredu linguistikotik eta zentro motatik hurrenez hurren urruntzen ziren eskolatze proposamenen kasuak aipatuko ditugu.

### 2.2.1.3. *Haur hezkuntza*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haur hezkuntzako lehen zikloan gerta daitezkeen gertaera anitzak ezagutzeko aukera eskaintzen duen diagnosi orokorra egiteko proposamena errepikatu du. Diagnosi hori une honetan egiteke dago. Hori dela-eta, ofiziozko espediente bat hastea erabaki dugu egoera horien errealitatearen jarraipen egokia egite aldera. Horien artean erakunde honen aurrean kexa baten arrazoi izan den errealitate bat dugu. Zehazki, bi urteko geletarako ezarritako laguntza osagarriko edo errefortzuko langileak familien esku daudeneko hainbat hezkuntza zentro dira.

Azken horren harira, azpimarratu nahiko genuke zer nolako finantziario aldeak gerta daitezkeen bi urteko mailan gertatzen den hezkuntza eskaintza bikoitzaren ondorioz. Errealitate horren berri izan dugu hainbat familiek egindako kexak direla eta, euren seme-alabak hasiera batean Gasteizko udal eskoletan egon ondoren [Haurreskolak Partzuergoaren](#) mende geratu baitira eta seme-alabek bertan jarraitzea nahi izan dute 2 urte izan arren. Erabaki horrek udaleko laguntza ekonomikoak eskuratzeko aukerak murriztu dizkie.

Era berean, sektore ezberdinek helarazi diguten kezka aipatu behar dugu partzuergoaren mende dauden haurreskoletan burutzen ari diren taldekatzeei dagokienez, izan ere, taldekatze horiek emandako zerbitzuaren kalitatean eragina izan dezaketenen beldur dira. Halaber, adierazi nahiko genuke Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak sustatutako zerotik hiru urte bitarteko haurtzaroarekiko arreta plan berriak ([Haur Etxea](#)) eman ditzakeen emaitza berrien zain gaudela.

### 2.2.1.4. *Garraioa eta jantokia*

Garraio eta jantokiko zerbitzu osagarri horiek konfiguratzeko modua dela-eta, kudeaketa zuzeneko jantokiko zerbitzuaren baimenak eguerdiko eskola garraioaren zerbitzuaren ukapena dakar berekin. Planteamendu horrek erakunde honen esku-hartzea ukatzera eraman gaitu nolabaiteko eztabaida izan duten egoeretan (IPI Ikasbidea Duranako ikastola). Edonola ere, hezkuntza-administrazio honek bateraezintasun orokortu horren salbuespen posible gisa ezartzen ditu jantoki-zerbitzuek garraiatutako ikasle guztiei arreta eman ezin dieten kasuak. Hori kontuan hartuta, ikasleek zerbitzu hauek eskuratzeko duten aukera-berdintasuna

benetan betetzen dela bermatze aldera, eguerdian garraiorik ez duten ikasleei jantoki-kuota murriztu behar ote zaien planteatu behar dela uste dugu. Horrela, kudeaketa zuzeneko jantokietako jarraibidea, kuota hobaridunei dagokienez, erakunde baimenduen bidez kudeatzen diren beste jantokietara ere hedatuko litzateke. ([Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 26koa](#). Horren bidez eskolako jantokiko zerbitzuaren finantzazio baldintzei buruzko jarduera amaitzen da).

Kasu berezia izanda ere, une honetan izapidetzen ari den kexa baten eragile izan den egoerarekiko gure kezka adierazi nahi dugu. Egoera horrek **ASPACE zentroetara** joan ondoren ikasketa zentro arruntetara joan behar diren ikasleen **garraioen** baldintzen ingurukoa da.

Noski, eta ohikoa den moduan, zirkularrean ezarritako **irizpideen aplikazio objektiboaren** ondorioz, zerbitzu horietara heltzeko baimena faltarekin ados ez dauden familien kexak egon dira, zehazki, zonifikazioaren inguruan plaza libreak egon arren.

Jantokiei bereziki dagokienez, aurrekari gisa **jantoki zerbitzu hori partzuergoko haur-eskola** guztietan progresiboki ezartzen saiatu ziren parlamentuko ekimenak hartu ditugu zerbitzuaren uneko egoera aztertzeko. Horren bidez baieztatu ahal izan dugunez, oraingoz, haur-eskoletan jantoki zerbitzua eskaintzea edo ez zerbitzuaren bideragarritasunaren men-de dago, ez bakarrik instalazioen baldintzen arabera baita familiek adierazitako aukeraren arabera ere.

Bestalde, hezkuntza administrazioak kontratatutako enpresa pribatuei loturiko **eskola jantokien langileen grebatik** sortutako arazoak, kexen bidez, bere protagonismoa izan du. Gatazka hori, azkenik, bideratu izan da.

#### 2.2.1.5. *Bekak eta bestelako laguntzak*

Une honetan liburuen kudeaketa solidarioaren programa lehen hezkuntzako ziklo guztietan hedatzen da baita derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen bi zikloetara ere. Aplikazio mailakatu horrek, une honetan DBHko hirugarren mailan ez aplikatzea dakarrenak, kexa berriak eragin ditu, okerrekoak badira ere, ustezko diskriminazioa alegatuz.

Aurreko urteetan bezala, beka ematean gertatutako atzerapenengatik aurkeztutako kexak, ukatzeko erabakiekiko desadostasunak, deialdien baldintzak zalantzan jartzea, etab. ere egon dira.

#### 2.2.1.6. *Hezkuntza-premia bereziak*

2011. urte honetan zehar izapidetutako kexen errealitateak berriro ere agerian utzi du beharrezkoa dela ahaleginak areagotzea hezkuntza zerbitzuen arteko **koordinazio handiagoa** eskaintzera bideratutako jardunbide egokiak zehazteko. Horrek, aldi berean, hezkuntza pre-

mia bereziak dauzkaten adingabeei emandako hezkuntza erantzunaren jarraipen egokia eta ebaluazio aproposa eta familiekiko lankidetzat handiagoa bermatuko ditu. Horrela gertatu da hezkuntzaren arlo zorrotzetik kanpoko zerbitzuek artatzen zuten eskola adineko adingabe baten kasuan, une berean kasuaren balorazio psikopedagogikoaren zain zegoen bitartean. Jakina den moduan, erakunde honetan beti azpimarratu izan dugu behar horiek **baloratze-ko eta antzemateko** beharra. Horregatik, hezkuntza administrazioak ikasle horren balorazio psikopedagogikoa ezin zuela atzeratu baloratu izan dugu, azkenean egin zuen moduan.

Nolanahi ere, zerbitzuen arteko lankidetzat onaren adibide ugari ere egon dira. Haur-eskola batera zihoan adingabe bati eskaintzen zitzaion hezkuntza erantzuna aztertzean egiaztatu ahal izan dugu. Bertako langileak, hezkuntza eta laguntza programaren bidez, harrera goiztiarraren eremuan lan egiten duten beste erakundeetan ohikoak diren errehabilitazio eta prestaketa ildoak indartzen saiatu dira.

Bestalde, euren seme-alaben **eskolatze aukerak** egiaztatzerako erakunde honetara jo behar izan duten familien kasuak ere izan ditugu. Horietako bat disfasia mistoa zuen adingabe bat zen, eta familiak A ereduan jarraitzea nahi zuen. Bestalde, ezgaitasun intelektuala zuen adingabe baten berri izan genuen. Familiak hezkuntza bereziko zentro itundu batean eskolatze aukera zehaztu nahi zuen. Ikasle taldeen eskolatze baldintzen berri ere jakin nahi izan dugu, hala nola Elgoibarreko BHIIn lanen ikaskuntza ikastaroa jarraitzen duten ezgaitasun intelektualeko gazteek osatutakoa.

Azpimarratu behar dugu familia batzuek erakunde honi euren kezka helarazi diotela **gaindohatzeko baldintza pertsonalekin loturiko hezkuntza-premia bereziak** dituzten ikasleei eskaintzen zaizkien erantzuna dela-eta. 2010-2011. ikasturtean Hezkuntza [Berrikuntzarako Zuzendaritzak](#) batzorde tekniko bat eratu zuela jakin izan dugu gaitasun handiko ikasleen hezkuntza erantzunean esku hartzen duten profesional guztien laguntza eta babeserako agiri bat burutzeko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, ikasle mota horrekiko arreta aniztasunarekiko arreta plan estrategikoaren barnean bilduta geratu beharko da berehala eza gutuko den eskola inklusibo baten esparruan. Beste interesdun batzuk ere horren mende daude, hala nola [DISLEBI](#) (Euskadiko Dislexia Elkarte) elkartereko kideak.

Zorritzarren adierazi behar dugu **entzumen ezgaitasunak** dituzten eta zeinu hizkuntzako interpreteen laguntza behar duten ikasleen beharrei erantzuna ematen atzerapenak egon direla berriro ere.

**Banakako egokitzapen kurrikular berezia** eskatzen zuen kexaren bat ere jaso dugu, baita baliabide gehiago eskatzen zituztenak ere.

Era berean, zenbait osasun-beharren inguruan bideratutako kexak azaletik behintzat aipatu nahi ditugu. Hainbat kasu behar bezala bideratu dira eskola ordutegian zehar langile espezializatua eta behar horiek artatzeko berriaz prestatua eskaini baita. Beste kasu batzuetan, berriz, (1 motako diabetes mellitus duen adingabea) 2005eko azaroan onartutako [Eskola orduetan osasun arreta berezia arautzen duen zirkularraren](#) araberrako arretarako aukerak zehazteko zain gaude.

Hona arte hezkuntza behar bereziak hizpide dituzten kexen izapidetzearen ondorioz antze-  
mandako arazoak. Banakako edo kolektiboek aurkeztutako kexez gain, ikasleen kolektibo  
edo talde batzuen hezkuntza behar berezi edo zehatzen arreta Ararteko erakundearen jarrai-  
penaren helburua izan da 2001. urtean *EAEn hezkuntza-premia bereziei emandako erantzun-  
na* txosten berezia argitaratu zenetik. 2011ko maiatzean *Arrisku egoera berezietan dauden  
haurren* gaineko txosten berezia aurkeztu zenez (txosten honetako V. kapituluaren horren  
inguruan arituko gara) eta bertan Ararteko erakundearen baitan 2010. urtera arte adingabeei  
buruz egindako txosten guztietako gomendioak "eguneratu" zirenez, 2011. urtean ez zaio  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gai horren inguruko informaziorik eskatu. Dena  
den, erakundeak oraindik ere arreta eskaintzen die errealitate horiei eta hurrengo urteko  
txostenean jarraipenekin aurrera jarraituko da.

Zentzu horretan, bi ikastetxetan **bisitaldiak** egin dira; horietan, gizartean egoera ahulean  
dagoen populazioak eta etorkinak edo ijitoak diren haurrek behar duen arreta gogoan duten  
errealitatea da: Gasteizko Ramon Bajo LHI eta Sestaoko Vista Alegre LHI. Bi hezkuntza  
zentro horietan ikasleekin zein familiekin oso inplikatuak eta tartean dauden profesionalekin  
topo egin dugu.

Sestaoko Vista Alegre zentroko ikasleria, A ereduakoa, jatorri atzerritarra duten eta ijitoak  
diren haurrez osatuta dago. Zentroak ikasleen beharren (ez bakarrik hezkuntzari lotutakoak)  
erabateko arreta errazten duten programak ditu eta horrek, argi eta garbi, absentismo eta  
eskola uzteari buruzko maila oso baxuekin zerikusia dauka. Azaldutakoaren arabera, zentro  
horretan dagoen arazo nagusia irakasle egonkorrak eta esperientzia dutenak behar dituz-  
tela da. Horretarako, uste dute egokiago litzatekeela zentro berezizat jotzea eta irakas-  
leek gutxienez lau urtez egotea. Zentroa auzoan modu egokian integratuta dago; hala ere,  
egokitzat jo dugu azpimarratzea beste errealitate batzuekin loturak ezartzean sakontzea  
komenigarria dela.

Ramon Bajo LHIko D ereduaren kasuan, ikasgelan aniztasuna kudeatu behar duen zen-  
tro batek dituen zailtasunak azaldu zizkiguten; izan ere, nazionalitate desberdineko hainbat  
haur daude, asko mugitzen direnak (ikasturtean zehar, une desberdinetan heltzen dira,  
beste auzo batzuetara edo herri batzuetara joaten direlako irteten dira) eta, kasu askotan,  
egoera emozional ahulean daudenak (deserrotzea, familia-egoera zailaren ondoriozko es-  
tutasuna...). Gizarte eta kultura aniztasun hori kudeatzeak zentroaren kudeaketari lotutako  
lan-karga handitu egiten du; izan ere, ohiko administrazio kudeaketari banakako tutoretza-  
ren lan handia, familiekin egin beharreko lana, gizarte laneko profesionalekin koordinazioa,  
etab. gehitu behar zaio. Edonola ere, gure iritziz, zentroaren ezaugarriarik esanguratsuen  
ikuspuntua komunitarioa da. Ziur daude eskolako arrakasta ezin dela gizarte-integrazioetik  
bereizi, hezkuntza pertsonentzako adierazgarriak diren ikasketen bitartez lortzen baita, hor-  
taz, euren erronka handia auzoko populazioa erakartzea da, eskolak portzentajeen bidez  
auzoaren errealitatea islatu dezan. Modu horretan, ikasgeletan taldeen egonkortasunaren  
eta orekaren alde egiten da; modu berean, familiei ere egonkortasun handiagoa eta erreferen-  
tzia bat diren eredu integratuak ematen zaizkie.

Ikuspegi hori eta Ararteko erakundeak, hezkuntza behar berezi eta zehatzak dituzten ikasleak modu orekatuan banatzea eta “eskolako ghettoak” saihestea bermatzen duten neurriak hartzeari dagokionez, azpimarratu duen jarrera bat datoz. Erakunde honen aburuz, hezkuntzako behar bereziak eta zehatzak dituzten ikasleak zentro jakin batzuetan biltzeak arriskua eta zailtasuna dakartza gizarte kohesionatu baten eskola sistema inklusibo bat lortzeko. Gai hori berriro nabarmendu da gorago aipatu dugun *Arrisku egoera berezian dauden haurrak* izeneko txosten berezian.

### 2.2.1.7. Ikastetxeak

Dagoeneko ohikoa den moduan, hezkuntza zentroak handitzeko eta berritzeko hainbat obren jarraipena egiten saiatu gara eskola kontseiluko edo gurasoen elkarteetako kide diren interesdunek hala eskatu izan digutenean. Zentzu horretan jasotako azken eskaera aurretik zeuden Urumea, Elizatxo eta Langile BHLak elkartzetik sortutako [Hernani BHI](#) berriari erantzuna emateko beharrezkoak diren azpiegiturak ditu hizpide.

Txosten honek eskaintzen duen aukeraren bidez aurreratu nahiko genuke kexa berriak aurkeztu direnez beharrezkotzat jo dugula hainbat hezkuntza zentroek burutzen dituzten kopuru jakin batzuen kobratzeen ikerketan sakontzea derrigorrezko ikasketaren berezko doakotasuneko erregimena arriskuan jar baitezakete.

### 2.2.1.8 Eskolako bizikidetzak

[Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretu](#) bidez onartutako ikasleen eskubide eta betebeharren araudi berriak eragin dituen aldaketa sakonak direla-eta, hezkuntza administrazioak [Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida](#) berria burutu behar izan du. Gida berri horrek, gainera, [Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa](#) dauka osagarri gisa.

Gidaren zioen azalpenean adierazten den moduan, hezkuntza administrazioak bizikidetzak gatazkak bideratzeko hezkuntza bidezko erantzuna erabili nahi du. Horrela bada, hezkuntza abordatze hori, prebentzioarekin batera, zentroetatik bizikidetzak apurtzen duten jarrerak eta, bereziki, berdinen arteko jazarpena baztertzeko oinarriak izango dira.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu eskola bizikidetzan sartuta dauden pertsonak ez dutela beti planteamendu honekin bat egiten. Horrela azaltzen du, gure ustez, erakunde honen aurrean etengabe aurkezten dituzten kexen errealitateak. Hori dela-eta, familiekiko lankidetzak eta elkar ulertzea estutzeko komenientziari dagokion praktika ona azpimarratu nahi dugu. Nolanahi ere, hezkuntza ikuskaritzak ustezko jazarpen kasuak pairatu ditzaketen ikasleek izan ditzaketen ondorio larriak ahal den heinean saihesteko eta erantzuna ematen saiatzeko erakutsi duen gogoaren berri eman nahi dugu.

### 2.2.1.9. Ebaluazioa

Aurten eztabaida berezia proposatu da **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzearen** inguruan. Kexa aurkeztu zuen familiak zioenez, EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duen Dekretua aldatzen duen [martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuaren](#) euskarazko bertsioaren arabera titulu hori onartu behar zitzaion bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa lortu zuen ikasle bati. Hala eta guztiz ere, hezkuntza administrazioak egoki argudiatu duenez, xedapen horrek (testuen arteko aldea duena) [maiatzaren 3ko hezkuntzako 2/2006 Legean](#) xedatutakoaren babesean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxieneko ikasketak ezartzen dituen [abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuaren](#) araudia osatzen du EAEn eremuan eta, horregatik, gaztelaniazko bertsioari dagokion interpretazioa da lehentasuna izan behar duena.

Era berean, kexa gisa aurkeztu da **batxilergoan egindako probak eskuratzeko aukera izatea**. Zentzu horretan, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren [2010eko uztailaren 26ko Aginduaren](#) 32.1. artikulua ezartzen duenez *“ikasleek eta, adin txikikoan kasuan, gurasoek edo legezko ordezkariak ikaslearen errendimenduari ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte, zuzenduta daudenean...”*, proba eta ariketa horien kopiak eskuratzearan inguruko berriazko erreferentziarik egin gabe. Hala eta guztiz ere, berriazko erreferentzia hori ez egoteak ezin gaitu eraman Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 37.8. artikulua ezartzen duen sarbiderako eskubideak lotuta daraman kopiak lortzeko eskubidea ez ezagutzera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak azkenik ulertu duen moduan.

Une egokitzen jotzen dugu hau gurasoak banatuta dauden kasuetan eskaini behar den informazioari buruzko gomendio orokorra mahaigaineratzeko ([Arartekoaren 8/2011 gomendio orokorra](#), [azaroaren 15ekoa](#)). Banandutako gurasoek jaso behar duten informazioa, administrazioak haien seme-alaben inguruan dituen datuei dagokienez, eta aurkeztu behar dituzten agiriak).

Ebazpen horren bidez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zaio indarreko instrukzioak berrazter ditzan, bananduta eta dibortziatuta dauden gurasoei haien seme-alaben eskolako bilakaeraren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea onartuz (seme-alaben zaintza daukaten edo ez alde batera utzita), baita irakasleekin elkarriketak edukitzeko eta zentroko hezkuntza komunitatean lankidetzan aritzeko eskubidea ere, gainontzeko gurasoen baldintza eta arreta berarekin. Ebazpen horren betetzearen jarraipen egokia burutuko dugu.

### 2.2.1.10. Hizkuntza normalizazioa

Une honetan, EAEn errotuta dauden ikastetxe atzerritarrek eskaini behar duten curriculum ezartzen duen araudiaren xedapena argitaratzeko dago oraindik. Hori guztia, oinarrizko

hezkuntzaren curriculuma xedatu eta EAEn ezarri duen dekretua aldatzen duen martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuaren artikuluko bakarraren (5) zortzigarren puntuak ezarritakoa garatuz. Hala eta guztiz ere, badirudi sailak euskara eta literaturako ikasketak ikastetxe atzeritarretan ezartzeko asmoa duela 2011-2012 ikasturte honetatik aurrera, ikasketa ebaluagarri bihurtuz, curriculumeko gainontzekoak bezalaxe.

Zalantzarik gabe, pixkanakako eta mailaz mailako ezarpen horren ondorioz, modu paraleloan, euskal hizkuntza eta literaturaren irakaskuntzen salbuespen aukerak aztertu beharko dira, sail horrek onartzen dituen arauekin bat eginez, betiere, dagoeneko aipatu dugun martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuaren artikuluko bakarraren hogeita bigarren puntuaren xedutakoari jarraiki. Baina, bitartean, erakunde honen ustez, ikastetxe atzeritarren batek irakaskuntza horien ezarpena aurreratzeko erabakia hartu duela eta barruko zenbait salbuespen onartu dituela aintzat hartuta, ez da ulergarria mota horretako ikastetxe horietako ikasleak hezkuntza administrazio horrek, Hezkuntza Saileko sailburuordeak emandako jarraibideen bidez, onartu duen salbuespenen araubide orokorraren eraginpean jartzea; izan ere, beste ikastetxe atzeritarretako ikasleei ez zaie tratamendu bera ematen.

### 2.2.1.11. *Eskubideak eta betebeharrak*

2011. urte honetan, **Musikene** goi-mailako musika ikastegiak igaro duen egoera zailaren esparruan, Arartekoak ebazpen bat eman du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko erantzuleei adierazteko ikastegi horretako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko barne erregimeneko araudiak edukia EAEko unibertsitatekanpoko hezkuntza zentroetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren xedapenetara egokitu behar duela eta, beharbada, desegokizat eta aurkakotzat jotzen diren edo zentroko elkarbizitza larriki kaltetzen duten beste jarrera mota batzuk gaineratuz, baina betiere diziplina erregimenean nagusitu behar den tipikotasunaren printzipiotik eta helburutik sortutako eskaeren arabera: hezkuntza zentroetan bizikidetzat mantentzea eta bermatzea (**Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 22koa**. Horren bidez Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren araudiari buruzko jarduera amaitzen da).

Atal honetan azpimarratzekoa da ere, berezia izan baitzen, ikastetxe itundu bateko ikasle baten amak aurkeztutako kexa. Bertan 200 euro itzul ziezazkioten eskatzen zuen semeak ezin izan zuelako ikasketa bidaiara joan diziplina zigor bat zela-eta. EAEko unibertsitatekanpoko hezkuntza zentroetako ikasleen eskubide eta betebeharren uneko araudiak estaldura nahikoa eskaintzen du hezkuntza zentro horrek hartutako **neurri zuzentzaileen** inguruan: eskolaz kanpoko jardueretan, hala nola, ikasketa bidaietan, parte hartzeko eskubidea etetea. Beste kontu bat da, gure ustez, zuzenketa neurri horiei **ekonomia mailako beste ondorio batzuk** lotu ahal zaizkien, aldeztu aurretik ordaindutako zenbatekoen galera, esaterako. Hori dela-eta, hezkuntza administrazioak jokabide aktiboa izan behar du jarrera desegokiak zuzentzearen ondorioz ikasleen eskubide eta betebeharren araudian berriaz ezarrita ez dauden neurriak har ez daitezen.

### 2.2.1.12. Unibertsitateko irakaskuntza

2011. ikasturte honetan aipatu behar ditugu Unibertsitatara **Sartzeko Probaren** ohiko deialdiaren **kimikako azterketa** dela-eta jazotako gertakariak. **EHUko** Idazkaritza Nagusiaren aurrean egindako izapideei esker azterketa horren inguruan aurkeztutako gertakariei dagokienez hartutako erabakiak ezagutu ahal izan ditugu. Hori bai, gure ustez, pasa den deialdi horren esperientziaz baliatuta, EAEn graduko unibertsitate ikasketa ofizialetarako sarbidea arautzen duen **apirilaren 19ko 79/2011 Dekretuan** antolamendu batzordeak esleituta dituen hainbat eginkizun indartu behar dira, hala nola, unibertsitatearen eta batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeen arteko koordinazioa bermatzen duena, ariketak batxilergoko curriculumari egokitzen direla ziurtatze aldera. Izan ere, horren inguruko jarduera bat burutzen ari gara.

Sarbide proba horiekin jarraituz, hainbat kexa aurkeztu direla ikusita, EHUri adierazi diogu proba alde zuzenetik gairatuta zuten ikasleentzako Unibertsitatara Sartzeko Gidan dagoen informazioa zabaltzea komenigarria litzatekeela.

Horri esker, gainera, batzorde antolatzailearen jarduteko modua zehaztasunez ezagutu ahal izan dugu proba horiek arautzen dituen oinarriko araudiarekin izandako jarduna amaituta. Hala eta guztiz ere, hainbat gogoeta proposatu ditugu. Egia da hainbat agiri, hala nola, unibertsitatean sartzeko azterketak, eskuratzeko eskubidea kontsulta zuzeneko izapide baten bidez erabil daitekeela. Kasu horietan, zerbitzuen funtzionamendu ona zaintzeko beharrak azaltzen du izapide hori probak antolatzen dituen batzordeak ezarritako hainbat baldintzen mende egotea lekuari (espedienteak gordetzen diren Campusa), ordutegiari (jendearentzako arreta), eta abarri dagokionez. Hori bai, agiritarako sarbidea dagokien kopiak lortuz asetzat jotzen bada, azpimarratu behar genuke horrelako karga osagarriak ezartzeak ez duela inolako zentzurik, are gehiago teknologia berriek kopiak egiteko aukera erosoak eta errazak, sarearen bidez, etab. eskaintzen duten unean. Gure ustez, azken kasu horietan, ustezko interesdunen asmoa agiriaren kopiak lortzera mugatzen denean, unibertsitateak kopia horiek eskaini behar litzateke euren eskaerei erantzunez, haiei kontsulta zuzeneko izapidean ohikoak diren baldintzak eskatu gabe.

## 2.2.2. ***Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak***


### 2.2.2.1. Zenbait datu kuantitatibo

Atal horretan jasotako informazioaren pisurik handiena bigarren mailako gizarte zerbitzuen jarduerak dauka, batez ere, eskumen foralekoei dagokienez, zenbait gogoeta eta ondoriok babesgabetasun egoeran edo egoera hori pairatzeko arriskuan dauden haurren eta nerabeen arretan parte hartzen duten gainontzeko eragile instituzionalak ere barne har ditzaketan arren (espero dugu haiek ere iritzi berdinekoak izatea). Hala, informazio kuantitatiboa eta egin dugun egoitza-baliabideen sareari buruzkoa 2010eko azaroan hiru foru aldundiei eskatu genien.



Eskatutako lehenengo datua foru aldundi bakoitzean artatutako populazioarena da: urtean ireki diren espediente berriak eta guztira zenbat espediente izapidetu diren, bai eta tartean dauden adingabeen kopurua ere. Eskaeraren aniztasuna foru aldundien praktika ezberdinen ondoriozkoa da, zenbait kasutan adingabe bakoitzari espediente bat esleitzen baitiote eta, beste batzuetan, espedienteak familia osoa identifikatzen du; beraz, adingabe bat baino gehiago tartean egon daiteke.

### 5. grafikoa. 2011. urtean haurrentzako foru gizarte zerbitzuek artatu dituzten adingabe berrien kopurua




Iturria: guk eginda foru aldundiek eskaintako datuak oinarri hartuta

Antzemandako joera hauxe da: modu arinean gora egin du, beraz, pentsa dezakegu gizarte zerbitzuen sistemak babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako duen zerbitzuen antzemateko eta arreta eskaintzeko ahalmena gero eta finkoagoa eta egonkorragoa dela, helarazitako gainontzeko datuek baieztatzen duten moduan. Dena den, bi ohar gaineratuko ditugu. Lehenengoa Bizkaiko datuari buruzkoa da, hau da, azaroaren 30era arte artatu diren adingabe berrien datu erreala oinarritzat hartuta, 2011. urterako kalkulu bat. Bigarrena Gipuzkoako foru erakundeak artatu duen adingabe kopuruaren osaketaren gainekoa da, "bertako" haur eta nerabeak askoz gehiago baitira. Aurreko urtearekin alderatuz, portzentajea % 11,3 hazi da, bakarrik dauden adingabe atzerritarren portzentajeak, berriz, % 33era arte behera egin du.


Adingabe horiei eta ordura arte arreta jasotzen zutenei aplikatzen zaizkien babes-neurriak, funtsean, lau dira: familian esku-hartze trinkoa burutzeko programak, familia-harrera, egoitza-harrera eta adopzioa. Adingabeak euren gurasoetatik aldentzea barne hartzen duten bi neurri nagusien eboluzioa, hau da, egoitza-harrera eta familia-harreraren eboluzioa, ondorengo bi grafiko hauetan ikus daiteke:

**6. grafikoa. Egoitza-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2011**




Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

**7. grafikoa. Familia-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2011**



Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

### 8. grafikoa. EAEn eta lurraldearen arabera, 2011. urtean egoitza-eta familia-harrera neurrien arteko konparaketa




Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Bistakoa da lehenengo bi grafikoetan familia-harrerako kasuen kopuruak nolabaiteko goranzko joera eduki duela eta, aldi berean, egoitza-harrerek apur bat behera egin dutela. Horixe gure aldundiek, bigarren aukeraren aurrean, familiaren aukerari (familia zabalean, zein beste familia batean) lehentasuna emateko egin duten apustu argiaren eta ahaleginaren erakusgarri da. Halaber, hirugarren grafikoan bi neurri horietako bakoitzak 2011. urtean lurralde bakoitzean eta EAEn eduki duen garrantzi erlatiboa ikus dezakegu.

Adopzioei dagokienez, aurreko urtearekin alderatuz, lehenengo datu deigarria eskaera kopuruaren atzerakada izan da, bai nazionalak, bai nazioartekoak (41 eta 48 hurrenez hurren). Jaitsiera horren interpretazioetan biribila izan barik, ezin dugu alde batera utzi krisi ekonomikoak adopzio-hartzaile diren familietan eduki duen inpaktua. Gainera, horri gehitu behar zaio adopzio prozesuaren errealitatea, konplexutasuna eta zailtasunak gero eta hobeto eza-gutzen direla eta horrek erabakia oso ziur ez duten pertsonen asmoa kendu diezaiekeela.


**9. grafikoa. Adopzio eskaeren eboluzioa EAEn 1995-2011 (nazionala eta nazioartekoa)**



Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Konplexutasun horren erakusgarri bat, behintzat prozesutik eraketara arte dagokionez, 2011. urtean benetan burutu diren adopzioei buruzko datuak dira: 23 eremu nazionalen eta 124 nazioarteko eremuan, kasu guztietan aurreko urteetan izapidetutako eskaerei dagozkienak.

**10. grafikoa. 2011. urtean EAEn eta lurraldeen arabera burututako adopzioen kopurua (nazionalak eta nazioartekoak)**



Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

### 2.2.2.2. *Egoitza-harrera sareak*

Gaur egungo egoeraren lehenengo argazki bat eman eta babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako arretaren eboluzioa (baita joerak ere) jakinarazi diguten datu kuantitatibo horiez gain, foru aldundiei egoitza-harrera sarearen konfigurazioaren gaineko informazioa eskatu genien, zehatz-mehatz 2011. urtean gertatutako baliabideen sorrera, aldaketa edo ezabapenen gainekoa.

Helarazitako informazioarekin bat eginez, **egoitza-harrera baliabideen sareak** aldaketak jasan ditu hiru lurralde historikoetan.

Araban, Gasteizen kokatuta dagoen nerabeentzako *Ibaia* harrera eta larrialdietarako zentroak plaza kopurua handitu egin du (10etik 14ra) eta horren kudeaketa Urgatzi elkarteari esleitu zaio. Gainera, baliabide berri bat abian jarri da: *Ekilore* emantzipaziorako prestatzeko pisua. Baliabidea Nuevo Futuro de Álava elkarteak kudeatzen du, Gasteizen kokatuta dago eta 12 plaza ditu. 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, adin tarte horretan familiarik aldentzeko neurriren bat jasan dutenak (Arabako Adingabearen Kontseiluaren zainketa edo tutoretza) eta familiara itzultzea aurreikusten ez dutenak. Ez da bakarrik dauden adingabe atzerritarrei berariaz zuzendutako zentro bat.

Bizkaian Urgatzik kudeatzen dituen bi zentroek euren jarduera amaitu dute –Deusto Egoitza Zentroa (bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako 25 plaza) eta Hogar Sodupe (portaera arazoak dituzten nerabeentzako 10 plaza)-, bai eta Dolaretxe kudeaketa publikoko zentroa ere (0-3 urteko haurrentzako 20 plaza). Bestalde, lau egoitza-baliabidek euren jarduerari hasiera eman diote:

- Hogar Gorliz: 3 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeentzako 8 plaza. Cáritas izenekoarekin sinatutako hitzarmenaren bidez kudeatuta.
- Hogar Laugune (Laukiz): Portaera arazoak dituzten nerabeentzako laguntza trinkoa eskaintzen duen programara zuzendutako 8 plaza. Urgatzirekin sinatutako hitzarmenaren bidez kudeatuta.
- Alde Zaharreko emantzipazio pisua: 18 urte baino gehiago dituzten eta emantzipazio prozesuan dauden gazteentzako 4 plaza. Cáritasekin sinatutako hitzarmenaren bidez kudeatuta.
- Hogar Mendialde: ezgaitasun larriak dituzten haurrei eta nerabeei zuzendutako 5 plaza. Apnabi izenekoarekin sinatutako hitzarmenaren bidez kudeatuta.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak PRISMA S.A. izenekoarekin (Proyecto de Rehabilitación Integral de la Salud Mental en Aragón) lankidetzat hitzarmen bat sinatu du buruko osasuneko zailtasun larriak dituzten nerabeentzat hiru egoitza-plaza esleitzeko.

Gipuzkoako egoitza-harrera sareak ere zenbait aldaketa jasan ditu, batez ere, artatutako kolektiboari dagokionez. Hala, zentro guztietatik lauk soilik bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako zentroak izateari utzi diote eta orain bertako populazioa ere artatzen dute:

- Uba. Lehen bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako larrialdiko harrera-programa barne hartzen zuen. Maiatzetik aurrera, bertako gazteei ere arreta eskaintzen die.
- Azpeitia. Oinarrizko harrera programa eskaintzen zuen. Irailetik aurrera bertako 0-12 urteko adingabeei ere arreta eskaintzen die.
- Mendixka. Uztailetik aurrera portaera arazoak dituzten nerabe guztiei arreta ematen die.
- Iturriotz-Azpi. Apirilean bertako nerabeentzako arreta abian jarri zen eta plaza kopurua 10era egokitu zen.

Gipuzkoako beste bi zentrotan plaza kopuruari eta garatutako programari lotutako aldaketak gertatu dira:

- Loistarain. Eskuragarri dauden plazak 16ra mugatu dira.
- Matsaria. Uztailean zentroak oinarrizko programa alde batera utzi zuen. Gaur egun, 0-12 urte bitarteko adingabeentzako larrialdiko harrera programa barne hartzen du.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak egoitza-harrera sarean egon diren *mugimendu* horien inguruan egon duen balorazioa positiboa da; izan ere, eskumena duten administrazioek albat lasterren baliabideak beharren eboluzioari egokitzeko eta lehenasuna duten beharrei erantzuteko duten interesa islatzen du. Bestalde, banakako zenbait kexen ikerketaren tesuinguruan, hala nola, ofiziozko jarduerak, *in situ* ezagutu ahal izan ditugu zentro horietako batzuk eta inpresio orokor egokia berretsi ahal izan dugu.

Aipamen berezia merezi dute Gipuzkoako sarearen barruan dauden Aixola eta Endoia zentrotan egindako **ikuskapen bisitaldiek**. Zentro horietara bidali gintuzten arrazoiak bi motatakoak dira:

- Alde batetik, biak portaera arazoak dituzten adingabeentzako programa espezializatua duten zentro gisa definitu dira. Erakunde honek arreta berezia eskaintzen dio zentro mota horri. Ezin dugu ahaztu tipologia horretako zentroak edo antzerakoak (batzuetan, zentro terapeutikoak deitzen dira) beste autonomia erkidego batzuetan salaketak jaso dituztela eta zenbait kasutan itxi egin direla, bertan artatutako adingabeen eskubideen aurkako praktikak direla-eta hain zuzen ere. Euskarri aretoan erabilera neurrigabeak, osasun arloko langileek agindu ez dituzten sendagaiak, erregistro bidegabeak, etab. 2009ko abenduan [Nazioarteko Amnistiak](#) *"Itzultzen banaiz, nire buruaz beste egingo dut! Gazteak Espainiako Babes Zentro Terapeutikoe-tan"* izenarekin argitaratu zuen txosteneko kontaketa jasotako jarduerak dira.

2010eko udan erakunde horrek salatutako egoeren jarraipena egiteko txosten bat argitaratu zuen, 2011ko udazkenean egindako bileran ezagutu eta egiaztatu ahal izan genuena. Une horretan, gure iritzia helarazi genuen, hau da, EAEn araudi erregulatzailea egoteak, bai zentro horien erantzukizun publikoari dagokionez, bai egoitzaharrerako baliabide guztien betekizun material zein funtzionalei dagokienez (baita orain aipatu ditugunak ere), deskribatutakoak bezalako urraketak saihesten dituela. Oraindik amaitzeke dagoen adingabeen babesari buruzko legeria eguneratzeko lege berriarekin xede hori lortu nahi da, araudiaren testuinguruaren 2.2. kapituluaren iragarri dugun moduan. Dagoeneko ezagutzen dugun aurreproiektuan elementu honen inguruan asko sakontzen da: portaera arazoak dituzten gazteentzako zentroek eskaini behar dituzten bermeak.

- Bestalde, 2008. eta 2010. urteetan, gertakari larrien ondorioz eta indar handiko gizarte alarmarekin, bi zentro horiek Ararteko erakundearen jardueraren xede izan ziren. Egoera hori Gipuzkoara bakarrik dauden hainbat adingabe atzerritarren helztearekin batera gertatu zen. Horri gehitzen badiogu azken informazioen arabera bi zentroak normalizazio eta gizarteratze kota handiagoak lortze aldera aurrera egiteko prozesu beraren ondoz ondoko faseak zirela, hautapena erraza zen. Edonola ere eta egiaren omenez, adierazi beharra dago zentroetako egoerak lasaia ematen duela, gutxienez, horren inguruko kezarik eza aintzat hartzen badugu.

**Aixolako ikustaldia** ekainaren 2an egin genuen, aurretiaz abisatu gabe, Arartekoak zentro horietara egiten dituen ikusketa-bisitetan ohikoa den bezala. Erakundeko zenbait aholkulari egoitzara joan ziren goizean goiz, eta arduradunak, hezitzaileak eta bertan hartutako zenbait adin txikiko elkarrizketatu zituzten. Instalazioak ikusi eta agiriak eskatu zituzten. Lortutako informazioa aztertu eta gero, bilera bat jarri zen [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Departamentuarekin](#) –baliabide horretaz arduratzen den erakunde publikoa baita–, informazioa emateko eta eskuratutakoa kontrastatzeko asmoz. Prozesu horren guztiaren ondorio gisa, bukaerako txosten hau prestatu dugu.

Zentroa Aixola urtegiaren aldean kokaturiko baserria da, Elgeta udalerrikoa, baina Ermua eta Eibar udalerrietako bizimoduari oso lotua. 1.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera du, landa-inguruan dago, eta zertxobait isolatuta. Garraio propioa du: furgoneta bat. Lau solairu eta kanpoko eremua ditu, baratze eta oilategiarekin; horrez gain, igeltserotza lan txikiak egiteko guneak ere baditu. Sarrera nagusia lehen solairuan dago (hezitzaileen bulegoa, egongela, bi bainugela, jangela, ikasgela eta eusteko gela). Bigarren solairuan adin txikikoen logelak daude (5), ganbara (alde horretan, adin txikikoek erabilera mugatua dute eta zentroko materialak biltzen dira, adin txikikoen gauzez gain) eta nesken aldea: egongela zabala, bi logela eta bi bainugela. Logelek ohe bat dute altzari bakartzat, armairurik edo pertsonalizatzeko elementurik gabe. Hirugarren solairua, berriz, era askotako erabilera duen toki zabal eta argitsua da: ordenagailuen gela, gimnasioa, heziketa-taldearen bilera-gela. Beheko solairuan dutxak eta zenbait bainugela eta konketa daude. Dutex kolektiboak dira.

Zentroak 10 plaza ditu, eta bereizitako tokia 4 neskaentzat. Ikustaldia egin zenean, Marokotik eta Aljeriatik etorritako 5 mutil zeuden bertan, horietako 1 ihesi etorritakoa.

Aixola zentroan egindako esku-hartzea honela definitzen da: portaera arazo larriak dituzten eta bakarrik dauden adin txikiko (13 eta 18 urte bitarteko) atzerritarrentzako programa. Portaera arazoak dituzten neska-mutilentzako berariazko prozesu baten 1. fasea da. Izaera horrek bereizgarri esanguratsu batzuk ematen dizkio, hala nola:

- ✓ **Aldi baterako** baliabidetzat hartzen da, eta bertan ontzat jotzen da azkar aurrera egitea, proposaturiko helburuak lortzeko bidean aurrerapena adieraziko duelako, baita ere baliabide eta egoera “normalizatuago” bateranzko urrats bizkorragoa. Gai hori arautzen duen dekretuan, gehienez ere 9 hilabeteko egonaldia aurreikusita dago, eta 12 hilabetera luza daiteke aparteko kasuetan. **Pasadizoko** baliabidea denez, behin eta berriz adierazten da (eta hori islatzen da arauetan, hezitzaileen mezuetan eta, oro har, eguneroko bizimoduan) ez dela lotura esturik sortu behar ez toki fisikoekin, ez pertsonekin ere. Horrela, adin txikikoek ez daukate norberaren gelarik, tokiz aldatzen dituzte lotura-adierazpenen bat ikusi bezain laster, ez da tokiak pertsonalizatzen uzten, ez dago apaingarririk...
- ✓ Esku-hartzea nagusiki adingabeen “**portaera arazoetara**” bideratuta dago. Horretarako, eusteko gune bat eskaintzen zaie, kanpoko harremanak murrizten dituenak. Denbora egituratzea, adin txikikoak etengabe ikuskatzea eta arauak (eta mugak) betetzea oinarrizko elementuak dira beraien hezkuntza-planean; zenbaitetan, portaera aldatzeko plana deitzen diote. Banakako planak, neurri handi batean, pertsonak nahiz gauzak errespetatzera eta emozioak kudeatzera bideratuta daude. Bi alderdi horietan gutxienezko maila batzuk lortzea ezinbestekoa da baliabide normalizatuagoetan eta, beraz, autonomia handiagoko eta banakako kontrol gutxiago dutenetan sartu ahal izateko.
- ✓ Etengabe **segurtasuneko langileak** egoten dira eta **mugimendua murrizten da** zentroaren barruan. Segurtasuneko zaindzaileak soinean uniformeak izaten dute, eta adingaberen bat dagoen toki guztietan egoten dira (ikasgela barruan izan ezik). Toki guztiak giltzaz itxita egon ohi dira, nerabeek toki horietarako sarbidea baimenduta izan ala ez izan.

Garrantzitsua iruditzen zaigu baliabide honen ezaugarri positibo batzuk nabarmentzea:

- ✓ Agiri bidez egiaztatutako hezkuntza-programa du, eta programa gauzatzen da. Gure ikuspegitik, elementu esanguratsuentzat nabarmendu behar ditugu Banakako Hezkuntza Plana eta artatutako adingabe bakoitzak erreferentziako tutorea izatea.
- ✓ Baliabide horretan hartutako adingabeek beteta dituzte alderdi hauei buruzko eskubideak: beraien identitatea (eta egoera administratiboa), oinarrizko beharrak, osasuna, hezkuntza, aisialdia, jatorrizko familiarekiko komunikazioa, e.a.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak zenbait protokolo prestatzen ditu gardentasuna, esku hartzeko irizpideen koherentzia eta prozesu eta



jardueren bideragarritasuna bermatzeko. Protokolo horien arabera kudeatzen da baliabide hori.

- ✓ Exijitutako kualifikazioa duen profesional taldea du, egin behar den zerbitzua egiteko nahikoa.
- ✓ Segurtasuneko langileak uniformeak janzten dute (erraz eta argi identifikatzen dira) eta haien eginkizunak argiro bereizita daude hezkuntza-lanean.
- ✓ Harreman ona du erkidegoko beste baliabide eta eragile batzuekin: Osakidetzarekin, gizarte-zerbitzuekin, fiskaltzarekin, kultura arteko teknikariekin, Ertzaintzarekin, eta abarrek.
- ✓ Mantentze- eta higiene-egoerak oso onak dira.

Honatz baliabidearen arduradunei adierazi dizkiegun alderdi kezkarri nagusiak:

- 1.1. **Portaera arazoak** dituzten nerabeentzako programa bat izanda, norik erabakitzen du portaera arazoa dagoela? Objektibatzeko moduko zer irizpide edota elementu balaratzen dira? Nahasmendu psikiatrikoen aldean, diagnostiko bereizgarria da? Nola jokatzen da adingabe zehatz bati baliabide hori komeni zaiola erabakitzen den arte?

Esan digutenez, zentro horietako errealitatea honelakoa da: profil anitz egoten dira batera, kasu batzuetan oinarrizko psikiatria-patologiak daudela susmatzen da, baina diagnostikatu gabe daude, eta horiek guztiek ezaugarri jakin bat dute: haustura latzak sortzen dituzte talde "normalizatuagoetan" edo oinarrizko programakoetan. Oinarrizko programako taldearentzat onuragarria da, dudarik gabe, adin txikiko horiek errealitate horretatik "ateratzea", baina, horren ondorioz, toki berean elkartzen dira errealitate eta behar aski heterogeneoak eta, oro har, konplexuak.

Heterogeneotasun eta konplexutasun hori dela eta, are garrantzi handiagoa du esku hartzeko banakako planak. Horretan ados gaude. Izan ere, kasu bakoitza bere bereizgarrietatik abiatuta landu beharko da, eta bereizitako ibilbideak, egonaldia irekian ezberdinak, eskolatzeko modalitate ezberdinak... egiteko aukera zabaldu beharko da. Aspalditxotik alderdi horien gainean hausnartzen ari dira. Era berean, zalantzan jartzen du programa hori "pasadizokotzat" definitzea, horrek berekin dakartzan inplikazioekin (horietaz mintzatuko gara puntu honen hirugarren atalean). Azkenik, ikuspegi horrek zalantzan jar lezake bertako adingabeentzat eta bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzat bereizitako sareak egotea ere, bada pertsona bakoitzaren bereizgarriari banan-banako programaren esparruan emango litzaieke arreta, eta onura aterako litzaioke kultura arteko aberastasunari eta baliabideak optimizatzeari.

Adin txikiko bat, azkenean, portaera arazoak dituzten adingabeentzako zentro bati atxikitzeke prozedura dela-eta, honelako prozesu bat deskribatzen da: seinale klinikorik ez duen patologia baten aurrean –kalte emozionala eta portaerazko jarraibide disfuntzio-

nalak bereizgarri dituen, profesionalen kopuru nahikoak iritzi bera izatea bermatzeko ahaleginak egiten dira. Profesional horiek antzeko moduan baloratzen dute hartutako erabakiaren egokitasuna. Horrela, baliabide espezializatu horren euskarri den diagnostikoa ez dute egiten buru-osasuneko profesionalak, hezkuntza arloko profesionalak baizik. Hori bai, hezkuntza arloko profesionalak oso pertzepzio osoak kontrastatzen dituzte elkarrekin, adin txikikoekin egunero duten harremanean oinarrituta daudelako.

Honela laburtu genezake prozesua: baliabideko hezkuntza-taldeak prestatu eta eztabaidatu duen proposamena, zentroko zuzendariak baliozkotzat jo eta Laguntza Teknikoko Zerbitzuak kontrastatu ondoren, kasuaren jarraipena egiten duen teknikariarengana iristen da, eta hark balioesten du, hau da, ezetsi edo onetsi egiten du. Onesten badu, proposamen berri bat prestatzen du eta, bertan, lehendik dagoena besterik gabe onartzen edo hobetzen da. Gero, egoitza-harrerako batzordera bidaltzen da, azken erabakia har dezan.

- 1.2. Sareko gainontzeko egoitza baliabideen aldean, zentro hori bereizten duen ezaugarria, esan digutenez, portaera aldatzeko zentroa izatea da. Horregatik, badirudi komenigarria dela langile-taldean profesional espezializatuen laguntza izatea.

Esperientzia ezagun batzuek erakusten digutenez, horrelako arazoak ikuspegi kognitiboetatik eta portaerazkoetatik aztertzeak errefortzu-programak erabiltzea dakar berekin, eta halaxe egiten dute, baina baita ere arazoizkoak ez diren pentsamenduekin eta sinesmenekin lan egitea, emozioen kudeaketa entrenatzea, e.a., eta, eginkizun horietarako, profesional espezializatuen ekarpenak behar dira. Profesional horiek lantaldean parte hartzeak lan terapeutikoaren eta hezkuntza-ekintzaren arteko ezinbesteko lotura egitea ahalbidetzen du (lotura sustatzailea eta sinergikoa) eguneroko bizimoduaren programan, eta hezitzaileen taldeari berari ere laguntza ematen dio.

- 1.3. Pasadizoko baliabide gisa definitzeak (1. fasea, oso murrizgarria, adingabeak autonomia handiagoko baliabideetara igarotzeko "motibatzen" dituen) zentzua ematen die zenbait erabakiri, gu hasieran behintzat horiekin ados ez gauden arren: zentroan bertan eskolatzea, tokiak ez pertsonalizatzea, ezerekin eta inorekin loturarik ez sortzea, ... Hori guztia larriagotu egiten du errealitateak berak, izan ere, azkenean zentroan igarotzen den denbora ez da izaten erabaki horiek justifikatzeko beharko litzatekeen bezain laburra.

Puntu honen lehen atalean aipatu den hausnarketak jada zenbait aldaketa aurreikusi ditu, gure ustez garrantzitsuak, prestakuntza arloari dagokionez. Horrela, auker sorta bat zabaldu du orain arte hautabide bakarra zegoen arloan: eskolak zentroan bertan ematea hizkuntza-, kalkulu- eta oinarritzko kultura-gaitasunak lortzeko. Neska edo mutiko bakoitzaren beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta, haren jatorritzko hezkuntza-zentroan eskolatuta mantenduko dute, zentrotik kanpo eskolatuko dute hezkuntza-sareko proposamenetako batean, edo oinarritzko trebetasunak emango dizkiote etorkizunean kanpoko baliabideetara sartu ahal izateko, orain gertatzen den moduan. Sarritan adierazi dugunez, horixe iruditzen zaigu neska edo mutiko bakoitzaren hezkuntza-eskubidea ongien bermatzeko bidea.

Norberaren garapen-programan aurrera egiteko eragingarri gisa, loturarik edo toki jakin batekoa izatearen sentipenik ez dela sortu behar azpimarratzen da. Horri buruz, lortu nahi den azken helburuarekin ados egonda ere, zalantzak ditugu helburu hori hobeto lortzen ote den adin txikikoei "deseroso" bizi-araziz, zerbait beraiena dela sentitu gabe. Gure iritziz, garapenean aurrera egiteko, guztiz gizatiarra eta beharrezkoa da tokiren batekoa eta norbaitena sentitzea, loturak izatea eta horietatik abiatuta haztea, "gure lekua" izatea, zerbait egonkorra, segurua, mugitzen ez dena edukitzea... aldi baterako bakarrik bada ere.

Berrito ere banan-banako ibilbideetan sakontzen duen hausnarketaren argitan, elkarriketatuta ditugun arduradunak ados daude egoera egonkorragoak lortu ahal izatea (adibidez, "neure" logela izatea, apaindu ahal izatea, e.a.) aurrera egiteko hezkuntza-programaren osagaia izan daitekeela, baina inoiz ere zalantzan jarri gabe toki batekoa edo norbaitena izateko sentipenaren eta, batik bat, loturen indarra. Loturarik gabe hezkuntza-harremanik izaterik ez dagoela esatera ausartzen gara, horixe baita programako gainerako elementuei esanahia ematen dien egiatzko aldaketa-eragilea.

- 1.4. Isolatzeko aretoa edo gela. Ez dugu kolokan jartzen areto hori beharrezkoa eta erabilgarria dela, baina, une hauetan, gure kezka nagusia da adin txikikoen eskubideak urra ez daitezen bermatzea, ez areto hori erabiltzeko erabakia hartzen denean, ezta adin txikikoa bertan egoten den une bakar batean ere.

Zentroak arautzen dituen dekretuak ezartzen ditu isolamendu-aretoan bete behar diren erabilera-baldintzak eta ezaugarri orokorrak. Esate baterako, ezartzen du paretetik bigungarridunak izan behar dutela edo argiek paretan edo sabaian sartuta egon behar dutela, nerabeek min hartzea eragozteko. Erakunde honen aburuz, aretoa txikia izateak eta argi nahikorik ez izateak zaildu egin dezakete areto hori erabiliz lortu nahi den helburua lortzea: hau da, bere portaeraren kontrola erabat galdu ondoren eta bere osotasun fisikoa edo beste batzuen arriskuan jarri ondoren, nerabea lasaitzea eta zentroko gainontzeko tokietara berriz joan ahal izatea.

Gai horren arduradun den erakunde publikoaren jarrera sakon hausnartuta dago eta irmoa da: hain zuzen ere isolamendu-aretoa delako (nerabeak bere osotasuna eta beste batzuen arriskuan jartzen duen krisi-une baterako) eta ez zigor bat betetzeko aretoa, egokia da zentro horietan horrelako areto bat izatea, zentro horietan errazago gerta baitaitezke horrelako gertakariak (oso portaera arazo larriak dituzten nerabeentzako programetan bakarrik egon daiteke halakoa, gai hori arautzen duen dekretuaren arabera) eta dagoen moduan egokituta egotea. Aretoak egonaldi laburretarako prestatuta egon behar du, eta babesgarri nahikoak izan behar ditu pertsonak bere buruari minik ez emateko edo kalterik ez sortzeko. Izatez, oraintsuko ikustaldi baten ondorioz Fiskaltzatik egin dizkieten iradokizunak aintzat hartuta, angelu itsurik gabeko kamerak jarri behar dituzte, kamerek etengabe grabatu behar dute eta inoiz ez da areto barruan 6 ordu baino gehiago igaro beharko. Bestalde, behin eta berriz diote neska-mutilak benetan lasaitu egiten direla areto barruan.

Gertakarien erregistroa aztertuta, badirudi isolamendu-aretoan sartzeko neurria krisialdi gogor eta kontrolik gabekoetan soilik hartu dela, baina guk ere bat egiten dugu Fiskaltzaren gomendioekin, adingabeen eskubideak hobeto bermatze aldera.

### 1.5. Segurtasuneko zaintzaileak

Jada adierazi dugu segurtasuneko langileak egon ohi direla zentroan hartutako adin txikikoak egoten diren toki guztietan, eta gure ustez garrantzitsua dela profesional horiek argi eta garbi identifikatuta egotea eta beren eginkizunak segurtasun arlora bakarrik mugatzea.

Segurtasuneko langileek hezkuntza-langileek hala eskatzen dietenean esku hartzen dute. Hala ere, gure iritziz, hainbeste zaindari toki orotan egoteak gehiegizko zigor- edo gatazka-izaera eman diezaioke zentroari, are gehiago kontuan hartzen bada zentroaren ezaugarrietatik portaera-arazoak aldatzeko zentroa dela nabarmendu nahi bada.

### 1.6. Dutxa kolektiboak: eta pribatutasuna?

Adin txikiko horien intimitate-eskubidea urra daiteke, mutilentzako dutxa guztiak kolektiboak direlako (nesken aldean dutxa duen bainugela bat dute) eta normalean han dutxatzen direlako. Gaur egun hori gaindituta eta "normalizatuta" dagoela aldezteko arrazoiak eman daitezke eta, gainera, higiene-ohiturak hartzen direla ikuskatzea errazten duela esan daiteke. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu banakako dutxak egotea, nahi duen orok modu pribatuan dutxatzeko aukera izan dezan. Horixe ezartzen du, bestalde, babesik gabe dauden adingabeentzako egoitza-baliabideak arautzen dituen dekretuak.

Debako **Endoia zentroan** egindako **bisitaldiaren** helburua portaera arazoak dituzten adingabeentzako jarduera prozesu orokorra ezagutzea da, Aixola zentroan egindako bisitaldian eskuratutako informazioa osatuz eta esku-hartzearen koherentzia eta aurrerapena baloratuz. Hori dela eta, bisitaldirako interes-puntuak, zentroa eta erabiltzaileen eta profesionalen oinarriko datuak ezagutzeaz gain, honako hauek dira:

- a. Profil heterogeneoak? zeintzuk? buruko osasuna? diagnosi subklinikoak patologia psikiatrikorik gabe, baina jokabidekoa -testuingurukoa-?
- b. Nola bideratu "jokaera arazo" horiek? Profesionalak; protokoloak eta jarraibideak (taldea banatzea, isolamendua, zigorra...); euste aretoa; segurtasuneko langileak...
- c. Hezkuntza proiektua: Aixolarekin koherentzia aztertzea eta autonomiarekiko eta eskubideen erabilerarekiko progresioa baieztatzea: 1) Eskolatzea, 2) Erekuak norbere erara egokitzea, 3) Ondasunetara heltzea, 4) Ereku pribatuak, 5) Estimuluen aberastasuna (jolasak, irakurketak, aisia...), 6) Aislarako denbora: autonomoak/lagunduak/taldeka...

Endoiako zentroa guztiz berritu zuten 2008ko gertakarien ondoren eta 2010eko urrian berriro ireki zuten. Debako Endoia auzoan kokatutako baserri isolatua da, Itziar herrigunetik 6,5 kilometrotara, garraio publikora heltzeko lekua. Garraio propioa dauka: furgoneta bat. Bi solairu eta ganbara dauzka, kanpoalde zabala ortuarekin eta berdegunearekin. Kanpoaldean ez du elementu adierazlerik eta lurraren itxitura baserrietan ohikoa dena da: hesia eta landaretza (hesitik gora doazen igokariak). Aulki gurpilduna duten pertsonentzat irisgarria da beheko solairuan logelak eta egokitutako komun bat baitauka.

- ✓ Beheko solairuan hezitzaileei bideratutako bulegoa, sukaldea, biltegia, egongela, jangela eta lantegiak eta hainbat jarduera egiteko eremu bat daude. Taldeko dutxak eta, lehenik eta behin, zentrora bidalitako neskak hartzeko logela pare bat ere badaude. Beharrezkoa balitz, banakako esku-hartze baterako ere erabili ahalko ziren zentroko edozein adingaberekin (gatazka sortzekotan eta taldea banatu beharko balitz, gaixotasunen bat egotekotan, etab.)
- ✓ Bigarren solairuan adingabeen logelak (5) eta bi komun daude. Ohatzea, armairua eta mahaia dute. Bisita egin zenean, logela bakoitzean pertsona bat besterik ez zegoen eta bakoitzaren erara egokituta zeuden (ezberdintasun handiekin gazteen arabera).
- ✓ Ganbara trasteak gordetzeko erabiltzen da eta gazteak ezin dira bertan sartu.

Eremuak lotzen dituzten ateak ez daude giltzekin itxita eta gazteak askatasun nahikoarekin mugitzen dira zentrotik.

Ez dago isolamendurako gelarik eta taldea banatzeko uneak (gatazka bat sortu delako, krisi txiki batengatik, etab.) logetan hezitzaile batekin egiten direla azaldu digute.

Endoia zentroan egindako esku-hartzea portaera arazoak (ez larriak) dituzten bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzako programa gisa definitu da. Gazteak Aixola zentrotik edo Gipuzkoako egoitza-harrera sareko beste edozein zentrotik datoz (oinarrizko programa orokorra, larrialdietako harrera eta emantzipazioa), hasierako fasearen helburuak bete ostean eta, oro har, beste zentroetan bizikidetzeta edo egokitze arazoak izan dituztenean.

Zentroan une honetan 8 haur daude, guztiak Marokotik etorriak, bat izan ezik, Aljeriakoa baita. Okupazioaren bilakaera gutxika hazi da, inoiz ez beteta egon gabe. Heldu direnen datuen arabera ez dirudi datozen hilabeteetan helduko diren adingabeen kopurua handia izango denik.

Zentro honetan igarotako denborari dagokionez, bertan denbora gehien eman duen pertsonak 10 hilabete igaro zituela aipatu digute eta luzatze horren arrazoiak bere beharrentzako baliabide egokia aurkitzearekin zerikusia zuen. Kasu berezia zen mendekoa zela kontuan hartu behar zelako, eta horrek oraindik zailagoa bihurtzen zuen bideratze prozesua. Nolanahi ere, bideratzearen administrazio kudeaketak bi hilabete atzera dezake adingabearen irteera beste zentro batera joateko prest dagoenaren erabakia hartzen denetik. Itzarote horrek antsietate handia sortzen ohi du.

Profesionalen taldea 16 pertsonak eta zuzendariak osatzen dute. Ez dago zaintza eta segurtasunerako langilerik.

Artatutako adingabeen profilari dagokionez, adierazi digutenez, ez da adingaberik egon buruko patologiako diagnosiarekin. Baina bai badituzte oinarri psikiatrikorik gabeko “jarre-ara arazoak”, bereziki, substantzia toxikoen kontsumoarekin loturikoak edo horren ondoriozkoak. Ihesaldiren bat izan dute eta gutxitan gazteak eta euren gauzak miatu dituzte. Kasu horietan Ertzaintzaren presentzia eskatu dute, baina miaketak hezitzaileek egiten dituzte.

Esku-hartzeari buruz, “portaera arazoak” Banakako Hezkuntza Planaren barnean lantzen dira eta horrek jarduteko ibilbide orria osatzen du adingabe bakoitzarekin. Esku-hartze psikoterapeutiko berezitua behar den kasuetan, bai zentro honetan bai harrera sarearen gainontzekoetan, Gipuzkoako lurralde guztian zehar sakabanatutako kabinetetara jotzen da. Plantillako langile gisa aipatutako hezitzaileek ohiko bizitzaren aurrerapausoak laguntzen dituzte baita zentzu horretan ere. Hemen ere erreferentziako tutorearen irudia dago.

Egoitza baliabidetik kanpoko pertsonetikiko harremana asko sustatzen dute eta, eskola testuinguruak eta eskolaz kanpoko jarduerak (kirolak, jolasak, etab.) eskaintzen dutenaz gain, erkidego “autoktonoan” erreferente helduak bilatzen dituzte, behin adin nagusitasuna lortzen duenean mantenduko diren erreferenteak. Gazteetako batzuk Izaba programan parte hartzen dute, baina batzuetan hainbat zailtasun izaten dituzte hezkuntza irizpideak biltzeko zentroko hezitzaile taldearen eta “izebaren” artean. Halaber, telefono bidezko harreman telefoniko egonkorra dute euren familiekin.

Inguruko baserriekin harreman arrunta izatera bultzatzen dituzte, ordura arte ez baitute izan inolako arazorik. Hainbat gazte korrika egitera joaten ohi dira eta dagoeneko ezagunak dira, beste batzuk nekazal lanak egin dituzte neurri judizialak betetzeko, auzokideentzako ate irekiko jardunaldia egiteko asmoa dute, etab.

Zentroan erabakiak hartzeko parte-hartzeari dagokionez, larunbat guztietan adingabeen biltzarra dute (asteko gainontzeko egunetan ia ez daude edo, gutxienez, beti norbait falta da), baina badirudi ez dutela oso gustuko larunbatean izatea aisialdiko denbora kentzen baitie.

Azkenik, hezkuntza proiektuari eta Aixelako egoeraren bilakaerari dagokienez:

- Eskolatzeari: gazte guztiak eskolatuak daude, gehienak, osagarrian edo HLPNn. Salbuespena baliabidera heldu den azken adingabearekin izandako bisitan heldu zen, izan ere, Hezkuntzak plaza osagarriaren bat esleitzeko zain daude arrazoizko joan-etorriak izan ditzan.
- Ere muak norbere erara egokitzea: logela guztiek adingabeek jarritako objektuak dituzte. Logela eremu propio eta partikularra bihur dezaten animatzen zaie.

- Ondasunetara heltzea: arropak eta gainontzeko ondasunak logelako armairuan ditzuzte. Zuzendariak azaldutakoaren arabera, logelan ez dauden bitartean giltzapetu dadila eska dezakete, baina bisita egin dugun bitartean denak irekita daude.
- Ereku pribatuak: atal honetan dutxen antolamendua egiaztatu nahi genuen eta, Aixolan bezala, denak taldekoak dira. Esan dugunez, praktika horren kontrako iritzia helarazi genien. Horren inguruko kezarik jaso ez dutela esan digute, baina barneko arroparekin dutzatzen dira.
- Estimuluen aberastasuna (jolasak, irakurketak, aisia...): aisiarako hainbat ereku eta objektu ditzuzte (saskibaloian eta futboleko jolasteko eremua, gela telebistarekin eta play stationarekin, hainbat liburu apaletan, lantegiak egiteko materiala, etab.) Ez dirudi asko direnik, baina gazteek ia egun guztia zentrotik kanpo pasatzen dute, ikastetxetik gertu eskolaz kanpoko jarduerak egiten baitituzte.
- Aisiarako denbora: autonomoak/lagunduak/taldeka... Asteburuetan zentrotik kanpoko lagunekin geratzen dira eta, egokitzeko lehen uneetan izan ezik (15 egun gutxi gorabehera), bakarrik irteten dira. Izeba programan parte hartzen duten batzuek pertsona horiekin denbora pasatzen dute (baita asteburuetan ere).

Zentro honetan antzeman ditugun elementu guztien artean, Aixolan egindako bisitaldian positibotzat jo genituen eta oraingoan ere antzeman ditugun elementuak nabarmendu ditugu, bai eta ikertutako eremu guztietan ikus daitekeen autonomia mailan egondako arrerapena ere: eskola, aisialdia, esparru pertsonalak, etab. Hala ere, Endoiako bisita egin genuenetik galdegai izan dugun beste kontu bat aipatu nahi dugu: jarrera arazoak dituzten nerabeentzako baliabide gisa definituta, ez dugu ezer aurkitu, ez elkarriketatuek adierazitakoan, ez bisitan zehar ikusi dugunean ere, oinarrizko programako edozein baliabiderekin alderatuta oso ezberdina dela pentsatzera bultzatzen gaituena (bertan beti egon baitaitezke gazte zertxobait zailagoak). Hori horrela izanik:

- ✓ kokapena horren isolatua eta herriguneetatik urrunduta ez da justifikatzen funtzioaren arabera, izan ere, egoitza harreraren baliabideak arautzen dituen dekretuak arau orokor gisa ezartzen du horiek guneetan kokatu behar direla eta soilik programa berezietan baimenduko da horren kokapen isolatua.
- ✓ herriguneetatik eta, ondorioz, garraioetatik urruntzea abantailak baino desabantailak gaineratzen dituela uste dugu. Ikasketa tokietarainoko joan-etorrietarako denborak luzeak dira, gazteek zentrotik kanpo pasa "behar" dute eguneko zati luze bat, hezkuntza zentroko jarduera eta egin nahi dituzten eskolaz kanpoko beste jarduerak lotuz, gazteak eramaten eta ekartzen denbora eta energia asko ematen da, horiek ez dira guztiz autonomoak aisialdiko denboran joan eta etorri behar direnean, etab.

Egoitza-harrera sarearen gaineko atal hau amaituko dugu **jarduteko protokoloen** inguruko zenbait ohar eginez. Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen sistemaren eta hezkuntza, osasuna, etab. bezalako eremuen arteko koordinazio protokoloen

eraketa lanetan aurrera egin dela jakin ostean, programa espezializatuaren egoitza-zentroei bereziki lotutako bi protokoloen eraketaren egoerari buruzko informazioa jaso nahi izan dugu. Lehenengoa [baimendu gabeko ez-egoteen kasuan jarduteko protokolo komuna](#) da, lehen aipatu dugun 131/2008 Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Xedapen gehigarrian ezarritako eraketa epea igaro ostean, ofiziozko jarduera bat mantendu dugu. Jarduera horren testuinguruan, [Herrizaingo Sailari](#) (araudiak seinalatu egiten du prozesu horren buru gisa) informazioa eskatu diogu baina emaitza eskasak lortu ditugu.

Baimendu gabeko ez-egoteen kasuan jarduteko protokolotik [babesik gabe dauden adingabeentzako egoitza-zentroen zainketa eta segurtasun zerbitzuentzako jarduera](#) protokolora. Eusko Jaurlaritzako [Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak](#) protokolo hori egiteko konpromisoa hartu zuen 131/2008 Dekretua aldatzeko egin genuen proposamenaren aurrean, batzuetan adingabeei egiten zaizkien gorputz miaketetan euren eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko.

Zuzendaritza horrek azaldu digunari jarraiki, protokoloaren eraketa gizarte zerbitzuei eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren artikulazioari buruzko [abenduarien 5eko 12/2008 Legeak](#) eskatzen duen araudiaren garapenaren testuinguruan garatzen ari da. Lan zaila eta neketsua ari da izaten: 1) sisteman eskumena duten administrazioaren hiru mailen partehartzea, akordioa eta, askotan, adostasuna beharrezkoa delako eta exekutiboan eraketan hauteskunde-prozesuen ondoriozkoak diren eta batera gertatzen ez diren aldatetek eragiten dietelako; 2) gaur egungo mugaketa eta ziurgabetasun testuinguru ekonomikoak finantza publikoentzat garrantzitsuak diren aurrekontu konpromisoak barne hartzen dituzten erabakiak moteltzen dituelako eta horren guztiaren ondorioa espero zena baino luzeagoa den deliberazio prozesu bat izaten ari delako. Aurrerapen moteldu horren aurreikuspena (ezin zaio bakarrik gure jarduerak interpelatu duen administrazioari egotzi) dela-eta, Haur eta Nerabeen Bulegoaren eskutik gai horren jarraipena egiteko erabakia hartu dugu (halabeharrez urtero ez). Horretarako, gaia jorratzea erabakitzen denean ofiziozko jarduera bat abian jarriko da.

### 2.2.2.3. *Babesgabetasun egoeren balorazioa*

Foru aldundiei beste kontu baten gaineko informazioa eskatu genien, **BALORA izenekoaren ezarpen** mailari buruzkoa hain zuzen ere. BALORA haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte zerbitzuek arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna baloratzeko tresna da, nahiz eta horren erabilera araudiaren exijentziaren ondoriozkoa ez izan; izan ere, 2011ko azarora arte ez da argitaratuko dekretu arautzailea ([azaroaren 8ko 230/2011 Dekretua](#)).

Aurreko ohiko txostenetan eta txosten berezietan adierazi den moduan, baloratzeko tresna komun horren eraketa prozesuak, hasteko, hausnarketa eta adostasun prozesu bat eragin zuen tartean zeuden eragile guztien artean. Horrez gain, adingabearen egoera kalifikatzeko aukera ematen du babesgabetasun arinetik larrienera arte, bi muturren arteko fase guztiak barne hartuz eta, ondorioz, aztertutako egoerei erantzun egokiagoak ematea ahalbidetuz.



Tresna hori (eta eraketa prozesua) praktika on bat bezala baloratu nahi dugu, behar duten beste lurralde batzuekin partekatu eta zabaldu daitekeena. Are gehiago lehen aipatu dugun adingabeen babesari buruzko legeria eguneratzeko saiakera jorratzen duen beste elementuetako bat hauxe denean: noizean behin antzematen ez diren eta esku-hartzerik jasotzen ez duten babesgabetasun arriskua duten egoerak, martxan jarri diren prebentzio eta arreta goiztiarraren printzipio guztien aurka.

Bai Araban, bai Gipuzkoan, Balora izeneko tresna babesgabetasun egoera guztien larritasuna baloratzeko erabili da. Halaber, bigarren lurralde horretan, beste tresna batzuen artean, egoitza- eta familia-harrera bezalako neurrien kasuan familia berriro bateratzeko aukera baloratzeko erabilera ere agerian jarri da. Bizkaian Balora izeneko tresna balorazio kasu guztietan erabili da, bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko espedienteen kasuetan izan ezik; izan ere, uste da ez dagoela balorazio bat egiteko adierazlerik, tutoretzaren arazoia erreferentziazko heldurik ez edukitzea baita.

#### 2.2.2.4. *Familiei babesa ematea*

Gure jardueretan zehar hauteman dugu, prozedurak modu hertsian bete arren, zenbait familiek (kasu batzuetan harrera egiten dutenek, beste batzuetan, familia esku-hartze programen erabiltzaileak direnek) ez dutela gehienetan oso zailak diren egoerei aurre egin ahal izateko behar duten laguntza sentitzen. Hori dela eta, informazio defizita azpimarratuko dugu (aukerei buruz, etorkizunari buruz...), orientabide zehatzei, hezkuntzako, laguntzeko jarraibideei... dagokienez. Horrez gain, profesionalen eta erakundeen nolabaiteko "joan-etorriak" eragin handia dauka (askotan ez da erakundeen eta aldundiaren arteko lotura nabaritzen) beharrezkoak diren konfiantzazko loturak ezartzea zailtzen baitute. Dena den, hurrengo atalean horri buruz arituko gara. Argi dago haurren arreta garrantzitsua dela baina uste badugu adingabe horien garapenerako testuingururik egokiena familia dela (edozein familia-eredu dela ere), horretan ahaleginak inbertitu beharko dira, adingabeek familiatik aldendu behar ez izateko, norberarena ez den familia batean ahalik eta ondoen egokitu ahal izateko edota egoitza-baliabide batean denboraldi bat egon ostean familiarekin itzultzeko.

Zehatz-mehatz familia-harrerari lotutako egoera eta harrera egiten duten familien egoera nabarmendu ditugu, erakunde honetan jaso diren hainbat kexek eta kontsultek egoera horiek hizpide baitzituzten. Aurreko paragrafoan aipatu den bezala, familia-harrerako prozesuetan laguntza ezinbestekoa da, beraz, errepikatu nahi dugu berriro ere erakunde honek aurretik adierazi duen balorazio positiboa eskumena duten erakundeek egoitza-harreraren aurrean familia-harrerari eman dioten bultzadaren inguruan. Balorazio positibo horretatik abiatuta, aitortu beharra dugu gai horren inguruan araudi erregulatzailek ez egotea zailtasun bat dela eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari gai horren berri eman diogula. Asmo berarekin ulertzen dugu eratzten ari den haurrak babesteko legeria eguneratzeko legeak aurrera egin nahi duela. Lege horretan, Kode Zibilar proposatutako aldaketen portzentaje handi bat familia-harreraren ingurukoa da: familia-harrera motak berriro antolatzea, harrera adopzio bihurtu daitezkeen kasuak zabaltzea, harrera egiten duten fami-

lien eskubideak eta betebeharrak, etab. Ildo berean eta estatuko oinarrizko legeria behin onartuta, espero dugu autonomietako araudiaren eguneratzea jorratu dadila.

### 2.2.2.5. Erakundeen erantzukizuna eta hirugarren sektorearen zeregina

Gizarte zerbitzuetako euskal sisteman, eta horren barruan babesik gabe dauden adingabeen alorrean, oso ohikoa da gizarte ekintzako hirugarren sektoreko erakundeek parte hartzea baliabide publikoen kudeatzaile gisa. Behin baino gehiagotan azaldu dugun moduan administrazioa ez den beste erakundeen bidez zeharkako kudeatzea guztiz legezkoa da, betiere, titularra den administrazioak kalitatezko baldintzak bermatzen baditu eskatutako arretan eta esku-hartzean eta irizpide homogeenak baldin badaude. Hori bai, esparruko kekek, lurralde batzuetan beste batzuetan baino ohikoagoak, hiru gogoeta sortzen dizkigute gai horren inguruan:

1. Alde batetik, gure ustez, herritarrek ez lukete antzeman beharko "beste batzuen" arreta jasotzen ari direla, izan ere, zerbitzu publikoa jasotzen ari dira. Herritarrek ez dute erakunde batera edo bestera jotzen, euren foru aldundiko edo udaleko giza zerbitzuetara jotzen dute. Ideia hori une oro helarazi behar da: kontu bakoitzari dagokionez arreta zeinek emango duen azaltzen denean, profesionalak euren buruari buruz egiten duten aurkezpenean, etab.

2. Prozesuen kudeaketan erakunde askok parte hartzeak heterogeneotasun dosi handiagoa gaineratzen du. A priori datu horrek koordinazioa eta pertsonen (adingabeak eta familiak) jarraipena ibilbide guztian zehar garatuago eta hobetuago egon beharko dela besterik ez digu esaten. Pertsonak ez lirateke leku batetik bestera bidalita sentitu behar, eta ez lituzkete bat ez datozen jarraibideak jaso beharko.

3. islatuta geratzen zen moduan, aurrera eramandako lan baldintzek (programa eta baliabideen kudeaketa sinatzeko baldintzekin oso lotuta) ohikoa baino altuagoa den txandaketa indizea sortzeko joera dute, loturak, konfiantza eta konplizitatea praxis profesional on bat osatzeko oinarri diren esku-hartze baterako beharrezkoa dena.

Horrela bada, alde guztien artean egoera hau berraztertzeko beharra azpimarratu nahi dugu, eremu sendo eta iraunkorrako izateko aukerak aztertzea, aplikazioa hedatzeko, eta, edozein kasutan, Hirugarren sektoreak burututako lan handia duintzeko, profesionalizazioa potentziateko eta ebaluazio eta kontrolerako elementuak hobetzeko, beti Administrazioari baitagozkio, Administrazioa baita adingabeen eskubideak bermatzeko azken erantzulea.

### 2.2.2.6. Txostenen kalitatea

Zenbait kexen ikerketa burutu bitartean, hainbat helburu (diagnosia, jarraipena, deribazioa, etab.) zituzten eta zerbitzuetako profesionalak egindako txosten teknikoekin berri izan dugu.

Gehienetan gertatu ez den arren, irakurri ahal izan dugunaren arabera, kasu batzuetan, adierazitako espresioek, inferentziak dirudite eta ez datuak edo jardute antzemangarriak, iritziak eta gertaerak nahastuta ageri dira, pronostikoak oinarri objektiborik gabe agertzen dira, pertsonen buruzko balorazio sendoak... Beharbada aipatzen ditugun espresio, balorazio eta pronostiko horiek ezagutzen ez dugun oinarri objektiboa dute –ez baitago adierazita–, profesionalak ezagutzen dituzten baina adierazten ez dituzten pertsonen inguruko jokabide eta adierazpen errealean arabera adierazita daude, etab.; beraz, arazo nagusia gizarte txostenen kalitatea dela uste dugu, horiek zehazki eta teknikoki zuzen idatzi behar baitira.

Txosten horiek pertsonen bizitzan duten eragina kontuan hartzen badugu; izan ere, haien-tzat oso garrantzitsuak diren erabakiak hartzen dira bertan bildutakoaren arabera edo hori oinarri hartuta, ez guke huskeriatzat hartuko, ezta kontu formal hustzat ere, bere zorrotasun teknikoak bermatu behar dela azpimarratzea. Hori dela-eta, profesionalen pres-takuntzan eta kualifikazioan eskumena duten erakundeei kezka helarazi diegu eta programe-tan eta zerbitzuen jarraipena egiterakoan elementu hori aintzat hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

### 2.2.2.7. *Hirugarrenen datuen babesa*

Urteak aurrera egin ahala hainbat pertsonen helarazi digute euren intimitatea kaltetuta ikusi dutela lehen zein bigarren harretako (udalak eta aldundiak) gizarte zerbitzuen talde sozio-hezitzaileek eta psikosozialek egindako espediente osoen auto judizialean gaineratzea-gatik. Espediente horiek gizarte zerbitzuek, adingabeei eta/edo guraso bati edo biei dago-kienez, abian jarritako programak eta burututako jarduerak barne hartzen dituzte. Halaber, familiako beste senide batzuegan ere eragina eduki dezake. Arrazoi hori dela-eta jasotzen ditugun kekek zera mahaigaineratu dute: espediente horiek epaitegiek eskatzen dituzte eta autoetan osorik eransten dira. Horrek esan nahi du zenbait informazio sentikor barne egon daitekeela; izan ere, zenbait alderdi, auzirako garrantzirik gabekoak badira ere, pertsonen intimitatean eragina daukate, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

Gurasoek administrazioari espediente horiek eskatzen dizkionetean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 37.2. artikulua aplikatzen da. Horren arabera, pertsonen intimitatearekin lotutako datuak dauzkaten agiriak soilik eragin-dako pertsonen eskuratu ahalko dituzte (37.2. artikulua). Dena den, alderdiek epaitegiari eskatu ahal diote, prozedura judizial batean zehar, administrazioari informazio hori bidaltze-ko eskatu diezaion. Kasu honetan, pentsatu dugu haxe dela azaldutako arazoa saihesteko modu bat: epaitegiak, kasu horietan, dagokien esku-hartze psikosozial edo hezkuntzako esku-hartze osoa barne hartzen duen administrazio espediente osoa eskatu beharrean, epaitegiaren eztabaidatu behar den arloari buruzko daturik garrantzitsuenak jasotzen dituen txosten zehatza eska dezala. Horrela, ahal den neurrian, pertsonen intimitatean eragina duten datuak agerian jartzea saihesteko litzateke. Jakin badakigu administrazio espediente osoa eskatzea errazagoa dela. Hala ere, udalei eta foru aldundiei eskatzen zaizkien tes-tigantzen edo jendaurrean erakutsi behar diren dokumentuen eskaerak zehazteak edota abian dagoen prozedura judizialarentzat beharrezkoa eta nahikoa den edukia jasotzen duen

txosten zehatza eskatzeak datuen tratamendua erraztuko luke, horien babesari buruzko araudiarekin bat eginez. Modu horretan, pertsonen intimitateak ez luke kalterik jasoko eta epaitegiak prozedura aurrera eramateko behar duen informazio garrantzitsu guztia eskuratu ahalko luke.

Proposamen hori Justizia Administrazioa bidali da eta horren Gobernuko Salak Auzitegiei helarazi zien konponbide gisa berriazko txosten bat eska zedila beharrezkoak diren datu nabarmenekin eta ez administrazio espediente osoak, pertsonen intimitatea ez eragiteko modu gisa.


Horrez gain, babesik gabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuei, lehenbizi aipatutako kexekin zuzenean loturikoei, baina baita posible izan den beste foroetan ere, berriazko txosten zehatz eta zorrotzak egiteko komenientzia jakinarazi zaie, bertan agertzen diren pertsonen buruzko datuen babesa bereziki zain dadin.

#### ***2.2.2.8. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia***

**Bakarrik dauden adingabe atzerritarren** berriazko beharrei dagokienez, foru aldundiei hainbat datu kuantitatibo (artatutako herritarrak, administrazio egoera eta erregularizazioari buruzko datuak...) eta hainbat balorazio eta informazio kualitatibo eskatu zitzaizkien. Informazio horrekin batera, ondoren bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko kexen izapidetik sortutako jarduera batzuen emaitza aurkezten dugu.


Artatutako adingabe atzerritar kopuruari dagokionez daturik aipagarriena da 2011. urtean iritsitako enbeherantzko joerak jarraitu duela eta, ondorioz, baita artatutako enbehera ere, 2009an hasitako eta 2010ean Gipuzkoan eta Araban nabarmendutako joera.

### 11. grafikoa. Bakarrik dauden adingabe atzerritar "berriak", foru aldundietako hauren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2011



Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

### 12. grafikoa. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, abenduaren 31ra arte foru aldundietako hauren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2011



Iturria: guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Bizkaiaren bakarrik dauden adingabe atzerritarren urteroko sarrera aurreko urtekoarekin alderatuta mantendu da. Hala eta guztiz ere, artatutako kasuak guztira % 10 inguru murriztu da

adin nagusitasuna lortzen duten eta foru aldundien haurtzaroen zerbitzuak uzten dituzten haurren ondorioz.

Profilean gertatutako aldaketei edo artatuta adingabe atzerritarren ezaugarriei dagokienez, Bizkaiak eta Gipuzkoak ez dituzte aldaketa handirik pairatu. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako foru zerbitzuek bai antzeman dituzte aldaketak artatutako talde handi baten migratze proiektuan, izan ere, euren adierazpenaren arabera, Gipuzkoa iragaite etapa litzateke Europako lparreko herrialdeetarantz. Ondoriorik zuzenena da Larrialdiko Arrera Zentroan artatutako adingabe asko egun batzuk igaro ondoren desagertzen direla. Araban, bakarrik dauden adingabe atzerritarren taldea gehien bat mutilek osatzen duten eskualdean, 2011. urtean Ghana Errepublikatik etorritako mutilen hazkuntza eta Pakistandik hiru mutil etorri direla antzeman da. Era berean, agiririk gabe edo agiri bakar gisa argazkirik gabeko jaiotze egiaztagiria eramanez datozen adingabeen kopurua handitu da.

Artatutako adingabe atzerritarren kopuruan beheranzko joera hori, harrera sarearen erantzun ahalmena gairitu beharrean, Bizkaian zenbait egoitza baliabide ixtea eragin du (2.2.2.2. atalean azaltzen den moduan), eta arreta orokorreko sarean egindako aldaketak eragin dituen faktoreetako bat da, Gipuzkoa bezalako kasuetan, orain arte paraleloak ziren haurtzaro atzerritarrentzako eta "bertako" haurtzaroentzako arretarako sareak irekiagoak egiten dituen.

Foru aldundien balorazioa esku hartu duten beste administrazioekin lan koordinatuari dagokionez bakarrik dauden adingabe atzerritarren integrazio prozesuan, orokorrean, ona da. Arabako Aldundiak prestakuntza zentroekin izandako koordinazio egokia eta Osakidetzaren mendekoak diren Zaramagako osasun zentroaren eta Txertaketa sailaren jarduerak azpimarratzen ditu. Udal eremuan, eroldaren unitate teknikoaren bulegoaren, herritarren arretarako bulegoen edo kiroleko udal zerbitzuaren lana azpimarratzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren balorazioa beste sistemekiko lankidetzari mailari dagokionez (hezkuntza, osasuna, gazteen justizia, polizien zerbitzuak, gobernuaren ordezkariordetza, udal zerbitzuak...) aldekoa da eta azpimarratzen du, berriro ere, Probintzia Auzitegiaren Fiskaltzaren aldetik jasotako lankidetzari maila. Hala eta guztiz ere, hobetu beharreko hainbat arazo eta kontu ere antzeman dira, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutakoak ustezko babesik gabe zegoen adingabe atzerritar bat topatu eta Adingabe Atzerritarren Erregistroan bere aipamen datuak jasotzeko itxaronaldi luzeari dagokionez edo adina zehazteko probak egin eta emaitzak eta erabakian hartu bitartean igarotako denbora luzeari dagokionez. Beste hainbat kasutan, zailtasunek haurren agiriaren kudeaketan Kontsulatuak arrazoitu ez dituen atzerapen garrantzitsuekin zerikusia dute. Egoera horrek ondoren aipatzen dugun adin nagusitasuna betetzean dagozkien emantzipazio programetarako sarbidea eragozten du.

2011n kexa kopuru ugari jaso izanak erakunde honek **emantzipazio prozesuekiko** duen kezkaugaritu du, hau da, 18 urterekin, administrazioaren tutoretza galtzeagatik, ofizialki "nagusi autonomo eta emantzipatutzat" jotzen diren gazteen egoerarekiko, izan ere, ez dituzte beharrezko baldintzak ezta baldintza nahikoak ere emantzipazio errealean kokatzeko eta arrisku handia dute baztertze egoeran geratzeko edo, behintzat, baztertze arriskuan, kasu askotan bertan behera geratuz urteetan zehar hezkuntza sistemek, gizarte zerbitzuek, etab. egindako lana (eta emaitzak) haur horiek pertsonalki garatzeko eta gizarteratzerako.

**Gazteen III. Euskal Plana garatzeko diagnosian** azaltzen den moduan, familia baldin bada gazteak mantentzen dituen (dagoeneko ofizialki heldu autonomoak direnak) lan merkatu ezegonkorra sartzeko egoera zailen aurrean (behin-behinekotasun tasa altuak, zatikatzeak, ezegonkortasuna, etab.) bizitza autonomo bat mantentzeko diru-sarrera eskasaren errealtatearen aurrean eta egoitza autonomia lortzeko zailtasunaren aurrean etxebizitzaren garestitasuna dela-eta, familia ez dagoenean (edo jarduten ez duenean), ez da euskarririk eskaintzen eta gazte horiek lur ezegonkorretan geratzen dira.

Hori dela-eta, bereziki erakundeek adingabe atzerritarrei haurrak babesteko gizarte zerbitzuen sistema utzi behar dutenean -adinez nagusi direlako edo fiskaltzak dekretu bat eman duelako adinez nagusi direla zehaztuz- ematen dieten erantzuna ezagutu nahi izan dugu. Horrela bada, hiru foru aldundiei informazioa eskatu diegu adin nagusitasuna lortzen duten adingabeen emantzipazioarako dituzten baliabideen inguruan eta erakundeen edo sailen artean ezarritako lankidetzaren mekanismoen inguruan. Jasotako kexak kontuan izanda, bereziki larria dirudi Araban, izan ere, jakin izan dugunez, bertan, prestakuntza baliabideak erabiltzen dituzten hainbat gaztek, kasurik onenean ere, baztertze handiko egoeran dauden pertsonentzako baliabideetan igaro behar dute gaua.

Orokorrean, fiskaltzak zehazten badu adin nagusitasuna, gazte horiek ez dute inolako jarraitasun programarik, beraz, gainontzeko herritarren bezalaxe jotzen dute udaleko gizarte zerbitzuetara eta ekonomia laguntzak eskatzen dituzte zaurkortasun egoera oso berezietarako laguntza bereziak egonez gero (Bizkaian edo Gipuzkoan bezalaxe), izan ere, 23 urte baino gutxiago izatean, ez dituzte diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak betetzen.

Adin nagusitasuna haurrentzako zerbitzuen arreta jaso ahala lortzen duten gazteen kasuan, aldundiek hainbat jarraipen programa zehaztu dituzte, betiere beti betetzen ez diren hainbat baldintza betetzearen mende. Bestalde, estaldura ezberdina da lurralde historiko bakoitzean, beraz informazioa lurraldeka xehatua eskaintzen dizuegu hurrengo paragrafoetan.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat formula ezarrita ditu euren zerbitzuetan adin nagusitasuna lortzen duten gazteen emantzipazio prozesua babesteko: egonaldia gehienez ere 18 hilabetez luzatzea haurren egoitza baliabideetan, SAIO programa, [Emakumea eta Familia](#) eta [Gizareratzea](#) zerbitzuetara bideratzeko protokoloak. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren emantzipazio prozesuen kasuan, ehuneko oso altuan, gizonezkoak, bide ohikoena Gizareratze Zerbitzuarekin lankidetzan burutzen dena da. Urtean bitan [Haurtzaroaren Zerbitzuak](#) zerrenda bat bidaltzen du hurrengo sei hilekoan adin nagusitasuna betetzen duten eta horiek ezarritako baldintzak betetzen dituzten adingabeen datuekin. Baldintzak honakoak dira:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko babeseko zentro batean sartu izana, gutxienez, 18 urte bete baino 12 hilabete lehenago eta bertan jarraitzea eskaera egiterakoan.
2. Hasierako egoitzaren baimena izatea edo, behintzat, hura eskatu izana.
3. Gutxienezko konpentsazio linguistikoak izatea, oinarritzko mezu edo ahozko adierazlearen ulermen eta adierazpenaren bidez zehaztuta.

4. Buruko osasun arazorik ez izatea.
5. Ohiko delituzko edo gizartearen aurkako jarrerarik ez izatea.
6. Substantzia toxikoak maiz ez kontsumitzea mendekotasuna sortu arte.
7. Gizarteratze prozesua jarraitze aldera aldeko jarrera izatea.

Bazterte zerbitzuetarako egoitza eskaera eta laguntza ekonomikorako eskaera -gizarteratsetik ere kudeatuta- Haurtzaro Zerbitzuan sinatzen dira, jarraituko duten prozesua azaltzen den lekuan. Hemendik garapen txosten bat bidaltzen zaio Gizarteratzeakoari mutilaren agiri guztiekin batera. Behin plaza eslehituta eta egoitza baliabide berrian sartu arte, Haurtzaro Zerbitzuko profesionalak gazteak laguntzen dituzte Gizarteratze Zerbitzuko euren homologoekiko lehen kontaktuekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere [Gizarteratze eta Enplegu Zerbitzuak](#) kudeatzen duen 18 urtetik gorako gazteentzako alojamendu baliabideen bideratze mekanismo bat ezarri du. Koordinazioa Egoitza Arretarako Laguntza Teknikoko Zerbitzu taldearen bidez ekiten da. Horrek hezkuntza taldeen gizarte txostenak jasotzen ditu eta Gizarteratze alojamendu atalera bidaltzen ditu. Balorazioaren ondoren, eskaera onartzen bada, gaztea itxaron zerrenda batean gaineratzen da zentroetara sartzeko. Ezezko balorazioa lortuz gero, gaztea laguntza programara bideratzen da eta, bilakaeraren arabera, eskaera berri bat aurkeztu ahalko du sei hilabete igaro ondoren.

Arabako Foru Aldundiak azaltzen du hilabeteen behin Gasteizko Udalari adin nagusitasuna eskuratzegatik egoitza programatik ateratzen diren haurren berri ematen diola, euren beharrak helaraziz prestazioen jarraitasunari, egoitza baliabideei, tratamenduei, etab. dagokionez. Duela gutxi arte bideratze prozesu hori azkartasunez funtzionatu du, Gasteizko Udalak gazte horiek (dagoeneko adingabeak ez zirenak) bere programekin eta udal zerbitzuekin hartu eta artatu baititu. Jasotako kexek, hala eta guztiz ere, prozesuan galera egon dela adierazten dute, izan ere, haurtzaroko foru baliabideetatik ateratzen jarraitzen dira, baina arazoak topatzen dituzte gizarteratze prozesuan babesten zituzten udal zerbitzuetan sartzeko. Espedienteak irekita daude oraindik ere, Gasteizko Udalak emango duen erantzunaren zain.

Arreta faltako egoera zehatz honen aurrean, diela gutxi gazte horiek babesteko plataforma bat aktibatu da, etxe partikularretan egoitza ematera ere heltzen dena. Nolanahi ere, gizarte erakundeek burutzen duten lanaren adibide bat da, erkidegoko solidaritateko sareak eskaintzen narriadura pertsonala ekidinez eta kalean bizi diren pertsonen gizarteratze ibilbideak sustatuz. Arreta hori, berriro ere, arriskuan egon daiteke administrazioaren maila guztietan erakunde horien lana babesteko eslehitutako aurrekontu partiden murrizketa bermatuarekin.

Jasotako beste kexa multzo bat foru baliabideak egoitza harreratik atzeratzeko unearekin zerikusia dauka, baina tutoretza eteteak, egoitza harreraren eteteak edo ez ohiko egoeren-



gatik egoitza baimenaren eskaera aurkezteko beharrezkoa zen gomendioaren eteteak aipatzen duen **agiriak ez entregatzeari** egiten dio erreferentzia. Foru aldundiek, orokorrean, aurreko agiriak ondoren eman dituzte, kasu batean izan ezik, tutoretza etetea ez baitzen eman, izan ere, azaldu zigutenaren arabera, ez zen administrazio bidez neurri hori bideratu, ia unean bertan jakin baitzen adinez nagusi zela. Kasu honetan alde aurretik beste autonomia erkidegoetan egon zen beraz, erantzun zigutenez, bere garaian dagozkion erakundeek adin nagusitasun hori bermatzen duten administrazio ebazpenak eman zizkioten interesdunari. Nolanahi ere, jardute hori ikertzen ari gara.

Eta administrazio agiriei buruz hitz egiten, ezin ditugu alde batera utzi adingabe horien administrazio erregularizazioan gertatutako hainbat arazo. Araban Adingabeen eta Familiaren Alorra eta Bideberria zentroa arduratzen dira adingabeen agiriak izapidetzeaz Bizkaian, Gizarte Ekintza Sailak [Bizgarri elkartearekin](#) agiri kudeaketa kontratatuta dauka eta Gipuzkoan erakundeek hezkuntza langileak -foru zerbitzuek ikuskatuta- arduratzen dira bakarrik dauden adingabe atzeritarren erroldatzeaz, osasun txartelaz, pasaporteaz, egoitza baimenez...

Foru aldundiek adingabe horiek dokumentatzeko duten beharra denboran luzatzen ohi da kontsulatuak eta enbaxadek euren nazionalei eskatzen dizkieten baldintzak betetzeko beharra dela-eta. Hori, zenbaitetan, oztopo bat izan da udal erroldan izena emateko, eta errolda funtsezkoa da pertsonen bizitzarako, izan ere, eskubideen erabilerarako (hezkuntza, osasuna, gizarte parte-hartzea...) eta herri administrazioekin harremanak izateko sarbidea da.

Hori erantzun nahi izan du [urriaren 17ko 5/2011 Arartekoaren gomendio orokorra](#), udalek duten beharrari buruzkoa euren herrian bizi diren etxebizitzarik gabeko pertsonak eta egoitza zentroetan bizi diren foru aldundien tutoretzapeko adingabeak erroldatzeko hainbat jarduera bideratzeko. Horren arabera, erroldan izena ematea eta udalen jarduera erregulatzen duen araudia aztertuta, horiei orokorrean gonbidatzen zaie pertsonen interesen onurarako aplikatu beharreko araudia interpretatzen dituzten praktikak barne har ditzaten eta, egoitza harreran dauden foru aldundien tutoretzapeko adingabeen kasu zehatzean, jarduera protokolo bat eratzerako Herri Administrazioek dituzten beharrak kontuan har ditzan haurtzaroi dagokionez, ez direnak alde batera utzi adingabea agiririk ez izateagatik ezta adingabeak une jakin batean kontzertatutako plazak baino gehiago izateagatik. Protokolo horrek adingabearen goi-mailako interesa kontuan hartu beharko du eta erroldan izena ematea aurre ikusi beharko du tutoretzen duen foru aldundiak dituen datuekin. Nolanahi ere, erroldan baja emateko alde aurretik tutoratzen duen foru aldundiari helarazi beharko zaio.

Aurten antzeman izan dugun beste zailtasun bat izan da **fiskaltzarentzat eta babes erakundearentzat baliozkotasuna duen adinaren** (fiskaltza dekretuak aitortzean duena izan ohi da) **eta pasaportean agertzen denaren arten**. Azken horrekin gazteek egoitza baimen administratiboa bideratzen dute. Hori dela-eta, gazte gehiagok dute Barne Ministerioak emandako egoitzaren administrazio baimena. Bertan, pasaporteak adierazten duen adina agertzen da, baina ez da fiskaltza dekretuak aipatzen duena, handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Egoera horiek argitu beharko lirateke gazte horien artean nahasteak eta zalantzak sortzen baitituzte, euren adina dela-eta, zaurkortasun egoeran baitaude. Batez ere kontuan hartzen bada adina zehazteko mediku proben doitasun falta, duela gutxi herriaren

defendatzaileak adina zehazteko prozesuei buruzko txosten batean aztertu duen moduan ([Adingabeak edo helduak? Adina zehazteko prozedurak](#)) Adina zehazteko probei dagokienez, herriaren defendatzaileak duela gutxi Justizia Ministerioari zuzendutako gomendio bat egin du adina zehazteko zerbitzu berezitua ezar dezan eta nazioarteko protokolo bat susta dezan nazio mailako legezko medikuntzako edozein institutuk egindako helburu hori duten probak eta auzitegiko txostenak elkartruka daitezten.

Desadostasun egoera horrek harreman zuzena dauka bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako **larrialdiko harrera protokoloarekin** egoitza harrera baliabideak arautzen dituen [131/2008 Dekretuaren](#) seigarren xedapen gehigarrian azalduakoa eta oraindik ere garatzeke ezarritako epe guztiak jada igaro diren arren.

Eusko Jaurlaritzako [Immigrazioa eta aniztasunaren kudeaketaren Zuzendaritzatik](#) maiatzean lehenbizi bildu zen protokoloa burutzeko eraturako lantaldea, aurkitutako deialdi arazoak gainditu ondoren, urte hasieran jakinarazi zizkigutenak. Harez gerotik hainbat zirriborro teknikotan lan egin da, oraindik ere parte-hartzaile guztien aldetik agiri bateratu bat lortu ez dutena. Gauzak horrela, alde aurretik Arartekoak alor honetan zuen ikuspuntua helarazi badu ere, bi ideia azpimarratu nahiko genituzke:

- [Protokoloa egoteak](#) duen garrantzia. Jarduera protokoloez hitz egiten denean jarduera integrala eskatzen duen alderdi anitzeko egoera batean esku hartzen duten herri administrazioak, erakundeak eta, kasuan kasu, gizarte agenteak daudela kontuan hartzen dugu. Jarduera horiek biltzen dituen agiri batek esku-hartzea sistematizatzeko aukera eskaintzen du, eta horrek erabilgarritasun handia dauka gizarte agenteentzat eta agente publikoentzat, alde aurretik garatuko dituzten funtzioak, zein unetan, norekiko harremanetan edo lankidetzan, etab. ezagutu baitezakete. Gainera, protokoloan bideratzen diren jarduerak zehaztean, harrera prozesuaren ebaluazioa errazten da (kasu honetan) eta ordenamendu juridikoak adingabeei onartzen dizkien berme eta eskubideak betetzen diren ezagutu daiteke.
- Prozesuak dirauen bitartean adingabe horientzako gizarte eta hezkuntza arretarako gizarte zerbitzuen zeregin lehenetsia. Adingabeak izan daitezkeen (hala diote) pertsonak direla dugu oinarri, beraz, topatzen direnetik adinen inguruan zalantzak desagertzen diren arte foru aldundien haurtzarorako zerbitzuek artatu behar dituztela uste dugu, batez ere kontuan hartuta adina zehazteko prozesuak denbora bat behar duela, eta ez dela berehala egiten. Babesik gabe dauden adingabeentzako baliabideak eta gizarte zerbitzuak lekurik egokienak lirateke pertsona horien arretarako izapide guztiak egiten diren bitartean (Adingabe Atzerritarren Erregistroan kontsulta, proba erradiologikoak, auzitegiko medikuaren balorazioa...), horrela bada euren hezkuntza, janari, egoitza, etab. beharrak aseta egongo direla eta gizarte eta hezkuntza mailako profesionalak artatuko dituztela bermatuko da. Egia da poliziari zaindu zitzakeela eta beste lokal mota batzuetan egon zitezkeela, baina testuingururik egokienak, zalantzarik gabe, adingabeen gizarte zerbitzuek eskain ditzaketena dira.

Era berean, badakigu haurtzaroaren zerbitzuak direla adingabeei euren egoeraren eta egingo dizkieten proben berri emateko egokienak, baita euren defentsarako eskubidearen berri emateko egokienak ere. Informazio hori poliziak edo Fiskaltzak ere eskain dezake, baina berriro ere babesgabezia dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen egoera pribilegiatua azpimarratzen dugu, [haurrak eta nerabeak babestu eta zaintzeko 3/2005 Legean](#) eta atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzko [4/2000 Lege Organikoaren](#) 35. artikuluan 2/2009 Legean azken aldaera egin ondoren, zein hura garatzen duen [braudian](#), 557/2011 EDko 190. art., azaltzen den moduan.

Adina zehazteko arazoarekin jarraiki, adingabe edo gazte horien **defentsarako eta tutoretza judizial eraginkorrerako** kontua mahaigaineratu nahi dugu. Adingabeko pertsonari jakinarazi behar zaio adina zehazteko probak egiteko eta ez egiteko eskubidea duela, eta horrek denak dakartzan eskubideak ere bai. Arartekoaren iritzian, Udaltzaingoak edo dago-kion foru aldundiko Haurren Babes Zerbitzuak jakiten dutenean adingabekoa, erreferentzia-zko pertsona heldurik ez duena, adingabea izan daitekeela eta dokumentaziorik gabe dagoela, gomendagarria litzateke ofiziozko abokatu bat izendatzea. Gainera, adina zehazteko proba medikoak egin ondoren Ministerio Fiskalak erabakitzen badu adinez nagusia dela, erabaki horren aurkako errekurtsua egin ahal beharko luke ofiziozko txanda egokitu zaion abokatuak. Erabaki horrek pertsona honen interes eta eskubideengan eragina dauka, eta defentsa-eskubidea eta babes judizial eragingarrirako eskubidea aplikatuz errekurritu ahal izan beharko litzateke.

Kontuan izan behar da lagundu gabe dagoen atzerritar adingabekoak foru aldundiko Haurren Babes Zerbitzuaren arreta jasotzen duenean, gero proba medikoak egiten bazaizkio eta Ministerio Fiskalak erabakitzen badu adinez nagusia dela, foru aldundiak adosten badu babes bertan behera uztea bide judizialean errekurritu ahal diela (babesa bertan behera uztearen kasu asko errekurritu dira bide judizialean). Horrenbestez, pertsona honen adina frogatzeko egin diren proba medikoek eta fiskaltzaren dekretuak pertsona hau adinez nagusia dela adieraztearen ondorioz babes neurriak ez gauzatzeko agintzen duen erabakiaren aurkako errekurtsua egin behar da era berean. Erabaki horrek pertsona honen egoera zibilean eta beraren interes eta eskubideetan eragina du, lehen esan dugunez.

Foru aldundiei egindako azken galdera bat zentrotik **ihes egindako kasuan** hartutako gazteen **tutoretzarako ondorioei** buruz mantentzen duten **irizpideari** buruzkoa zen, izan ere, hainbat informaziok irizpide ezberdinak zituztela zirudien.

Horrela jakin izan dugu Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek [Adingabeen Fiskaltzaren](#) jarraibideen arabera, egoitza harrerako zentroak nahita uzten dituzten tutoretzapeko adingabeen administrazio espedientea irekita mantentzen dutela eta, beraz, ez duela eraginik tutoretza onartzean.

Arabaren kasuan, berriz, larritzekoa da irizpide baten arabera tutoretza onartzen duen ebazpenak bere iraungipenera daramaten hainbat egoera xedatzen dituela, besteak beste, egoitza nahita uztea. Dirudienez, kasu bakoitzaren xehetasunak kontuan hartzen diren arren ihesaldi

batzuk besteetatik ezberdindu, beharrezkotzat jotzen dugu gogoraraztea adingabe baten ihesa edo aldentzeagatik tutoretza etetea ez dagoela justifikatuta ezta legez babestuta ere.

Babestuta ez dauden adingabe atzerritarren beharrei berariazko arretari buruzko atala **aberiratzeko prozeduretan** antzemandako hutsuneen inguruko espedienteari eta urteroko beste txostenetan aipatu dugun protokolo baterako beharri buruzko azalpen batekin amaituko dugu. [Herriaren Defendatzaileak Atzerritarren Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiak](#) bidali dion txostenaren inguruan helarazi digun informazioak azaltzen duenez prozedura hori, dekretu berrian zehatzago araututa dagoenez, horren beharra ez da berdina, beraz, jatorriaren balorazioa aurreragorako uzten du aldi baterako hutsuneak edo akatsak antzemango balira.

### 2.2.3. *Justizia*

Alor honetan aurkeztutako kexa gehienek (ia % 50 Haur eta Nerabeentzako Bulegoak zenbatutakoen kasuan) ezaugarri bereizgarria, dagokion txosten orokorraren orrietan azaltzen den moduan, eskumen faltagatik formalki ukatzen direla da. Zenbait kasutan, partikularren arteko gatazkak dira; beste zenbaitetan, berriz, Estatu zentralerako administrazio-organoen jarduketan aurkako kexak dira, eta, beraz, estatuko gure homologoari helarazten zaizkio horiek. Gainerakoak auzitegien erabakiekin ados ez egoteagatik sortzen dira, eta haien independentziak galarazi egiten du jurisdikziotik kanpoko instantziak kontrola ditzaten.

Hala eta guztiz ere, eta goian aipatutako irizpidearen arabera, kexa bat aurkeztu duenari gure eskura dagoen laguntza oro eskaintzeko, erreklamazioaren harrera formala kontuan hartu gabe, hurrengo paragrafoak jorratutako gaien arabera bideratuko dira, kexaren kalifikazio formalari buruzko xehetasun zehatzetan sartu gabe

**Adingabeen justiziaren** alorrean daturik nabarmenena, hain zuzen ere, horren inguruko kexa murrizta da. Jarduteko egindako eskaera bakarra, egun gutxitara indargabetu zena egoera konpondu izanagatik gazteen justizia sistemaren barne mekanismoetatik.

Hala eta guztiz ere, egia da alor honetan Auzitegiekin eta Fiskaltzarekin izandako lankidetzak heldu zaizkigun hainbat egoera bideratzeko bereziki emankorra izan dela, txosten orokorraren justizia atalean azaltzen den moduan.

Jarduteko ohiko beste eremu bat ezkontza prozeduren **ebazpen judizialen betearazpenarekin** loturikoa da, bertan eragin nabarmena dute bikotearen seme-alabek. Banaketa eta dibortzio prozeduretan seme-alaben inguruan judizialki erabakitako neurriekin ados ez daudenak kontuan hartu gabe, ez dira falta izan, aurten ere, horiek bete ez dituztenak. Larrienak **adingabeen nazioarteko osteak** izan dira. Bizkaian gertatu ziren, eta adingabe horien eskubideak defendatzeko eskatutako laguntza osoa eman zion Fiskaltzak erakunde honi (ikus Justizia txosten orokorrean).

2011 honetan jarduerak bideratu izan diren hirugarren esparrua **familia elkarguneak** (aurrerantzean FEG) izan dira. Zerbitzu horiek erakunde honen kezka izan dira, batez ere 2007az ge-

roztik, zerbitzuarekin pozik ez zeuden pertsonen kexa ugari edo funtzionamenduaren irizpide zehatzekiko kritikak heltzen direnean. Horien bidez euren egoeraren ezagutza nahiko zehatza lortzen da. Kontuan izanda, hurrengo urtean gizarte zerbitzuen [abenduaren 5eko 12/2008 Legea](#) eta [epaileak agindutako kontsultaren ondoriozko familia elkarguneak arautzen dituen dekretua](#) onartu zela (hortaz, sistema publiko batean ezin hobeki kokatuta eta Eusko Jaurlaritzan haren eskumena ezarrita geratu zen), 2009. eta 2010. urteetan ohiko jarraipen bat besterik ez genuen egin eta gainera horren berri eman da Legebiltzarrari bidalitako urteko txostenetan. 2011. urtearen hasieran, deribazio judizialaren ondoriozko familia elkarguneak arautzeko aipatutako dekretuaren xedapen iragankorrean ezarritako bi urteko epealdia bukatu zenean, ofiziozko jarduera bat ireki genuen egindako aurrerapenak eta gaur egungo egoera baloratze aldera.

Ofiziozko espediente horren testuinguruan honako jarduera hauek burutu dira:

1. Martxoaren 30ean Donostiako deribazio judizialaren ondoriozko familia elkargunean ikuskapen bisitaldia egin zen. Gune horrek besteen gaineko lehentasuna zeukan garai batean horri buruzko kexa asko jaso zirelako eta aldaketa handiak jasan dituelako: erakunde titularra, kokapena, baldintza materialak, erakunde kudeatzailea, profesionalak, jarduera protokoloak...
2. [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari](#) honi buruzko informazioa eskatu genion: gaur egungo egoera eta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen katalogoan jasotako deribazio judizialaren ondoriozko familia elkargunearen puntu zerbitzuari buruzko etorkizuneko aurreikuspenak.

Erakunde honetan jasotako erantzunean ekainaren 8an eskatutako informazioa zatikatzen da eta aldi berean eskumen aldaketaren berri ematen zaigu (astebete lehenago jada publikoki argitaratuta), 2012ko lehen egunetik indarrean, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko [azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuan](#) herritartze agiria lortzen du.

Donostiako familia elkargunean egin genuen bisita eta gero lortu genuen ikuspuntuari esker eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako dokumentazioa aztertu ostean, hiru urte horietan egondako aldaketa positiboa antzeman dugu. Hala eta guztiz ere, **oraindik ere kezkatzen gaituzten** edo, gure ustez, hobetu behar diren **zenbait elementu** daudela azpimarratu behar dugu:

- Edukiera / **asetzeko arriskua** eta kolapsoa: zifrek leialki islatzen duten baliabide hori gero eta gehiago erabiltzen ari dela, truke zerbitzuen edo Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Epaitegiek zehaztutako tutoretzapeko bisitaldien edo tutoretzarik gabeko bisitaldien hornitzaile gisa. Eboluzio hori aintzat hartuta, gainbegiratutako bisitaldiena bereziki, ez da zaila imajinatzea kasu berriei arreta eskaintzea zaila izango dela lokaleko edukiera mugara heltzen denean, ordu jakin batzuetan behintzat.
- Familia elkarguneak **hiriburuetan** elkartu dira: Portugaleteko familia elkargunea kenduta, gainontzeko guztiak hiru hiriburuetan kokatuta daude eta, ondorioz, urrun

dauden herrietako bizilagunak denbora asko inbertitu behar dute lekualdaketa egiten. Praktikan, horrek esan nahi du trukea egiteko beste eremu batzuk erabiltzen ari direla (gizarte zerbitzuak, Ertzaintzaren bulegoak), beharbada familia elkargunek ziurtatzen dituzten gutxieneko bermeak eduki gabe. Denok dakigu familia elkargune berriak hiriburuak ez diren beste leku batzuetan irekitzeak aurreko paragrafoan aipatu dugun asetzeko arriskua arinduko lukeela.

- Definizioan ezarritako behin-behineko baliabidea premisatik abiatuta, batzuetan **falta** den **zehaztasunak** helburuei, berraztertzeke epeei edo instantzia deribatzailetik egindako jarraipenari dagokionez, gainbegiratzeko formula arinagoetarantz eta, azkenik, baliabidetik irteteko formuletarantz aurrera pausuak ematea galarazten du. Bestalde, familien igarotzean arintasun handiagoa egongo balitz, asetzeko arriskua txikiagoa izango litzateke. Edonola ere, egoera bakoitzak behar duen erritmo partikularra errespetatu behar da.
- **Profesionalen txandakatzea** eta horrek esku-hartzearen kalitatean daukan eragina: kasuen % 100ean familia elkargunek erakundeen esku daude, hirugarren sektoreko erakundeak batez ere, haiei esleitu baitzaie kudeaketa. Erakunde horien lan baldintzen ondorioz, behin-behinekotasuna eta profesionalen alde-egiteak ohikoak dira. Izan ere, egonkortasuna eta soldata hobeak bilatzen dituzte eskaintza publikoan. Horrek zerbitzuetan daukan ondorioa da langileak nolabait txandakatu behar direla eta horrek esan nahi du erabiltzaileentzat eta lantalde berarentzat erreferentzia bat diren langileak aldatzen direla.
- Koordinazio protokolo eta tresnetan zehar egindako bidea nabarmena izan den arren, zenbait defizit antzeman ahal dira **koordinazioari** dagokionez, hasteko sistema judizial deribatzailearekin baina baita gizarte zerbitzuekin, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin ere. Hortaz, horren gainean lan egiten jarraitu behar da. Gai horri dagokionez, familia elkarguneetako gaur egungo profesionalak egiten dituzten iradokizunak (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak jasotzen dituztenak) interesgarriak dira. Izan ere, lanean erabiltzen dituzten praktika eta ohikeriei buruzko hobekuntzak irudikatzen dituzte.

Gure ikuspuntutik aztertutako elementu horiek guztiak une honetan eskumena duen erakundera helarazi dira, Eusko Jaurlaritzako [Justizia Zuzendaritzara](#), igarotako eskumena onartzeko unean egindako egoeraren diagnosis osatzen (beharbada zuzentzen) lagun deketelakoan.

## 2.2.4. **Familia**

### 2.2.4.1. Familia-politika

2011ko abenduan, [Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana \(2011-2015\)](#) onartu zen. Horren bidez, familiei laguntzeko datozen bost urteetako po-

litika publikoei forma emango dieten estrategia eta helburuen esparrua aurkeztu da, eta, hala, jarraipena eman zaio 2002an lehenengo planarekin hasitako plangintza- eta koordinazio-lanari.

**Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzarekin** izandako bileraren esparruan, jakinarazi ziguten plan hori testuinguru ekonomikoak baldintzatu duela; izan ere, testuinguru horrek inoiz baino gehiago behartzen du lehentasunak ezartzera. Edonola ere, aurrekoekin alderatuz plan berriak dakarren aldaketarik nabarmenena kualitatiboa da: zeharkakotasuna ideia gidari gisa agertzen da; hain zuzen, horren xedea da ondorio eraginkorrek lortzea Jaur-laritzako beste sail batzuen eta beste euskal administrazio publiko batzuen inplikazioari eta konpromisoari dagokienez. Badirudi plana ondo hartzen ari direla, are tradizionalki hain irekiak ez diren sistemetan ere, eta hori berri ona da. Nolanahi ere, gu ere erne gaude, familiaren funtzioaren birbalorazio horretan ez ote den eragiten ari zenbait gizarte-sistemari eusteko dagoen zailtasuna. Planaren beste elementu aipagarrienetako bat da jarduketa-ildo berriak ireki dituela, gaur arte aztertutako bidez bestelakoak; izan ere, familien gastuen araberako konpentsazio-politika gainditu nahi da, eta familiei laguntzeko beste zerbitzu-eskaintza bat sortu.

Arartekoan adierazi genuen bat gentozela plan berriaren oinarrian dagoen ildo orokorarekin eta filosofiarekin, eta, une hori baliatuz, gure erakundean jasotako kexekin zerikusia duten auzi batzuen berri ere eman genuen:

- **255/2006 Dekretuak arautzen dituen seme-alabengatiko diru-laguntzen** sistemari dagokienez, berriro adierazi genuen laguntzak modu automatikoan ematearen alde gaudela (Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala); izan ere, horrek erraztu egingo luke laguntzen kudeaketa, eta unibertsal bihurtuko litzuke. Halaber, adierazi genuen komenigarria litzatekeela zuzeneko laguntza horiek koordinatzea, zerga-neurriak areagotuta. Dena dela, uste dugu beharrezkoa dela euskal lurralde osoan familiei aplikatuko zaizkien zerga-hobarien irizpideak bateratzea (tokiko zergak eta tasak barne direla) eta gaur egun errentarako ematen diren zerga-hobariak handitzea. Zuzendaritzak horren inguruan argitu zigun, seme-alabengatiko diru-laguntzei buruzko 255/2006 Dekretuari dagokienez, balizko erreformari heldu aurretik hobetu litezkeen esparru guztien berri izan nahi dutela, aldatu beharreko alderdi guztiak zehaztu daitezzen. Era berean, adierazi zuen familia-errenta estandarizatuaren prozedura arautu asmo dutela, familiei era guztietako laguntzak emateko irizpideak bateratzeko.
- **Lana eta familia bateragarri egiteko baimenei** dagokienez, berriz ere langile autonomoen kexen berri eman genuen; izan ere, ez dira sartzen **lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuaren** aplikazio-eremu subjektiboan. Uste dugu Eusko Jaurlaritzak sistema bat era dezakeela arlo horretan iruzurra kontrolatzeko, hori baita pertsona horiek halako laguntzen onuraduntzat ez hartzeko arrazoi nagusia.

Gai horri berari buruz, zehazki 8 eta 12 urte bitarteko seme-alabengatik baimenei dagokienez, adierazi genuen Enplegatu Publikoaren Estatutuaren eta Langileen Estatutuaren artean desberdintasunak daudela, eta hori bereizkeria argizat daukatela eremu pribatuko langileek. Lege-kontu bat dela onartuta, iradoki genuen ezar daitezela neurriak, Zuzendaritzaren eskumenen esparruan, diferentzia hori leuntzeko. Zuzendaritzak jakinarazi zigun abian direla laneko malgutasunari buruzko azterlan bat, enpresa-talde txiki batekin egiten ari diren esperientzia pilotu bat eta gaia gizar-te-eztabaidarako mahaian sartzea.

- Iradoki genuen era daitezela **guraso bakarreko familiei** lehentasuna emango dieten konpentsazio-neurriak, zailtasun gehigarriak baitituzte egoera guztiei aurre egiteko, edo, [familiei laguntzeko 13/2008 Legearen](#) hitzetan esanda, zaugarritasun-egoera objektiboan baitaude.

Modu osagarrian, interesgarria iruditzen zaigu, dokumentu honetan zehar Arartekoaren-tzako interes berezikotzat edo kezkarritzat azaldu diren alderdiekin duen loturagatik, Zuzendaritza horrek 2011. urtean landu dituen helburuetako hiru aipatzea:

- Familia-ereduen aniztasunaren gainean sentsibilizatzea.
- Lana eta familia bateragarri egitearen eta erantzukidetasunaren inguruan sentsibilizatzea.
- Gurasotasun positiboaren aldeko programak sustatzea, dauden programak detektatuta eta ebaluatuta, eta ondoren programak diseinatuta.

Atal honen amaieran, jakinarazi dugu 2012rako txosten berezi bat egitea erabaki dugula Euskal Autonomia Erkidegoan familiei laguntzeko politika publikoen inguruan, eremu horretan dauden politika publikoen egoera argitzeko, bai eta euskal familiek zer premia dituzten eta zer eskatzen duten argitzeko ere. Txostenean, beste hainbat konturen artean, familia ugarien egoera aztertu dugu, [Hirukide](#) Euskadiko Familia Ugarien Elkarteen Federazioarekin hartutako konpromisoa betez.

#### 2.2.4.2. Familia homoparentalak

laz Eusko Legebiltzarrarentzat egin genuen txostenean jakinarazi genuen hainbat arazo aurkitu genuela bi emakumek osaturiko ezkontzen barruan seme-alabatasuna legez zehazteko, eta horren analisi sakona egin genuen gure [4/2010 Gomendio Orokorrean](#).

Bi emakumek osaturiko ezkontzen barruan lagundutako ugalketa-tekniken bidez jaiotako seme-alaben ama ez-biologikoen amatasuna legez zehazteari dagokionez, 2010ean ofiziozko jarduketa bat hasi genuen, erregistroko gaur egungo jardunbideak berrikus daitezela sustatzeko. Erakunde honen iritziz, lagundutako ugalketa-teknikei buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legean](#) auzi hori modu anbiguoan zehaztu zela eta, erregistroetan ez ziren modu



berean jarduten ari, eta zenbait kasutan litekeena zen bereizkeria-egoerak ere sortzea bi emakumek osaturiko ezkontzen barruan.

2010. urtearen amaieran, eskumen-arrazoiengatik, [Herriaren Defendatzaileari](#) helarazi genion arazoa, lege-interpretazioa argitzeko bidezkotzat jotzen zituen jarduketak has zitzen. Gure jarduketaren emaitza gisa, jakin dugu Justiziako Estatu Idazkaritzaren ustez seme-alabak jaio ondoren ere adieraz daitekeela seme-alabatasuna onartzeko nahia —ama biologikoaren ezkontideari legez eskatzen zaio—. Horrek gure 4/2010 Gomendio Orokorrean planteatu genuen arazoa konponduko luke. Hala, horren berri Eusko Jaurlaritzako [Justizia Sailari](#) eman genion, informazio hori EAEko erregistro zibilez arduratzen diren epaileen artean zabaltzeko.

Bestalde, [Magala](#) elkarteko ordezkariak adierazi ziguten kezkatuta zeudela halako familiak eskuarki eskoletan erabiltzen dituzten material didaktikoetan ikusten ez direlako, bai eta ikasleei errealitate horren berri ematea xede duten hezkuntza-material espezifikoak urri direlako eta are ez daudelako ere. Elkarrekin horren asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan guraso bakarreko familien integrazio eta normalizaziori bide emango dioten ikasmaterialak heda daitezen sustatzea. Ildo horretan, adierazi digute zailtasun handiak izan dituztela halako materialak euskaraz lortzeko, ikastetxeetan zabaldu ahal izateko; izan ere, gehienak ingelesez, gaztelaniaz eta katalanez daude, eta euskarara itzuli behar izaten dituzte; horretarako, erakundeek laguntza bilatzen dute. Konpromisoa hartu dugu arlo horretan [Eusko Jaurlaritzaren](#) laguntza lortzeko, eta, aldi berean, adierazi diegu Europako proiektu batean sartuta gaudela ([Rainbow](#)). Horren berri zehatzagoa dokumentu honetako 6.4 idatzatian emango dugu.

#### 2.2.4.3. Banandutako gurasoentzako informazioa

Aurten, ondoko auzi hau hainbat ikuspegitatik agertu da, eremu askori eragiten dien alde-rik (hezkuntza, osasuna, ogasuna, errolda...): banandutako gurasoek zer informazio jaso behar duten Administrazioak haien seme-alabei buruz dituen datuen inguruan eta zer dokumentu aurkeztu behar dituzten. Horren inguruan aurkeztu genuen [azaroaren 15eko 8/2011 gomendioan](#), xeheki azaltzen dira jakin ditugun egoerak, aplikatzen diren protokoloak eta instrukzioak, zuzenbide-oinarriak eta horren guztiaren ondorioak. Edonola ere, txosten orokorreko gomendioen atalean azaltzen den bezala, adierazi dugu seme-alabak beren ardurapean dauzkaten pertsona banandu batzuek zailtasunak izaten dituztela guraso gisa Legeak esleitzen dizkien eskubide eta betebeharrak jakin batzuk baliatzeko. Zailtasun horietako batzuk sortzen dira Administrazioak baldintza batzuk ezartzen dizkielako banandutako pertsonen guraso-ahala baliatzeko, batez ere —baina ez bakarrik— hezkuntzaren eta osasunaren arloan. Administrazioak adingabe bati buruzko datuak dituenean, haren intimitatea babestu beharra dauka; beraz, haren lege-ordezkaritari baizik ezin dizkio datu horiek jakinarazi. Alabaina, hori egiaztatzeko, gurasoek, elkarrekin bizi badira, nahikoa dute familia-liburua aurkeztea; aldez, bananduta badaude, guraso-ahala ez zaiela kendu ere frogatu behar dute. Osasun-arloan, zaindari ez den gurasoak “guraso-ahala egiaztatzen duen dokumentua” ere aurkeztu behar du. Hori horrela, kexatzeko arrazoiak hiru izaten dira:

- Batetik, banantze-epaiak berez ez du egiaztatzen pertsona batek bere seme-alaben guraso-ahalari eusten dionik, baldin, normala den bezala, ez badago horri buruzko erabakirik, prozedura judizialik egin ez delako.
- Bestalde, guraso-ahala ez zaie ematen gurasoei epai baten bidez, baizik eta Legearen aginduz; beraz, ondore horretarako ebazpen adierazgarri bakarria gurasoek seme-alabekiko duten betebeharrak ez betetzearen ondorioz ahal hori kentzeko ematen dena da. Betebeharrak ez betetzea ezkonduen, bananduen zein ezkongabeen kontua izan daiteke; beraz, banantzea ez da berez betebeharrak ez bete izanaren zantzu. Inork ez luke frogatu beharko bere seme-alaben guraso-ahala, bananduta egoteagatik bakarrik, ahal horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak arduraz betetzeko, hala nola haien osasunaz edo eboluzio akademikoaz arduratzeko.
- Bestalde, intimitatea babestea ere bada kexen beste oinarri bat; hain zuzen, beste arrazoi batzuegatik banantzearen edo dibortzioaren ondorio ekonomiko eta pertsonalak Administrazioaren aurrean egiaztatu behar dituzten herritarrek jarri dituzte era horretako kexak. Horretarako, eskatu dute ebazpen judizial osoa aurkeztu beharrean aski izan dadila xedapenak aurkeztea.

Azaldutako egoera horiek aztertuta atera ditugu hala ebazpenean bertan (bistan denez) nola txosten orokorreko gomendio orokorretako IV. kapituluan nabarmendutako ondorioak.

Arrazoi horregatik hezkuntza-esparruan esku hartu behar izan genuen kasuetan, Ikastetxeen Zuzendaritzak 1997-06-16an horren inguruan ezarritako instrukzioen arabera jardun zuen Administrazioak. Arartekoaren gomendioa argitaratu zen garai berean, [Hezkuntza](#), [Unibertsitate eta Ikerketa Sailak](#) horri buruzko beste instrukzio batzuk argitaratu zituen. Hain zuzen ere, instrukzio horietan gure gomendioaren muina hartu zuen kontuan Sailak, eta iradokitako elementuetako zenbait ere txertatu zituen, hala nola aski izatea ebazpen judizialen xedapenak soilik aurkeztea edo banantze-egoera aipatzea eta bi gurasoen postahelbidea jasotzea matrikulatzeko inprimakietan eta aplikazio informatikoan. Alabaina, uste dugu instrukzio berriek ez dituztela konpontzen gure iritziz aurrekoen arabera jarraitutako irizpideek egokitasun juridiko aldetik sortzen zituzten arazoak. Desadostasuna alderdi hauen gainekoa da:

- Instrukzioetako sarreratik ondorioztatzen den irizpideari dagokionez, hauxe da berriro ere gure gomendioa: guraso-ahalaren gaineko erabaki judizialak ez direla banantzeen edo dibortzioen ondorio, baizik eta gurasoek seme-alabekiko dituzten betebeharrak ez betetzearen ondorio, eta ez-betetze horiek berdin-berdin egin ditzaketela ezkonduak, ezkongabeek zein bananduek. Betebehar horiek ez direla bete dioen ebazpen judizialik ezean, guraso-ahala Legearen aginduz dator ezarria, seme-alabatasunaren ondorio gisa. Beraz, hori egiaztatzeko nahikoa frogia izan behar dute familia-liburuak edo antzeko erreregistro-agiriek. Horregatik, gomendatutakoaren aurka doa lehenengo instrukzioan jasotako eskakizuna, hau da, matrikulazio-eskaera egitean edo ikastetxez aldatzean ezinbes-

tean aurkeztu behar direla banantzearen edo dibortzioaren gaineko ebazpen judizialaren xedapenak.

Jakina, badakigu ikastetxeetako zuzendaritzek arazoak izaten dituztela esparru horretan eta —ulertzekoa den bezala— eten egin nahi dituztela. Alabaina, lana errazte aldera eta ikastetxeetako zuzendaritzei arazoak saiheste aldera, uste dugu, ager litezkeen beste aldagai batzuk aintzat hartzeko eragozpen izan gabe, kontuan hartu behar dela honako hau:

- o Helburua bada guraso-ahala kendu zaion pertsonak ezin baliatu ahal izatea ahal horri datxekion eskubideak, hori ez du konpontzen banandutako pertsonen banantzearen gaineko ebazpen judiziala aurkezteko eskakizunak; izan ere, ebazpen horretan ia inoiz ez da hartzen horren gaineko erabakirik, eta, gainera, ahal hori berdin ken dakieke ezkondata dauden pertsonen, bananduta daudenei zein ezkongabe direnei. Alderantziz, hori arazo-iturri izan liteke; izan ere, ez dago lege-oinarririk pentsatzeko pertsona bat banantzea, ezta seme-alaben zaintza eta babespea ez izatea ere, berez denik guraso-ahala kentzeko moduko zerbait egin izanaren zantzu. Ondorioz, zuzenbidearen aurkakoa da banantze edo dibortzio hori oinarri gisa hartzea pertsona horri legez bete beharrik ez duen betekizun bat ezartzeko, baldin eta guraso gisa daukan eskubidea, Administrazioak errespetatu eta are erraztu behar duen eskubidea, baliatuko badu.
- o Banantzea, ostera, bada honako honen zantzu: gerta litekeela gurasoetako batek matrikulatzeko zein ikastetxez aldatzeko adierazi duen nahia ez izatea biera; elkarrekin bizi badira, berriz, logikoa da pentsatzea biera nahia izango dela hori, nahiz eta eskaera soilik aitak edo amak sinatu. Halako zantzurik bada, ikastetxeak ziurtatu behar duena ez da eskatzaileak al duen bere seme-alaben guraso-ahala edo zaintza, baizik eta Legeak horren inguruan erabakitzeko ahala ematen dien pertsonetako inor ez dagoela eskaera horren aurka: kasurik gehienetan, bi gurasoak izango dira, elkarrekin bizi badira zein ez; salbuespen gisa, horietako bat soilik izango da, besteari guraso-ahala kendu bazaio, edo bestela, biei kendu bazaie, tutoretza duen pertsona edo erakundea. Izan litekeen arazo hori konpontzeko, instrukzioak honako hau xedatu beharko luke gure gomendioarekin bat etortzeko: gurasoak elkarrekin bizi ez badira biek sinatu beharko dituztela matrikulatzeko edo ikastetxez aldatzeko eskaerak, eta banandutako bikote bateko kide batek alde bakarretik egiten badu eskaera hori, adierazi beharko zaiola beste kidearen baimenik ez badu —kasu horretan bai— horretarako ahalmena ematen dion ebazpen judiziala aurkeztu beharko duela, hau da, egiaztatu beharko duela beste gurasoari kendu egin diotela hezkuntza-arloko guraso-ahala; halakorik aurkezten ez badu, 2. instrukzioan ezarritakoa aplikatuko litzateke, hau da, eskaeraren kopia beste gurasoari bidaliko zaio, eta ohartaraziko zaio eskaera hori izapidetu egingo dela, hamar egun igaro baino lehen horren aurka dagoela adierazten ez badu.
- Azkenik, seme-alabei buruzko informazioari dagokionez, hirugarren instrukzioa ez dator bat gure gomendioarekin; izan ere, uste dugu informazio bera eman behar zaiela, eta baldintza berberetan, bi gurasoei, bananduta egon zein ez egon edo zaintza eta babes-

pea izan zein ez izan. Beraz, gure ebazpenean esandakoari lotuko gaitzaizkio, hala banandutako gurasoek informazioa lortzeko aurkeztu behar duten egiaztagirari dagokionez, nola ikastetxeari egiaztagiri hori emateko betebeharrari dagokionez, eta, berezi-bereziki, bi gurasoen parte-hartzeari buruz esandakoari dagokionez; hain zuzen, parte hartzea ez da soilik errendimendu akademikoaren gaineko informazioa jasotzea, baizik eta eskola-komunitateko instantzia guztiekin —tutoreak, eskolaz kanpoko jardueretako arduradunak, orientatzaileak, gobernu-organoak eta abar— elkarreraginean aritzea da.

Bestalde, gomendio horrek psikologia-kabinete baten kontsulta bati ere eman zion bide. Hain zuzen, kabinete horrek galdetu zigun zenbateraino zeuden bertako profesionalak behartuta arreta psikologikoa jasotzen zuen adingabe bati buruzko informazioa ematera zaindari ez zuen gurasoari. Planteatu ziguten kasu hori aipaturiko gomendio orokorra emateko zio izan genituen kasuez bestelakoa zen. Hain zuzen, ezkontide hark zaintza ez izatea ez zen garrantzitsua erabakia hartzeko, edo, bestela esanda, gure iritzia ez zen bestelakoa izango, baldin eta aita eskatzaileak bere alabaren zaintza eta babespea izan balu.

Kabineteari gure iritzia helarazi genion, kasu berezia baitzen, hots: aitari informazio hori emanez gero —bera zaindaria izan zein ez—, nahi ez zen eragin bat sor zezakeen adingabeak bere terapeutarengan zuen konfiantzari zegokionez. Gure iritziz, adingabearen interes gorenaren babesak egon behar zuen hari eragingo zion edozein jarduketaren oinarrian, eta emandako informazioak ez zuen inola ere talka egin behar lanbideko sekretua eta pazientearen eta profesionalaren arteko itun terapeutikoa bermatzearekin. Gure ekarpena alde batera utzirik, kabineteari iradoki genion egokia litzatekeela horri buruz elkargoen hitz egitea, eta hainbat erreferentzia eskaini genizkion, hala nola haur eta gazteen osasun mentaleko zentroena, era horretako kasuetan nola jardun jakiteko ereduak bildu ahal izan zitzaizkion.

#### ***2.2.4.4. Familia-barruko indarkeria (seme-alabek gurasoen aurka egindakoa)***

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2010eko txostenaren ondorioetan adingabe arau-hausleen inguruan aipatu zituen bi elementu kezkarrienetako bat zen etengabe ugaritzen ari zirela familia-barruko eta bikotekidearen aurkako indarkeria-delituak. Jadanik 2004an, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak arazo horren inguruko lehenengo kezka adierazi zuen; izan ere, familia-barruko indarkeria-delituak loturiko 43 neurri zenbatu zituen (guztizkoaren % 5 inguru), kautelazkoak eta irmoak batuta. Zuzendaritza horrek harreman afektiboetan indarkeriazko portaeren ezaugarriak zituzten delitu guztiak sartu zituen kalifikazio horren barruan. Hala, kontuan hartu zuen bai gurasoen edo pertsona agintedunen eta bai bikotekideen aurkako indarkeria, eta baita familia-indarkeriaren ondoriozko delituak nahiz iseka, irain, mehatxu eta abarren ondoriozkoak ere. Orduz geroztik, ugaritzen ari dira familia-barruko eta bikotekidearen aurkako indarkeriarekin loturiko delituak; hain zuzen, 2009an ia % 30 gehitu ziren, eta 2010ean beste % 4,7 igo ziren. Urte horretan, neurrien herenak neskei aplikatu zitzaizkien (aurreko urteko portzentajeen halako bi). Datu horiek ikusita, erabaki genuen ofiziozko jarduketara bat hastea, instantzia publikoek gorantz egiten ari zen errealitate horri zenbateraino eta nolako kalitatez erantzuten zioten jakiteko.

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta [Familia eta Komunitate Politikarako](#) zuzendaritzetatik, fiskaltzatik, Bizkaiko Foru Aldundiko [Haurren](#) eta [Emakume eta Familien](#) zerbitzuetatik eta UPV/EHUtik eta [Deustuko Unibertsitatetik](#) jasotako informazioaren emaitza gisa, baieztatu dezakegu jadanik eragile instituzional eta sozial askok ikusi dutela errealitate berri hori, eta ematen den arreta ez dela hasieran uste genuen bezain antzua.

Batetik, aipaturiko bi unibertsitateetako ikerketa-taldeak azterketak egiten ari dira, instantzia publikoek babesturik, gertakaria azaltzeko, hobeto ezagutzeko, zeren ondorio izan ote litekeen eta zein aldagaik esku hartzen duten jakiteko, erantzun eraginkorrakoak egituratzeko bidean argia ekarri nahian. Jakin ahal izan dugunez, erreferentzia gutxi dago nazioarteko literatura zientifikoan horri buruz, eta profesionalak gonbidatzen dituzten foroetan eta topaketetan parte hartzearen ondorioz Espainiako Estatuan errealitate horri buruz ezagutzen denez, esan liteke Euskal Autonomia Erkidegoak baduela halako erreferentzia-maila bat, hala ikerketari dagokionez nola esku-hartzeari dagokionez.

Hala gertakari horretara berori azaltzeko asmoz gerturatzen diren eragileak nola esku hartzeko xedez hurbiltzen direnak bat datoz komunikabideek adingabe erasotzailearengan jarri ohi dutela arreta, eta adierazi ohi dutela halako portaerak ugaritzen ari direla, neska-mutilak hazten ari diren gizarte horren balioei eta ezaugarriei lotu gabe. Adingabe horiei buruz ematen den irudi publikoa lerratu samarra izaten da, neska-mutilak errudun gisa eta gurasoak biktimak gisa gerrarazten dituen neurrian; alabaina, haiekin hurbiletik eta modu jarraituan lan eginez gero, ikusiko dugu seme-alaba horiek ere familia-gatazka garrantzitsuak erakusten, agertzen dituztela, eta beraiek ere gatazka horien biktimak direla. Abiapuntuko jarrera horrek erru handia egozten die adingabeei, eta gurasoak erantzukizunaz gabetzeko halako arrisku bat dakar, "norbaitek" (hirugarren batek) semea edo alaba "aldatzeko" zain geratzen baitira.

Araozari sistematikoki begiratu gero, ikusiko genuke gatazka daudela familia-sisteman, eta kide guztiek dutela halako erantzukizun bat. Hemendik, aldaketa-prozesuan erantzukidetasunez jokatzeko deia egin dezakegu, eta oinarri egokiak ezarri, prozesu terapeutikoan alderdi guztiak inplikatzeko; izan ere, bistan da, auziari ez litzaioke soilik adingabearen bakoiko ikuspegitik heldu behar.

Ezagutu ahal izan ditugun hiru esku-hartze programetan, *familia-gatazkatzat* hartzen da, baina, esku hartzeko zer testuinguru baliatzen duten, errazagoa edo zailagoa da familia-sistema osoarekin esku hartzea. Hala, bada:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Familien [Hobetzen programak](#) familian osoki esku hartuta jorratzen ditu seme-alabek gurasoekin indarkeriaz jokatzeko duten egoerak, familia-dinamikan ezarritako harreman-eredua aldatzeko asmoz eta harreman-eredu osasungarriago eta gogobetegarriago bat ikasteko asmoz (azken xedea: familia-harremanetan indarkeria desagertzea). ikuspegi horrekin bat etorritik, programaren hartzailak familiak dira (aita-amen aurka indarkeria erabiltzen duten 10 eta 21 urte bitarteko seme-alabak dituztenak), hala adingabea familiarekin bizi zein ez, nola familiarengandik bananduta egon, aldi baterako edo betiko.
- Aldundi horretako Umeen Zerbitzuan, berriz, bizitegi-baliabide batean ematen zaio arreta problematika horri, eta, bertan, gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzen

da familiekin eta nerabeekin; nolana ere, kontuan hartzen da neska-mutil horiek ez direla beren familiekin bizi, horietako askok administrazioaren esku utzi baitute zaintza (zaintza administratiboa). Hala programa honetan nola aurrekoan, esku-hartze planak hiru ardatz hauen arabera egituratzen ditu jarduketak: nerabea, amak, aitak edo beste senitarteko batzuk, familia-sistema osoa; eta esku hartzeko modalitate hauek hartzen ditu kontuan: banakakoa —familiako kide bakoitzaren alderdi arazotsuak, gabeziak eta baliabide pertsonalak—, familiakoa —problematika harremanean oinarrituta azaltzen du eta aldaketa-prozesua sustatzen du familiaren harremanen dinamikan— eta taldekoa —seme-alabak eta gurasoak, bereizirik—.

- Gazte Justiziaren Sistemaren esku-hartzea izugarri mugatzen dute egindako delituak eta horri dagokion zehapenak. Horrek bi berezitasun ematen dizkio: epe mugatua dute lan egiteko, eta epe hori ez dator beti bat oneratzeko prozesu hezitzaile eta/edo terapeutikorako behar denarekin; ezarritako neurri irmoetako gehienek ez dute askatasuna kentzen (2011n, 35 pertsona utzi dira aske kontrolpean, baliabideetan eta programetan parte hartzeko betebeharrarekin, 14 sartu dira egoitzetan eta 3 hezkuntza-talde batean bizitzen jarri dira), baina egoera askotan eman da urruntze-agindua, eta horrek zaildu egiten du hizpide dugun harremanean oinarritutako lan sistematiko hori. Bestalde, komeni da adieraztea ez dagoela tipologia horretarako baliabide espezifikorik, baina esku-hartze pertsonalizatua hasten den unetik bertatik, halako portaerak berariaz jorratzen dituen jarduketa-plan bat diseinatzen da.

Programa horietan parte hartzen ari diren familien eta pertsonen bereizgarriei dagokienez:

- Familia “normalak” dira, gehienak “hemengoak bertakoak”. Familia horietako askotan, amaren esku dago osoki seme-alabak haztea, hala familia monomarentalak direlako, nola familia horretan (banandua zein ez) aitak ez duelako laguntzen seme-alabak hezten, familia-dinamikatik kanpo dagoelako.
- Guraso bakarrekoak ez diren familien ehuneko handi batean desadostasun handiak daude gurasoen artean hezkuntza-ereduen inguruan. Hezkuntza-estilo permisiboak dira (gizartean onartuta dauden balio jakin batzuekin bat etorriz), eta seme-alabek denbora asko pasatzen dute bakarrik etxean, zainduko dituen inor gabe. Arazoei heltzeko indarkeria-ereduak baliatzen dituzte kasu asko eta askotan, batez ere Gazte Justiziaren Sistemak jorratzen dituen kasuetan.
- Nagusiki erdi mailako klasekoak dira, eta, beraz, pobrezia ez da arrisku-faktorea. Gurasoen prestakuntza-maila eskola-graduaturtik gorakoa da, eta lanari dagokionez aktibo daude.
- Ehuneko izugarri handi batean, amei egiten zaie eraso, eta erdira jaisten da ehuneko aiten kasuan, are familia-sisteman modu aktiboan parte hartzen dutenak soilik zenbatuta.
- Nerabeei dagokienez, ohikoagoak dira 15 urtetik aurrerako nerabeak, eta, sexuari dagokionez, parekatzen ari dira, nabarmen. Ez dira eskolatik, zirkuitu akademikitik

kanpora ateratako nerabeak, baina ehuneko handi batek errendimendu eskasa du. Alkohola eta cannabisa eskuarki kontsumitzeak areagotu egiten du familian indarkeriaz jokatzeari. Zenbait kasutan, nortasun-nahasmendua edo AGNHa diagnostikatu zaie.

Arloko profesionalen diskurtsoan behin eta berriz agertzen den beste ideia bat da beharrezkoak direla prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra.

Beraz, ondorio gisa, honako hau adierazi behar dugu:

- Beharbada genero-indarkeriarekin gertatu zen moduan, denbora asko behar izan da gurasoekin indarkeriaz jokatzeko duten seme-alaben errealitate hori jendaurrean agertzeko, eta, horren ondorioz, erantzunak berandu egituratu dira. Badirudi batez ere azken urte hau oso ona izan dela alde horretatik, ugaritu egin baitira antolatutako profesionalen foroak, kongresuak eta topaketak.
- Ez dirudi errealitate horrek gutxitzera egingo duenik; aitzitik, gizartean nagusi diren zenbait baliok eta gizarte konplexu honetan seme-alabak hezteko dauden zailtasunek pentsarazten digute halako portaerek goranzko joera izango dutela.
- Hori horrela, premiazkoa da erantzun-aukera zabal bat izatea, hala nola: prebenitzea eta arreta goiztiarra ematea, gurasoen eskolak edo laguntza emozionala eta hazierarako tresna praktikoak emango dituzten antzeko ekimenak aktibatuta; udal gizarte zerbitzuek gizarte eta hezkuntza arloan talde-lanean jardun dezaten sustatzea, arazo hasi berriak detektatzeko eta familiei laguntzeko; eta programa zehatzak garatzeko apustu irmoa egitea (lehendik daudenak eta aktibatzea beharrezkotzat jotzen diren beste hainbat), ikuspegi sistematiko batetik (familia) psikoterapiaren eta gizarte eta hezkuntzaren arloan osoki heltzeko.

### 2.2.5. Osasuna

Adingabeak ardatz dituzten edo adingabeei eragiten dieten banakako kexek, nagusiki, osasun-administrazioaren ustezko funtzionamendu txarrarekin dute zerikusia; hain zuzen ere, funtzionamendu horrek arreta txarra izatea dakar, kexa jarri duenaren iritziz. Horietako bakoitza aztertu eta burutu dugu, eta kasuren batean esku-hartze okerra zuzendu da, baina, era askotakoak direnez, ez zaigu iruditu osasun-sistemaren egoera kezkarri baten erakusgarri direnik. Alabaina, [osasunaren arloan](#), [gaixotasun kronikoen arloan](#) eta [ezgaitasunen bat duten pertsonen arloan](#) ofizios egindako jarduketak askotan, adingabeen osasunerako eskubideari eragin dieten egoerak izan dira arretagai.

**FEVAPAS** Gorren Lagun eta Gurasoen Elkartearen Federakundearekin izandako harremanari esker, alderdi kezkarri batzuk ezagutu ahal izan ditugu; horietako lehena **haur gorrieria goiz detektatzeko programari (DPSI)** buruzkoa zen. Programa hori 2003ko ekainean hasi zen, amatasun-zerbitzua duten ospitale publiko guztietan eta zerbitzu hori daukaten kli-

nika pribatuetan, helburu hauekin: gorreria bizitzako lehenengo hiru hilabeteak baino lehen detektatzea, tratamendua bizitzako sei hilabeteak bete aurretik ezartzea eta detektatutako kasu guztietan egitea ondoren jarraipena. Ia zortzi urte geroago, federakundeak esan duenez, arazo larriak daude oraindik ere programa hori garatzeko:

- Ez dago profesionalak “babestutako denbora-tarterik” (soilik paziente horiei arreta emateko denbora); izan ere, beste zaintza eta ordezkapen batzuk egin behar izaten dituzte, eta, beraz, ez dute izaten programa modu egokian ezartzeko behar beste denbora;
- Ez dago koordinaziorik egindako proben eta detektatutako kasuen datu-bilketan;
- Koordinaziorik ez dago sailen (neonatologia eta otorrinolaringologia) eta sistemen artean (osasun- eta gizarte-zerbitzuak: zenbait otorrinolaringologok ez du audifonoetarako dauden laguntzen berri, ez dira bideratzen arreta goiztiarra emateko, eta abar).
- irizpiderik ez dago probak egiteko lasaigarriei dagokienez;
- arazoak daude diagnostikatutako kasuen jarraipen egokia egiteko, eta horrek eraginkortasuna kentzen dio detekzio goiztiarrari;
- entzumen-potentzial ebokatueterako proba egiteko asko itxaron behar izaten da; sei hilabetekoa ere izan daiteke itxaron denbora hori. Araban, kasu batzuetan urte eta erdi ere igaro da diagnostiko fidagarri bat izateko.
- arreta eskasa ematen da premiazko egoeretan, programaren arduradunak bajaran edo oporretan badira.

Beste kexa batek **inplante koklearrak** egiteko erreferentzia-zentro batekin dauka zerikusia; izan ere, nahiz eta osasun-administrazioak jakinarazi zien Donostia Ospitalea zela erreferentzia-zentroa, Ospitalean adierazi zieten ez zutela erabaki horren berri eta erasandako pertsonak Bartzelonara bidaltzen zituztela.

Azken kexa inplante koklearren erabiltzaileek kanpoko osagaiak berritzeko izaten dituzten arazoei buruzkoa da: kanpo-prozesadorea, mikrofonoa eta antena; hain zuzen, prestazio hori [maiatzaren 28ko 1466/2010 SAS Aginduaren](#) bidez arautu da. Hala, adierazi ziguten ez zituztela informatzen osagai horiek berritzeko zituzten aukeren inguruan, eta, beraz, beren kabuz bilatu behar izan zutela modua.

Kontu horiek denak [Osakidetza](#)n azaldu genituen, eta entitate horretako zuzendari nagusiak jakinarazi zigun hainbat jarduera ari zirela egiten [Osasun eta Kontsumo Sailarekin](#) koordinazioan eta erreferentziako lau ospitaleetako ORL espezialisten parte-hartzearekin ([Basur-tu](#), [Gurutseta](#), [Donostia](#) eta [Txagorritxu](#)), egoera aztertze eta jarduketa-eremu guztietan



DPSI programa hobetzeko arloak detektatzeko: baheketa, diagnostikoa eta tratamendua. Hala, hau jakinarazi zigun:

- 1º 2010. urtearen amaieran eta 2011. urteko lehenengo seihilekoan (Donostiako eta Basurtuko ospitaleetan) proba pilotuak egin zituztela garun-enborretako entzumen-potentzial ebokatuak (EPE) bahetzeko proba gisa, eta proba hori gaur egun "urrezko estandartzat" hartzen dela eginkizun horri dagokionez. Hori ezartzearen alde egiten bada, abantaila klinikoak ekarriko ditu, baina baita antolaketari loturikoak ere, hala nola bahetzeko gaur egun behar den denbora laburtuko da; hain zuzen, gaur egun OEA probak egiteko hiru fase egin behar dira, eta EPEarekin bakar bat aski izango da.
- 2º Era berean, proba pilotuak egin ziren PEATC ekipamenduak ezagutzeko; hain zuzen, ekipamendu horiek teknologia berriak barneratzen dituzte eta bide ematen dute proba haurri lasaigarririk eman gabe egiteko. Horregatik, helburua da erreferentziako lau ospitaleak haur-gorrieria diagnostikatzeko eta jarraipena egiteko halako ekipamenduz hornitzea.
- 3º Bilerak egin ziren Jaioberrien Baheketako Kontseilu Aholku-emailearekin, Osasun Publikoko Zuzendaritza buru zela, bahetze-jarduketak adosteko eta informazio-sistema erkidegoko jaioberrien datu-basean sartzeko; base horrek gaur egun bahetutako jaioberri guztien informazioa biltzen du (fenilzetonuria, hipotiroidismoa, fibrosi kistikoa...).

Inplante koklearrei dagokienez, jakinarazi ziguten hainbat koordinazio-jarduketa egin zela Donostia Ospitaleko Inplante Koklearren Unitatearekin —sare osorako erreferentzia da—. Inplanteen kanpo-osagaiak berritzeko arazoak, [txosten orokorreko Osasun-arloan](#) xehekiago azaltzen den bezala, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitariorako Zuzendaritzaren 2/2011 Zuzentarauan ("*Inplante koklearren kanpoko osagaiak berritzea*") ezarritako eran bideratu dira; horren bidez, prestazio horri erantzun ahalko zaio, Osakidetzan behin betiko prozedura bat ezartzen den arte.

Jadanik gaixotasun kronikoen esparruan, 2011. urtean arreta berezia izan duten lau problematika aztertuko ditugu.

Horietako lehena **metabolismoaren jaiotzetiko gaixotasunen bat** duten pertsonena da; horietan, erasandako jaioberriak detektatzeak (jaioberriak bahetuta) eta tratamendua jartzeak (batez ere dieta zorrotz batean oinarritua) kalte neurologikoa saihestu dezake, eta gaixotze-tasa, heriotza-tasa eta halako gaixotasunei loturik izan daitezkeen desgaitasunak gutxitu ditzake.

[Euskadiko PKU Elkarte](#) *y otros errores metabólicos* elkarrekin egindako bileretatik, pazienteen familiakoekin eta medikuekin izandako elkarrizketetatik eta legebiltzarreko egoitzan gaiari buruz egindako lanaren azterketatik Osakidetzak pertsona hauei eskaintzen zien arretan gabezia batzuk hautematen ziren:

- Infradiagnostiko arazoak eta Osakidetzak duen teknologiaren infraerabilera (masen espektometroa tandemean, batez ere). Jaioberrien baheketen programan patologia berriak sartzeko beharra.
- Osakidetzak alor honetan eskaintzen duen arreta bikaina pediatria zerbitzuan garatzen da, batez ere. Eredu honek azpiegitura gabezia sortzen du pazienteen adin pediatrikotik helduarora igarotzen denean.
- Paziente hauen arretaz arduratzen diren gaixotasun metabolikoetan espezializatutako fakultatiboek zailtasunak dituzte pazienteak modu eskusiboan artatzeko, Pediatria Zerbitzuan sortzen diren beste behar batzuen interferentziarik gabe eta, ondorioz, ezar daitezkeen teknikak, dauden baliabideak eta osasungintzako bide egokiak hobeto eza-gutzeko eta espezializatzeko oztopoak dituzte.
- Psikologoek eta dietistek ez dute “babestutako denborarik”
- Espezialisten arteko koordinazioa eta helburu komunak planteatzeko aukera eskaintzen duen sistema integraturik ez dago.
- Erasadako haurren amei eta aitei eta paziente helduei arreta psikologikoa eskaintzeko beharra.
- Pediatriako pazienteen kasuan, beste espezialistei alerta informatikoa emateko funtzionamendu txarra. Honi dagokionez, Osabide Global proiektua –aurten Espainian pazienteen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko osasungintzako esperientzia onenaren saria lortu du asistentzia-kalitatearen espainiar elkartearen (SECA) eskutik- orokortu den heinean, alerta informatikoari buruzko arazoak desagertuz joan dira.

Osakidetzari informazioa eskatu genion gai horiei buruz. Erantzunean, talde hau artatzeko baliabide egokiekiko egoera aurkezten zitzaigun Gurutzetako Ospitalean: *“sortzetiko metabolismoko akatsetan lanaldi osoan aritzen diren hiru pediatria, nutrizio eta dietetikako aditu bat eta dauden baliabideekin haurren psikologo bat eta zentroko psikiatra izateko aukera, haurra eta familia tratatzeko; zentroko neonatologoaren, intentsibisten, neurologoaren eta abarren inplikazioa eta aurten parte hartze akordio bat jarri da abian Barne-medikuntza Zerbitzuarekin, paziente helduen arreta hobetzeko”*

Osakidetzaren erantzuna elkarrekin, pazienteen familiakoekin eta osasungintzako profesionalekin kontrastatu ondoren lortutako informazioarekin ezin izan dugu jarraitu espediente hau itxi denean eta 2012an zehar luzatu beharko da tramitazioa.

Jaioberriak bahetzeari dagokionez, Osasun Publikoko oinarritzako programa prebentibo-asistentzialetako bat da; jaioberriei jaio eta 48 ordura odola ateratzen zaie (“*orpoko frog*a”) eta ondoren laborategian aztertzen da odol hori. *Jaioberrien bahetze programak Espainian: jarduerak eta etorkizunerako proposamenak* adostutako agiria kontuan izanda eta eskura dagoen ebidentzia zientifikoa oinarri hartuta, programan beste 19 gaixotasun sartzeko aukera

iradoki genion Osakidetzari. Gaixotasun horiek guztiak tratatu egin daitezke, hautemateko emaitza fidagarriak dituzte eta Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako programe-tan eta gure inguruko Europar herrialde batzuetan (Alemanian, Danimarkan, Belgikan, Hol-landan, Austrian, etab.) sartu dira.

Osakidetzak eman zigun erantzunean ezgaitasun edo heriotza goiztiarra, gaindiagnostikoa eta gaintratamendua bezalako terminoetan aurreikusitako eragina ebaluatzeko beharra ai-patzen zuen; balizko ondorio kaltegarriak buruzko balorazioa egiteko egokitasuna; sartzeko parekidetasunarekin, autonomiaren errespetuarekin eta isilpekotasunarekin lotutako gaiak edo ikuspegi kliniko sozial eta etikotik zuen egokitasuna, programan gaixotasun berri bat sartzea adosteko. Jakinarazi zigutenez, 1982az geroztik Sortzetiko Gaixotasunak Jaiobe-riengan Bahetzeko Euskadiko Aholku Batzordeak garatzen du, 2011n zelula faltziformeen gaixotasuna sartu da eta datozen urteetan beste bost sartzeko gomendatu du (Erresuma Batuko ereduari jarraituz): Homozistinuria, Astigar-jarabe gaixotasuna (MSUD), 1 motako aziduria glutamikoa (GAI), Azidemia isobalerikoa (IVA) eta Katea luzeko gantz-azidoen Acil COA deshidrogenatuaren gabezia (LCHADD).

Egungo zerbitzuak erreferentziazko unitate kliniko izateko zituen aukerez eta xede horre-tarako egin zitezkeen jardueraz galdetu genion Osasun arloko administrazioari, Legebil-tzarreko aurrekariak kontuan izanda. Adierazten zigunez *“gaur egun Gurutzeta ospitaleko pediatrek Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioaren lan-talde batean parte hartzen ari dira, CSUR araudiaren arabera Metabolopatia Hereditarioen Erreferentziazko Unitateen-tzako gomendioak ezartzeko”*.

Gure iritziz, mota honetako unitate bat finkatuko balitz, erasandako pertsonak behar beza-la artatuko lirateke, diagnostikoa errazago lortuko litzateke eta arreta terapeutiko psiko-lojikoko eta gizarte laguntzako estrategia ere errazago definituko litzateke; arreta protoko-loak sortu eta hedatuko lirateke; jaioberrien bahetze unitateekin eta diagnostiko biokimiko eta genetikoko unitateekin artikulatuko litzateke; arretan zerikusia duten fakultatibo guztien koordinazioa errazago egingo litzateke; adin pediatrikoan ez dauden pazienteen arreta ego-kia litzateke; ikerketa lanak koordinatuko lirateke eta zaintza epidemiologikoan parte hartu; osasungintzako profesionalentzako trebakuntza eta informazio ekintzetan parte hartuko litzateke; osasungintzako zaintzak eta zaintza mediku-sozialak hornitzen dituzten sareen kudeaketa eta koordinazioa egingo litzateke; eremu desberdinetako osasungintzako agin-tariekin eta pertsona gaixoen elkarteekin elkarrizketak egongo lirateke; profesionalen orien-tazioa; pazienteen familien trebakuntza; arreta egokia larrialdi egoeretan; diziplina anitzeko ikuspegiaren bermea legoke, oso beharrezkoa baita prebalentzia txikiko, metodologia diag-nostikoko eta maneiu konplexuko gaixotasun hauei aurre egiteko, kronikoak eta irismen multiorganikokoak eta alerta informatikoaren kudeaketa egokia legoke.

**Linfedema duten pertsonen** eragiten dien problematikatik —xehekiago aztertu dugu txos-ten orokorreko [gaixotasun kronikoei buruzko atalean](#)—, erasandako pertsonen jaso duten datua nabarmendu nahi dugu haurrei eskainitako txosten honetan. Izan ere, datu horren arabera, inkesta egin zaien pertsonen % 20 (140 pertsonari egin zaie inkesta) diagnostikatu gabe daude oraindik, eta jadanik diagnostikoa egin zaien bi herenek 10 eta 20 urte bitar-

tean itxaron behar izan dute horretarako. Diagnostikatu gabeko pertsona gehienek lehen mailako linfedema dute; hori, eskuarki, haurtzaroan garatzen da, eta, kasurik onenetan, helduaroan diagnostikatzen da. Pentsa litekeenez, hain berandu diagnostikatzek eta ondoren tratamendurik ez izateak nabarmen okertzen du erasandako pertsonen bizi-kalitatea, elefantiasia pairatzeko arriskua izateraino.

Hala, datu hori Osakidetzari helarazi diogu, eta, horrekin batera, baita beste datu kezkarri batzuk ere, erasandako pertsonen ikuspegitik emanak, hala nola ez dagoela zaintza prebentiboari buruzko informaziorik, tratamendurik ez dela ematen, profesionalak aldatu egiten direla, itxaron zerrenda luzeak daudela eta jarduketa-protokolorik ez dagoela, jakinaren gainean egon dadin, antolaketaren gaineko aurreikuspenek izan dezaketen aplikazio praktikoa azter dezan eta bidezko diren neurriak har ditzan.

laz erakunde honek egindako jarduketan esparruan, Osakidetzak hainbat konpromiso hartu zituen (ikus [Eusko Legebiltzarrarentzat egindako 2010eko txostenaren](#) gaixotasun kronikoei buruzko atala). Bada, konpromiso horiei loturik, 2011n **agenesiak jotako adingabeei** eman zaien arretari dagokionez, aipagarriena da osasun-erakunde horrek arreta-protokolo bat egin duela. Horren berri amaitu bezain laster emango die [AUPlri \(Umeen Protesien Erabil-tzaileen Elkartea\)](#) eta Arartekoari. Protokolo horrek barne hartuko ditu sor litezkeen kasuei (urtean lautik bostera bitartean izango direla kalkulaten da) arreta emateko gidalerroak, eta jarraipen bat ezarriko du haurrak errehabilitatzeko sarean, hurrek behar dituzten ortoprosietan interesaturik dauden establezimenduekin.

Aurten lankidetzaren dinamika bat jarri da abian, **fibromialgia, neke kronikoa, sentikortasun kimiko anizkoitza eta elektrohipersentsibilitatea** duten pertsonen eskubideen alde lanean diharduten EAEko elkarte adierazgarrienetako zortzirekin elkarlanean. Talde horrek adierazi digu kezkatuta dagoela haurren artean halako patologiak gorantz egiten ari direlako eta arreta aldetik azaroak izan direlako. Patologia horiei eta taldearen eskariei buruz, ohiko txostenean [gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen buruz egindako kapituluan](#) jardun dugu. Hor azaldutako neurri-sortatik —uste dugu horiek ezarriz gero pertsona horiei arreta egokia emango litzaiekeela eta haien bizi-kalitatea hobetuko litzatekeela—, hemen nabarmendu nahi dugu gizarte-erabaketa bat sustatu dela WIFI teknologiek, telefonia mugikorrek eta halakoek dakartzaten arriskuei buruz, eta, horrekin lotuta, atzeratu egin dela Osakidetzako zentroetan eta ikastetxe publikoetan WIFI sistemak eta DECT hari gabeko gailuak zabaltzeko asmoa.

**Haurren eta gazteen osasun mentalari** dagokionez, [FEDEFES Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarten Federakundearekin](#) dugun harremanari esker eta aurten [OME Osasun Mentalaren Elkartearekin](#) hasitako lankidetzaren dinamika esker, erasandako pertsonen eta familien ikuspegia ezagutu ahal izan dugu, eta horrek bide ematen digu talde horri ematen zaion arretaren inguruko gabeziei eta/edo hutsuneei buruz lehenago ere adierazi dugun kezka nabarmentzeko. Haurren eta gazteen psikiatria-espezialitatea gehiago luzatu gabe sortu beharra dagoela adierazteaz bat, nabarmendu behar dugu kezkatuta gaudela [mugako nortasun-nahasmen](#) duten pertsonen jasotzen duten arretarekin; hain zuzen, patologia horrek eragin handia du gazteetan eta estuki lotuta dago suizidioekin. Familiek adierazi dute

diagnostiko-arazoak daudela, medikaziorik ez dagoela (eskizofreniarako dagoenaren antzekoa), desegokiak direla profil horretarako ospitale-baliabideak, psikoterapia behar dela, ez dela gauzatu [EAEko Osasun Mentaleko 2010eko Estrategia Dokumentuan](#) aurreikusitako baliabidea. Horrez gain, OMEk baliabide-zuzkidura gehitzeko beharra, batez ere tarteko egiturak gehitzekoa, eta profesionalen prestakuntza areagotzeko beharra aipatzen ditu argiro eskasa den arreta hori indartzeko elementu gisa.

Bestalde, oso ontzat jotzen dugu *LEHENAK* lehenengo gertakari psikotikoetarako programa abian jarri izana (14 urtetik aurrera ematen da arreta); hain zuzen, familiei laguntzeko taldeak eta tratamendu farmakologikoa eta psikologikoa eskaintzen ditu. Eskualde bakoitzeko taldeak honela osaturik daude: lanaldi osoko psikiatra bat eta lanaldi erdiko psikologo bat, erizain bat eta gizarte-langile bat.

Osasun-arloari buruzko atal hau amaitzeko, **osasun-datuak lagatzeari** buruzko ofiziozko jarduketa aipatu nahi dugu, adingabeen babesaren arloan ardura duten administrazio publikoek hala eskatuta eginikoa. Datu batzuek pentsarazi ziguten osasun-arloko datuak ez direla, beharbada, oso modu zehatzean ematen, gizarte-zerbitzuek datu horiek zertarako eskatu dituzten kontuan hartuta. Egindako analisiaren emaitza [Arartekoaren urriaren 10eko 4/2011 gomendio orokorrean](#) jaso dugu Osasun arloko datuak lagatzea, adingabeak babesteko arloko herri-administrazio arduradunek hala eskatuta. Bertan, informazioa eskatzen duten gizarte-zerbitzuei eskatzen zaie zehaztu dezatela al bait gehien zer informazio jotzen duten beharrezkotzat beren xederako, datu horien zaintzaren arduradunak aurrez zuhurtasun-judizio bat egin ahal izan dezan eta zer informazio kliniko eman dezakeen eta eman behar duen balora dezan. Izan ere, nahiz eta Datu Pertsonalak Babesteko [abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko](#) 12. artikulua uzten duen datuak lagatzen, legez baimenduta badago —halaxe gertatzen da kasu hauetan, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko [otsailaren 18ko 3/2005 Legearekin](#) bat etorritz—, kontuan hartu behar da datuen kalitatearen printzipioa; horren arabera, datuak egokiak eta bidezkoak izango dira eta ez dira gehiegizkoak izango eremuari eta helburu diren xede zehatz, argi eta legitimoei dagokienez (DBLOko 4. artikulua).

### 2.2.6. *Mendeko adingabeak*

Mendeko haur eta nerabeentzako arretak badu arau-babesa, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko [abenduaren 14ko 39/2006 Legean](#). Babes hori ez da guztiz berria, legea onartu den arte autonomia-erki-degoak arduratu izan baitira beren eremu geografikoetan mendeko pertsonentzako gizarte-zerbitzuak garatzeaz, baina bada aurrerapen eztabaidaekin bat gizarte-politiken arloan; izan ere, eskubide subjektibo berri gisa aitortzen eta arautzen du mendeko pertsonak legean bertan aurreikusitako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea, eta, horrenbestez, administrazio publikoen gain uzten du autonomia sustatzeko eta mendeko pertsonak zaintzeko erantzukizuna.

Lege horretako azken xedapenetatik lehenak, prestazioetarako eskubidea gauzatzeari buruzkoak, mailaz maila gauzatzeko dela xedatzen du, onartu zenetik 2013ra bitartean.

Hala, 2011ko urtarrilaren 1ean, mendekotasun arina mailarik larrienean duten pertsonak (I. gradua, 2. maila) sartu ziren mendekotasun-prestazioen onuradun gisa. Ezarritakoaren arabera, prozesu hori 2013ko urtarrilaren 1ean burutuko da, 1. mailako mendekotasuna duten pertsonak sartuta. Alabaina, aurrekontu, zerga eta finantza arloan **premiazko neurriak** hartzen dituen [abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuak](#) aldatu egiten du aurreikuspen hori, azken xedapenetako hamalagarrenean, era honetara:

- 2012an I. graduko eta I. mailako mendekotasuna baloratu zaien pertsonak ez dute arretarik jasoko 2013ko urtarrilaren 1era arte (urtebeteko luzamendua).
- I. gradu eta I. mailako mendekotasun arina baloratu zaien pertsonak urtebeteko atzerapenarekin sartuko dira; beraz, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatuko da.

III. eta II. graduko mendekotasuna duten pertsonak (mendeko handiak eta ertainak) ez dute aldaketarik izango arretarako eskubideari dagokionez, ezta I. graduko eta 2. mailako mendeko txikiek ere, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen baloratu badira.

Hori atzerapen deitoragarria iruditzen zaigu autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko araudiaren ezarpenean, eta espero dugu euskal administrazio publikoek zuzenduko dutela hori, babes-maila gehiago ezartzeko duten ahala baliatuz.

Arauen esparruko beste berritasun bat [otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua](#) onartu izana da. Horren bidez, onartu egin da Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun-egoera **baloratzeko** ezarri duen baremoa, eta aplikazio-aldi honen ostean behar-beharrezkotzat jo diren hainbat hobekuntza gehitu ditu. Hala, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) eta 3 urtetik beharagoentzako Berariazko Balorazio Eskala (BBE) aldatu dira; horrekin batera, balorazioaren jardunbide profesionalean orientatzeko gidak argitaratu dira, eta espero da horiek hobekuntza nabarmena ekarriko dutela dementzia eta buru-nahasmendu larria duten pertsonen balorazioan, bai eta sentimen-desgaitasuna dutenen balorazioan ere.

Baina erakundeak arlo honetan egin duen jardueraren alderdirik esanguratsuen [EAEn Norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa](#) txosten berezian jasota geratu da. Hain zuzen, txosten hori 2011ko ekainean argitaratu zuen erakunde honek, eta, horren bidez, sakonki aztertu zuen EAEn mendeko pertsonentzako arretaren egoera zein den. Talde guztiak bat datoz txostenaren ondorioetan jasotako ahulgune edo hobetu beharrek esparru nagusiekin, haiei ere eragiten dieten aldetik. Hala, hiru lurralde historikoetan Legea desberdin aplikatzeak (eta, ondorioz, eskubideez desberdin gozatzeak) dakartzan arazoen, finantzaketa behar bestekoa ez izateak sortzen dituen arazoen, irizpide bateraturik ez duen informazio-sistema baten ondoriozkoek nahiz mendekotasun-egoera aitortzeko eta sistemako prestazioak adjudikatzeko prozedura administratiboetan ikusi diren disfunczioei loturikoek mendekoak zaintzeko sistemaren erabiltzaile guztiei eragiten diete, haurrak eta nerabeak barne direla.

Era berean, euskal administrazio publikoei horren inguruan egindako gomendioak sistema hobetzeari buruzkoak izan dira, erabiltzaileei arreta hobea ematea ekarriko duten hobekuntzei buruzkoak hain zuzen, izenburuak irakurrita iragar litekeen bezala. Nolanahi ere, adingabeei eragiten dieten kontuen gaineko kezka argitan, hartzaileak berariaz haur eta nerabeak dituen 11. gomendio luzean proposatutako neurrietako bi nabarmenduko ditugu.

Horietako lehenengoan (11.11 gomendioa) honako hau eskatzen da: *Menpekotasun-egoeran dauden adingabe guztiek, haien jatorri nazionala edo aldez aurretiko administrazio-egoera zeinahi izanda ere, berdintasun-printzipioari jarraiki, baita neska-mutilak beren jatorri nazionalagatik diskriminatzeko debekua betez eta adingabeen interesa aldi berean dagoen beste edozein interes legitimoren aurretik lehenesteko printzipioa betez ere.*

*Eskubidearen titulartasuna ezingo du oztopatu haren gurasoen egoera administratiboak, ezta administrazio-egoera erregularrean epe jakin bat daramatela ziurtatu ezin izateak ere.*

Horri dagokionez, oso positibotzat daukagu [Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 29ko 179/2011 Dekretu](#) berria, familia barruko zaintzetarako prestazioa arautzen duena. Izan ere, ezartzen du onuraduna adingabekoa denean ez duela bete beharko aldez aurretik estatuan bizi beharreko gutxieneko epea. Horrez gainera, malgutu egiten ditu ahaidetasun-betekizunari dagokionez zaintzaileak bete behar dituen alderdietako batzuk, eta harrera-kasuei ere ematen die leku.

Nabarmendu beharreko neurrietako bigarrena da bultzatu egiten duela Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onartutako Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarraren Ereduari buruzko dokumentuan jasotako proposamen eta aurreikuspenak gauzatzera. Horretarako, dagozkion tresnak sortu eta egokitu beharko dira; gizarte-, osasun- eta hezkuntza-arloko sistemak koordinatzeko bide egokiak sortu beharko dira; beharrezko baliabideak ezarri beharko dira arreta 6 urteetara luzatzeko; araudi espezifikoko bat onartu beharko da Araban eta Gipuzkoan, eta dagoena egokitu beharko da Bizkaian. Horren guztiaren xedea da erasandako hurrek dituzten gabezien arriskuak prebenitzea, goiz detektatzea eta fisikoki, mentalki eta sozialki alaitz gehien gara daitezten lortzea.

Horri dagokionez, albiste ona da, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak 2011ko uztailean [150/2011 Foru Dekretua](#) onartu izana. Horren bidez, 2011. urtean estimulazio goiztiarrerako banakako laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzen dituen abenduaren 15eko 157/2010 Dekretua aldatu zen, eta jadanik arreta goiztiarra 6 urteetara luzatu zen, aurreko paragrafoan azaldutako gomendioan eskatu den bezala.

Nolanahi ere, kontuan hartuta Arabako lurralde historikoan arreta goiztiarrean izandako atzerapenen ondorioz kexa batzuk jaso ditugula eta arduratu egiten gaituela Arreta Soziosanitariorako Eusko Kontseiluaren otsailaren 28ko akordioa gauzatzeko eta desgaitasunen bat jasateko zamarekin edo arriskuarekin jaiotako haurren arloko koordinazio soziosanitarioa finkatzeko, berriki ofiziozko espediente bat ireki dugu EAE osoan arreta goiztiarra hobetzearen inguruan. Horren berri geroagoko txostenen bidez emango dugu.

### 2.2.7. Kultur jarduerak eta kirola

**Kultur jardueri** buruzko esparruan, zenbait gurasok helarazi diguten kezka bat nabarmendu dugu ia soilik: telebista-kate batzuek haur-ordutegian ematen dituzten programen ingurukoa, eta are zinemako zenbait filmen kalifikazioaren ingurukoa.

Duela urte batzuk gure *Adingabekoei balioak transmititzea* txosten berezian adierazi genuen bezala, gure adingabeek telebista asko ikusten dute, eta ordutegi askotan; are bideojokoen, Interneten edo telefonia mugikorraren kontsumoa aurrea hartzen ari zaiolarik ere. Ordutegi horietako asko haurrentzako babes berezikotzat hartzen dira; beraz, arreta handiz zaindu behar dira halako ordutegi-tarteetan ematen diren edukiak. Auzi horren inguruan periodikoki egiten ari diren jarraipenek eta azterketek, Arartekoan jarritako kexekin bat, erakusten dute ordutegi horien barruan ere ematen direla adingabeentzako desegokiak diren programak edo publizitatea, eta urratzeak nahiko ohikoak izaten direla, katearen arabera.

Erakunde honen iritziz, gainera, komunikabideek eta batez ere titulartasun publikoek ez dituzte soilik haurrentzako eduki desegokiak saihestu behar, baizik eta modu aktiboan sustatu behar dute telebista-produktuen kalitatea; horretarako, berriro diogu, beharrezkoa da arlo horren inguruan dugun gaur egungo araupetzea aztertzea, bai eta beste lurralde batzuen esperientziak eta formulak aztertzea ere, haurren eskubideak defendatzean eta, zehazki, haurrei balioak transmititzean berme handiagoa izan dadin.

**Kirolari** dagokionez, umeen eta nerabeen esparruan egindako jarduketarik esanguratsuena *Arartekoaren urriaren 27ko 6/2011 Gomendio orokorra* da, haurrek eta nerabeek egindako kirola, une oro eta edozein testuinguruan, hezkuntza parametroen arabera garatuko dela bermatzearen egokitasunari buruzkoa. Hain zuzen, kirolaren esparruan zenbait entrenatzailek adingabeekin dituzten jokabide eta jarrera batzuen inguruan hainbat forotan eta hainbat bidetatik (kexa partikularrak, gizarte- eta hezkuntza-erakundeekin egindako bilerak, adituekin egindako egiaztapenak...) adierazitako kezkaren argitan egin dugu gomendio hori. "Gehiegizkoak" izateagatik gaitzesgarriak diren jokabideez ari gara, eta, edonola ere, hezitzailetzat nekez joko ditugun jokabideez, izan ere, "pertsona mugara eramatea bere burua gaindi dezan eta bere ahalmena ustia dezan animatzeko" arrazoibidean oinarrituz, jokabide larderiazko, iraingarri eta laidogarrietan erortzen dira, neurritz kanpoko zigorrak jartzen dituzte, eta abar..

Gehienek onartzen dute, eta horrela xedatzen dute arau eta politika publikoek, adin horietako kirol-jardueraren helburuak hezkuntza duela oinarri. Kirol-diziplina bat ikastea eta diziplina horretan trebetasuna eta/edo gaitasun teknikoak garatzea baino harago doa; hain zuzen, lagungarri da neska-mutilen osoko hezkuntzarako, eta balio positiboetan oinarritutako hezkuntzan barneratzen da, garapen pertsonal eta sozial osasungarria lortzeko. Horrek esan nahi du kirol-jardueran bertan sartzen dela hezkuntza-aldagaia; eguneroko eta ohiko kirol-jarduera egiteko, zuzentzeko eta bideratzeko moduan txertatzen dira gure haur eta nerabeen osoko hezkuntzarako mesedegarri diren ereduak; balio positibo horiekin eta balio positibo horietan oinarrituz garatutako kirol-jarduera biziz bihurtuko dira gure adingabeen gaitasunen parte.



Euskal Autonomia Erkidegoan kirola eta, zehazki, eskola-adinean egiten den kirola arautzen duen arau-multzoak lehentasunezko ildo hezitzaile hori jasotzen du, eta kirol-modalitate hori egituratzen duten elementu guztietara eramaten saiatzen da. Hala eta guztiz ere, azken pausoa, onartezintzat edo behintzat gaitzesgarriztat eta, beraz, neurri batean zigorgarriztat joko diren jokabideak zehaztean, lehiaketaren uneak baizik ez ditu arautzen, eta ez du ezer esaten entrenamenduetan edo klubaren edo elkartearen barruan kirola egitean gerta dai-tekeenaz. Adierazi dugunaren beste erakusgarri bat Eusko Jaurlaritzako [Prospekzio Sozio-logikoaren Kabinetearen](#) azterlana da; hain zuzen ere, [2011ko azaroan kirolean izaten diren indarkeriazko portaerei buruz argitaratutako txostenean](#), kirol-lehiaketan esparruko gertae-rak aipatzen dira, han gertatutakoak entrenamenduetan egiten denarekin zerikusirik batere edukiko ez balu bezala.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak euskal administrazio publiko eskudunei gomendatu die, ordenamendu juridiko eta administratiboak behartzen eta/edo baimentzen dituen horretan, zehaztu dezatela zein diren jokabiderik egokienak haurrekin eta nerabeekin kirol-praktika hezitzailea behar bezala garatzeko, eta zeha ditzatela kirolak lehentasunez izan behar duen eduki hezitzaile horren aurka doazen jokabideak, une, espazio eta testuinguru guztietan aplikatuko den diziplina-araubide baten bitartez.

### **2.2.8. Ohorea, intimitatea eta norberaren irudia**

2011. urtean, beren seme-alaben ohore, intimitate eta irudirako eskubidea urratu dutela uste izan duten hainbat gurasoren kontsultak eta kexak jaso ditugu. Horietako gehienek haserrea agertzen zuten, seme-alaben irudiak baimenik gabe agertu zirelako komunikabi-deetan (hala paperezko edizioetan nola digitaletan). Beste kasuren batean salatu zuten adingabe baten irudia baimendu zen xederako ez eta beste batzuetarako erabili zutela, eta baimendutako ez bestelako eragile batzuek erabili zutela. Erakunde honen iritziz, bereziki larria izan zen bikotekidearen genero-indarkeriaren biktima izan zen emakume baten seme-alabei buruzko datuak argitaratzea.

Jakin ditugun kasu guztietan, informazioa eta irudiak komunikabide pribatuetan argitaratu dira, eta horrek zaildu egiten du Arartekoak auziari heldu ahal izatea, esku har dezakegun administrazioetako bakar bat ere tartean sartuta ez dagoenez gero. Hain zuzen, ofizialki baztertutako kexatzat hartu ditugu, nahiz eta kasurik gehienetan saiatu garen kudeaketaren bat egiten arazoa konpontzeko.

Eta hor ere jardun dugu, uste dugulako bakanak izanagatik ere (aurreko urteetan baino ge-hiago, hala ere) haurren eta nerabeen eskubideei larriki eragiten zaiela.

Arartekoak jarrera argia du horri dagokionez: Pertsona guztiak dute eskubidea beren oho-rea, intimitatea eta irudia errespetatzea. Komunikatzeko eta informazioa libreaki jaso-tzeko eskubidea, beste oinarrizko eskubide batzuekin gertatzen den bezala, ez da eskubide absolutu bat. Informazio-jarduerak beste oinarrizko eskubide batzuei eragin badiezaieke —intimitaterako edo irudirako eskubideari, besteak beste—, legitimoa izateko, betekizun

jakin batzuk bete behar ditu, hala nola egiazko edo interes publikoko informazioa izatea. Adingabekoen kasuan, gainera, modu berezian babesturik daude ohore, intimitate eta irudirako eskubideak, eta, edonola ere, adingabearen interes gorenaren printzipioa aplikatzen da egiazko informazioa libreki komunikatzeko eskubidearen muga gisa.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak](#) esku hartzeko legitimatzen du Fiskaltza, ofizios edo alderdiak hala eskatuta, baldin eta legez kontrako zerbait izan bada adingabe baten ohorerako, norberaren eta familiaren intimitatetarako eta irudirako eskubidean. Hala jasotzen du [haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Euskal Legeak](#) ere. Hala, bada, ordenamendu juridikoak ahal handia ematen dio Fiskaltzari, eta hori gatazkan dauden interes guztiak neurtuz erabili behar du. Estatuko Fiskaltza Nagusiak instrukzio bat eman zuen 2006. urtean [-Fiskalari eta adingabekoen ohorerako, intimitatetarako eta norberaren irudiaren eskubideak babesteko eskubideari 2/2006 Instrukzioa-](#), eta horren printzipio gidaria da oinarrizko eskubide horiek errespetatu daitezen sustatzea eta fiskalak orientatzea arlo horretan egin beharreko esku-hartzeari dagokionez.

Instrukzio horietan adierazi zen, printzipio orokor gisa, haurren edo nerabeen irudia zabalatzeko haien baimena beharko dela —baldin eta behar bezain heldu badira—, edo, bestela, haien lege-ordezkarien baimena beharko dela. Irudiren bat baimen hori gabe argitaratu bada, fiskalak adingabearen interesak defendatzeko ekintzak aurrera eramanez jardun ahalko du, eta, areago, adingabearen baimena baden kasuetan ere jardun ahalko du, baldin eta irudia zabaltzea haren interesen aurka badao. Begi bistakoa denez, jarduketa horrek ere baditu mugak; izan ere, edozein argitalpenek ez die kalte egiten adingabeen interesei.

Haurren eta nerabeen eskubideei eta informazioa eman eta jasotzeko eskubideari dagokionez, instrukzioek diote justifikatuta egongo dela egiazko eta interes publikoko informazioa zabaltzea, nahiz eta adingabe bati eragin, baldin eta haren interesen aurka ez badao, eta, haren interesen aurka badao, betiere haren anonimotasuna bermatzeko beharrezko bideak erabiltzen badira. Hau da, ordenamendu juridikoak babestu egiten du egiazko eta interes publikoko albisteak zabaltzea, nahiz adingabekoei eragin eta haien izenari kalte egin, baldin eta identifikatzen ez badira.

Azkenik, egia da batzuetan albisteetan adingabeen irudiak halabeharrez edo informazio nagusiaren osagarri gisa zabaltzen direla. Halako kasuetan, irudia konnotazio negatiboak dituzten lekuei, pertsoneri edo egintzei lotu behar bazaie, irudia distorsionatzeko teknikak erabili beharko dira, adingabea ezin identifikatu ahal izateko.

Argudio eta irizpide horiek erabili dira goian aipatutako gestio txikiak egiteko, eta esan behar dugu erantzunak askotarikoak izan direla.

## 2.2.9. Beste batzuk

### 2.2.9.1. “Lapurtutako jaioberriak”

2010. urtean, eta baita 2011n ere, era askotako eskariak iritsi dira Arartekora joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan jaiotako haurren ustezko lapurretei buruz publikoki salatutako egitateen inguruan. Modu partikular eta kolektiboan aurkeztu dituzte, Arartekoak iker ditzan, ondoko kexa hauek: adopzioei dagokienez alferrikako bilaketak egin dituztela osasun-artxibategietan edo gizarte-zerbitzu eskudunetan, informazio-hutsune handiak daukela zenbait historia klinikotan, hainbat paper-sorta galdu egin direla, erregistro-libururik ez dagoela hilerri batzuetan, eta abar. Alabaina, gaur egun administrazioek artxibatutako informazio hori bilatzeko lana egokiro egin ote duten egiaztatzeko jarduketaz harago, Arartekoak arlo horretan esku hartu duenean ere, egitate horiek argitzeko dei egin zaien beste instantzia batzuek aurkitu dituztenen antzeko zailtasunak aurkitu ditu. Nolanahi ere, eta kontuan hartuta egitate horiek erakunde honetan kezka berezia sortzen dutela, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaioberriak beren ama biologikoengandik bidegabe banandu edo ebatsi zireneko egintzak argitzen lagunduko duten neurrien premiari buruzko [Arartekoaren 1/2011 Gomendio orokorra](#) eman genuen ezagutzera uztailean.

Arartekoak ezin ditu ezagutu zigor-prozedura baten xede diren egitateak. Nolanahi ere, salatutako egitateen larritasunak eta garrantziak interpelatu egiten ditu Arartekoaren modura eskubideak defendatzen dituzten erakundeak; hala, ezin gara geratu zirkinik egin gabe identitaterako eskubidea, jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea eta halako eskubide garrantzitsuak urratu direla ikusita eta ustez lege-prozedurak hautsita haurren adopzioei bide eman zitzaizela ikusita. Horregatik, ebazpenaren xedea da agerian jartzea, eginbidean dauden prozedura judizialak alde batera utzita, beharrezkoa dela jarduketa zehatzak abian jartzea egitateak xeheki ezagutzeko, kaltetuei ordaina emateko neurriak proposatzea, zer arau-aurreikuspen aplikatu ziren aztertzea, garai hartatik egin diren arau-aldaketak aski ote diren baloratzea, eta, hala badagokio, lege-aldaketak proposatzea.

Azken batean, gomendioa iraganeko egitateei begira egin da, argitu dadin, bai eta etorkizunari begira ere, halakorik berriro gertatzerik izan ez dadin ordutik jarri diren eta gaur egun indarrean dauden kautelazko neurriekin.

Azkenik, adierazi behar dugu hain zuzen ere prozesu judizialean dagoelako helarazi dugula gure kezka, bai eta gomendio horretan adierazi dugun iritzia ere, urtero Fiskaltzarekin egin ditugun bileretan. Era berean, hurrengo bileretan jarraipena egingo diogu.

### 2.2.9.2. Onartzeko eskubidea

Abuztuan, [Hirukide Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioaren](#) salaketa bat agertu zen komunikabideetan, Bilboko ostalaritza-establezimendu batzuek sarrera ukatu zitelako seme-alabekin batera lokalera sartu nahi zuten pertsona batzuei. Ustez adinagatik

onartzeko eskubidea urratu zela-eta zuzenean interpelatuta, horri buruzko ikerketa bat hasi genuen, ofizioz.

Jarduketa hori amaitzeko dago oraindik, baina baiezza dezakegu ostalaritza-establezimenduen jarduera arautzen duten arloko legeek ([Turismoa Antolatzeari buruzko 16/1994 Legeak](#) establezimendu publikotzat hartzen ditu) debekatu egiten dutela edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik bereizkeriaz jokatzeari halako establezimenduetan sartzen uzteko orduan. Inguruabar horien artean sartutakotzat jo behar da adina, nahiz eta inguruabar pertsonal hori ez den berariaz jasotzen, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera. Ikus, bestalde, kontua ez dela haurrak eta nerabeak babestea —horien eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 8ko 3/2005 Legeak babesteko lituzke—, gurasoekin edo arduradunekin batera sartu baitziren.

Horrekin guztiarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak urriaren 27ko 802/2004 Epaian hartutako irizpideari jarraituz, hau da, neurria diskriminatzailea izan den zehazteko orduan bereizi egin behar dela tratu berezia justifikatua dagoen edo ez Konstituzioaren eta legearen ikuspegitik onargarri diren kausen bidez, egiaztatu behar da frogatu ote den lokalean tratu berezi hori ematea justifikatzen duten jarduerak egiten direla edo halako zerbitzuak ematen direla (legeria espezifiko batek babestuta), zer jarduera edo zerbitzu mota edo zein ordutegitan egiten den kontuan hartuta. Horri dagokionez, badirudi taberna eta kafetegiek ohikoa eta berezkoa duten jarduera ez dela berez nahikoa adingabeei tratu berezia emateko.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu, Eusko Jaurlaritzako [Turismo Zuzendaritzak](#) ohartarazi digunez, merkatuan produktu turistiko berri bat agertu dela, soilik helduentzako pakete turistikoak eskaintzea, alegia, eta hori bat datorrela sektorean gero eta espezializatuagoak diren eta merkatu-zoko segmentatuago batzuei zuzentzen zaizkien produktuak eskaintzeko joera progresiboarekin. Segmentazio horrekin bat datoz administrazio turistiko ugari, eta koherentea da [Turismoaren Mundu Erakundearen](#) aurreikuspenekin. Zehazki joera horren legitimitateari buruzko kontuetan geratu gabe, kezkarriak iruditzen zaizkigu hori justifikatzeko baliaitu diren argudioak; izan ere, haurrak gehiegitan agerrarazten dira oro har bizikidetzarako mugarik eta portaera-eredu egokirik ez duten pertsona gisa, hezkuntza-sistema permisibo baten emaitza, bai eta ondoezaren sortzaile gisa ere, zeintzuetatik urrun egotea komeni den, gozatu ahal izateko. Helduen artean bezalaxe irudi horrekin bat egiten duten haurrak (edo familiak, nahiago bada) badirela ukatu gabe, ez zaigu bidezkoa iruditzen orokortzea. Areago, gai horri dagokionez beste alderdi batzuk planteatu litezke, esate baterako, aisialdiko eredu eta alternatibekin loturikoak, haurren premiei dagokienez gure hiri eta herriek duten egituraketari loturikoak, haurren irudiari loturikoak, tolerantzia eta errespetuarekin loturikoak. Nolanahi ere, eta esan dugun bezala oraindik amaitu gabe dagoen jarduketa bat denez, emaitzaren berri geroagoko txostenetan emango dugu.

### 2.2.9.3. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak

Biktimatzat hartzea eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei arreta ematea aspaldidanik da kezka-iturri erakunde honentzat. Irudipen zabalduena da kontu honetan “dena egiteko” dagoela, hala nola diagnostikorik oinarritzkoena (zenbat haurri buruz ari gara?), zuzeneko biktimatzat hartzeko beharra (“biktima dira, indarkeria erabiltzen den sistema batean bizitzeak haien garapenean eragina duelako” tesia “erasotzen ez dieten bitartean lekuko huts dira” tesiaren aurka) eta indarkeriak banakoarengan dituen ondorioen ebidentzia. Diagnostiko hori oinarritzat hartuz, aho batekoa da beharrezkoa dela fronte guztietan aurrera egitea: sentsibilizazioa, prebentzioa, esku-hartzea, erakunde arteko koordinazioa eta abar; dena dela, onartzen da, halaber, berriki izan direla itxuraz norabide egokia erakusten duten esperientzia batzuk.

Kezka horrekin bat egiten dute beste erakunde (batez ere Save the Children-ek helarazi digu interesa), instituzio eta profesional batzuek, eta, horien eskutik, errealitate horretara hurbildu eta xeheki ezagutzeko izan dugu aukera. Hortik gure ustez esanguratsuenak diren alderdiak nabarmenduko ditugu.

- Hala estatuko genero-indarkeriari buruzko legerian (2004) nola autonomikoetan presentzia urria dute oraindik “haurren eskubideek”. Hain zuzen, entzun dira ahotsak [Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta biktima horiek arreta eta oneratze osoa izateko Lege-proiektuaren](#) gainean egindako ekarpenetan, lege osoan “haurren eskubideen” ikuspegia txertatzeko.
- Oinarritzko gabeziak bat da ez dagoela daturik eta horrek zaildu egiten duela arazoa norainokoa den zehaztea. Lurraldearen arabera oso modu desberdinean, lehen-mailako informazio-iturrietan adierazle batzuk sartzen hasi dira, genero-indarkeriaren eraginpean zenbat seme-alaba dauden jakiteko.
- Genero-indarkeriaren egoerak gertutik ikusten dituzten profesionalentzat agerikoa bada ere emakume horien seme-alabek, indarkeria horren eraginpean egote hutsagatik, ondorio “propioak” pairatzen dituztela (ikus horri buruz [Save the Children-ek egindako txostenak](#)), amak pertsona eta emakume gisa paira ditzakeenak alde batera utzita, oro har ez dira zuzeneko biktimatzat hartu ohi.
- Zuzeneko biktimatzat hartzeak esan nahi luke baloratu egingo litzatekeela etxean indarkeriaren eraginpean egotea haiengan eta haien garapenean nola eragiten ari den, eta, ondorioz, haur horien sufrimenduarentzako erantzun espezifiko egokienak egituratuko liratekeela, amekin esku-hartzeak haiengan zeharka izan dezakeen eraginaz harago. Oraindik nahiko uste zabaldua da ama oneratze hutsak ondore onuragarria izango duela seme-alaben egoeran, eta, ondore onuragarri hori eztabaidaezina izanik ere, batzuetan ez da nahikoa. Beharrezkotzat jotzen den esku-hartzeak barne hartu beharko litzuke emakumea oneratzeko jarduketak, adingabea oneratzekoak eta familia-sistema oneratzekoak (rolak, agintaritzak eta abar), ez baita arraroa hori ere nahasirik egotea.

- Zigor-arloan ez dira zuzeneko biktimatzat hartzen. Biktima emakumea da, eta, beraz, Indarkeriaren Epaitegietan (Osoko Balorazio Forentseko Unitatea) hari soilik ebaluatzen zaizkio lesioak eta ondorioak. Adingabeentzat garrantzi handia dute ezartzen diren neurri zibilek (etxebizitzaren erabilera, zaintza eta babespea, bisita-arabidea...); horretarako, Talde Psikosozialen txostenak hartzen dira kontuan. Talde horiek ezin dute beti balorazio xehe bat egin haur horien egoeraren inguruan.
- Ezagutu eta zenbait kasutan bisitatu ere egin ditugun baliabide eta programek, txosten orokorreko [Berdintasunari buruzko atalean](#) aipatzen den bezala, esku-hartze hauek agertzen dizkigute:

#### *1. Arabako Foru Aldundiko Emakumeen Batzordea:*

- ✓ Adingabeak zaintzeko baliabideak, amak haien kargu egiterik ez duenerako, arreta jasotzen ari delako, gestioak egiten ari delako eta abar. ([Lore-maitia](#) haurtzaindegia guraso bakarreko familientzat, [AGLE](#)k kudeatua).
- ✓ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta lagun egiteko programa.
- ✓ Adingabeei arreta psikologikoa emateko programa, genero-indarkeriaren biktimei arreta psikologikoa emateko programaren barrukoa (Zutitu erakundearen ardurapean): Lehenik amarekin egiten da lan, eta esku-hartzeak irauten duen bitartean, amak irizten badio adingabeei ere erasan diela tratatu egiten dira. 2010ean, 61 adingaberi eman zitzaion arreta, eta emakumeei, berriz, 500 baino gehiagori.

#### *2. Familian esku hartzeko programa, emakumeen aurkako etxe barruko indarkerian espezializatua. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familien Zerbitzua.*

Programa berritzailea da (2006an abiatu zen), haurtzaindeen profilagatik; izan ere, emakume horiek erasotzailearekin bizi dira, bai oraindik ez dutelako hartu hausteko erabakia, bai hautsi bazuten ere berriro harekin bizitzen jarri direlako eta indarkeriak bere hartan jarraitzen duelako.

Programaren **xedea** da emakume horiei espazio bat ematea hausnartzeko eta adierazteko, erabakiak hartzeko eta emozionalki oneratzeko prozesuan laguntzeko. Helburu hauek ezarri dira: segurtasun-plana egitea, autoestimua eta jabeakentza hobetzea, gizarte-sarea berrezartzea eta erasotzailearekiko mendekotasun-egoerari eusten dioten sinesteak eta jokabideak aldatzea.

**Zeharka esku hartzen da** adingabeekin, amarekin egiten den esku-hartzearen bidez, harekin esku hartzeko programaren barruan amaren esparrua kontuan hartzen den neurrian; hain zuzen, psikologia- eta hezkuntza-arloko jarraibidek ematen zaizkie, lotura indartzeko eta seme-alabei gertatzen ari denaren berri emateko.

**Adingabeekin berariaz** esku hartzea:

- ✓ Hori egiten da, haien garapenean badirelako indarkeriaren eraginaren ebidentziak, hau da, zuzeneko biktima gisa ikusten ditu programak.
- ✓ Ez da denekin esku hartzen; izan ere, banakako kasu bakoitzaren balorazioan desberdintasunak agertzen dira hainbat aldagairi dagokionez, hala nola: erresilientzia-gaitasuna, erreferentziako pertsonetikiko atxikimendua edo familia/harreman-sare zabala.
- ✓ Amak kontatutakoa oinarritzat hartuz aktibatzen da (hasiera batean, adingabeak ez dira joaten zerbitzura, ikastetxean, haurtzaindegian eta abar egon behar izaten dutelako), eta beti haren adostasunarekin.
- ✓ Ez da terapeutikoa. Tratamendu psikologikoa behar dutela jotzen bada, zerbitzu espezializatu batera bidaltzen dira.
- ✓ Programaren helburuak honako hauek dira: Jokabide oldarkorrak sor daitezen saihestea; gatazkak konpontzeko eredu positiboak ikastea; emozionalki oneratzeko eta autoestimua hobetzea; harremanetarako gaitasunak; elkarguneetako eta epaitegi-tako bisitetarako prestatzea, eta abar.
- ✓ Esku-hartzea banakako saioetan egiten da (jolasa, psikomotrizitatea, adierazpena, zinema...), eta beste baliabide batzuekin koordinatuta.

*3. Egonaldi ertain eta luzeko bizitegi-programa. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familien Zerbitzua*

Aldi baterako harrera-baliabidea (batez besteko egonaldia: bi urte inguru), emakumeen autonomia sustatzeko; horren bidez, hausnartzeko espazio bat ematen zaie, zer nahi duten eta zer egin dezaketen zehaztu ahal izan dezaten.

## Adingabeekiko esku-hartzeari dagokionez:

- ✓ Kontuan izan behar da adingabe horiek, indarkeriaren eraginpean egoteagatik pairatu dituzten ondoreez gain: bizilekuz eta herriz aldatzen direla, beste familia batzuekin bizitzen jarri direla, desagertu egin dela aitaren/ gizonaren irudia, beren etxetik "premiatz" irten behar izan dutela...
- ✓ Zeharka esku hartzen da, amaren bidez; izan ere, amarekin egiten lan: bere seme-alaben sufrimendua uler dezala; lotura indartzea, hondaturik egoten baita; eredia egiteko jarraibideak eta hazierarako trebetasunak.
- ✓ Zuzeneko esku-hartzea beti da banakakoa; psikopedagogo batek koordinatzen du, eta ondoko fase hauen arabera egiten du aurrera: 1) adingabea-

ren harrera eta egoera material eta emozionalaren balorazioa (amarenarekin batera); 2) amaren eta seme-alaben egokitzapenari, ohiturei, harremani eta abarrei buruzko behaketen erregistroa; 3) esku hartzeko banakako planaren definizioa; 4) beharrezkotzat jo den eremuetan esku hartzea (eskola-laguntza —amari bere egitekoa kendu gabe, baina bai lagunduz—, aisialdiko eta astialdiko laguntza, laguntza psikopedagogikoa —autoestimua, jokabidea aldatzea, eredu egitea—; jokabide oldarkorren prebentzioa, kontsumoen prebentzioa, eta abar); 5) irteera: unea prestatzea, lagun egitea beste baliabide batzuetara aldatzean (hezkuntza-arlokoak, osasun-arlokoak eta abar), eboluzioa baloratzea eta amari jakinaraztea.

EAEen emakumeei arreta emateko sistemaren bidez (hor egituratzen baita dagoen apurra) adingabe horiei ematen zien arretak elementu komun hauek ditu: berri samarra dela (2006tik aurrera), eta nagusiki bizitegi-baliabideetan dauden emakumeen (ez dira iristen emakumeen % 10era) seme-alabei ematen zaiela arreta eta ez hainbeste etxebizitza autonomoetan edo beren baliabideekin eta beren sare zabaletik bizi diren emakumeen seme-alabei. Horrek auzi hau pizten du: nola ziurtatuko zaien beste haur horiei harrera-baliabideetatik igarotzen direnei eskaintzen zaienaren antzeko estaldura dituzten beharrei erantzuteko. Nolanahi ere, uste dugu aurreko paragrafoetan azaldu dugun arretak balio dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren egoerak salatzeko edozein administrazio publikotara jotzen duten emakumeen seme-alabak nola ikusarazi (eta, beharrezkoa izanez gero, artatu) beharko liratekeen azaltzeko parametro gisa. Badira, bestalde, zenbait lan-esperientzia oso interesgarri tokiko esparruan edo, nahiago bada, emakumeak dauden lurraldean bertan egindakoak (ikus [Aragoiko Emakumearen Institutua](#)).

#### 2.2.9.4. LGTB neska-mutilak

Erakunde honek askotan adierazi du joera homosexuala (gay eta lesbianak) edo bisexuala edo transgenero edo transexual identitatea (aurrerantzean, *lgtb*) duten nerabe askoren egoeraren gaineko kezka; izan ere, egunero bizi dituzte familian, eskolan edo gizartean beren errealitatea ez onartzearekin eta, areago, arbuiazearekin loturiko egoerak.

Nahiz eta aurten auzi honen inguruan banakako kexak jaso ditugun, erakundeak *lgtb* pertsonen eskubideak defendatzeko lanean diharduten taldeekin duen harremanak bide ematen digu gaur egungo arazo kezkagarrienetako batzuk ezagutzeko.

Horri dagokionez, [Gehitu](#) elkarteak adierazi zigun kezkatuta zegoela, sexu-joera edo genero-identitateari dagokionez portaera desberdina duten neska-mutilek eskolan askotan babesik aurkitzen ez zutelako. Elkartea, jazarpen homofobikoaren biktima ziren adingabe batzuen gurasoek hainbat salaketa ipini zituztela eta, hasia zen arlo horretan lanean, eta Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, zeuden protokoloak hobetzeko, bai eta irakasleak eta ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak prestatzeko ere.



*Rainbow* proiektua aurkezteko [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin](#) egindako bilera batean, kezka horien berri eman genion, eta, horrez gain, adierazi genion beharrezkoa zela neurriak hartzea, irakasleek auzi horren gainean zuten ezagutza hobetzeko eta eskolako jazarpenari aurre egiteko zeuden protokoloen aplikazioa hobetzeko, jazarpen homofobikoaren aldagaia ere kontuan hartuta, zenbaitetan oharkabean pasatzen baita helduen artean. Bilera horren ondotik, jakin dugu [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak](#) eskola-jazarpenaren aurkako protokoloan jazarpen homofobikoa detektatzeko tresnak gehitzea planteatu duela aniztasun afektibo-sexuala kudeatzeko lan-planean, eta, horrez gain, irakasleekin prestakuntzaren ildoan lan egitea proposatu duela, ikasgeletan halako kasuak hobeto detektatzeko.

Arartekoarentzat, lehentasunezko helburua da hezkuntza-erakundeek beharrezko estrategiak jorratzea, eskola leku ziur bat izan dadin, non adingabeei joera sexuala eta genero-identitatea modu aske eta bete-betekoan garatzeko babesa bermatuko zaien. Uste osoa dugu eskola gizarteratzeko eta balioak transmititzeko eragile nagusietako bat dela, eta, beraz, erakunde honek lehentasunezkoztat dauka ahalegina egitea ez soilik jazarpen homofobiko eta transfobikoa ikusarazteko eta jorratzeko, baizik eta baita aniztasun afektibo-sexualak dakarren aberastasuna aitortuko duen eta sexu-joeraren eta genero-identitatearen aniztasuna erabat onartuko duen gizarte bat lortzeko oinarriak haurtzarotik ezarriko dituen hezkuntza-mota bat garatzeko ere. Helburu horiek lortzea izan da urteetan material didaktikoak prestatzeko egin den lanaren xedea; 2011n, lan horren erakusgarri garrantzitsue-*na Rainbow* proiektua izan da —horren berri 6.4. puntuan emango dugu—.





## GOMENDIOEN JARRAIPENA





### III) GOMENDIOEN JARRAIPENA

Arartekoak urtez urte jarri du arreta berezia beren eskubideak arrisku berezian dituzten haur eta nerabeen sektore edo taldeetan, egoera ahulagoan dauden taldeetan. Eusko Jaurlaritzarentzako urteko txostenetan aurkeztutako informazioaren zati garrantzitsu bat, haurrei eta nerabeei dagokienez, egindako txosten berezien jarraipena izan da.

Apirilean, *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txosten berezia aurkeztu genuen (horri buruz xeheki jardungo dugu txosten honetako V. kapituluan). Horren helburu nagusia da azken hamalau urteetan Arartekoak haurrei eta nerabeei buruz egindako txosten berezietan aztertutako errealitateak biltzea eta izan duten eboluzioari behatzea. Azken txosten horretan, txosten berezi haietan egindako berrehun bat gomendio haien berrikuspen xehatu bat egin da. Kontuan hartuta berriki aurkeztu dela, bidezkotzat jo dugu zentzuzko denbora-tarte bat pasatzen uztea, dagokien administrazioek beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak har ditzaten, iradokitako doikuntzak eta aldaketak egin ditzaten, eta, azken batean, aurrera egin ahal izan dadin gomendioetan proposatutako bidean. Hala, 2011. urtean ez da aurkeztuko *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txostenean jasotako gomendioen jarraipenari buruzko informaziorik (aldi berean orain arte egindako gomendioak biltzen dituen), babesik gabe dauden haurrentzako arretari buruzko adierazle nagusiei buruzko informazioa alde batera utzita; izan ere, joerak —batez ere bakarrik dauden adingabe atzeritarrei dagokienez— azkar aldatzen dira, eta komenigarri iritzi genion informazioa eguneratuta edukitzeari. Horri buruz informazio zehatza eman dugu aurreko kapituluan.

Bestalde, aurten hurrenez hurren 2009an eta 2010ean argitaratutako bi txosten berezitako gomendioen jarraipena egiten hasi gara: *Adingabekoei balioak transmititzea* txostena eta *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan* txostena. Horri buruz hurrengo orrialdeetan jardungo dugu.

#### 3.1. Adingabekoei balioak transmititzea

Arartekoaren *Adingabekoei balioak transmititzea* txosten berezia 2009ko azaroaren 25ean aurkeztu genuen Eusko Legebiltzarrean. Txosten horretan, nagusiki, honako hau aztertzen da: gure erkidegoko adingabekoei zenbateraino hartzen dituzten beren gain oinarrizko balio batzuk, horietako asko bizikidetzari eta giza eskubideekiko errespetuari lotuak, bai eta gizar-te-eragileek balio horiek transmititzeko eta eraikitzeko zer indar, pisu eta eragin duten ere.

Txostenak hainbat oinarrizko balio azpimarratzen ditu, bereziki:

- Ezberdintasuna onartzea; zehazki, sexuaren, jatorriaren, etniaren, ezgaitasunen edo sexu-joeraren arabeko ezberdintasunak onartzea.
- Gure adingabekoen ideietan eta jokabideetan indarkeriak duen presentzia.
- Ingurumenarekiko errespetua eta zaintza...

Erakunde honi dagokion eskubideen defentsaren ikuspegitik, txostenak zortzi kontu jo zituen kezkarrietzat:

1. Ezberdintasunarekiko intolerantzia adierazpen argiak, sexismoa, arrazakeria, xenofobia edo homofobia bidez adieraziak.
2. Kontrabaliu jakin batzuen zabaltzea eta pisua.
3. Eskubideak gutxi errespetatzen dituzten jokaerak edo jokabideak zabaltzea.
4. Hainbat bilakaera ezkor oinarriko balioak finkatzeari, erantzukizunari edo bestee-kiko errespetuari dagokionez.
5. Hezkuntza funtzioa betetzen ez duten familiak egotea.
6. Teknologia berrien eta komunikabideen gehiegizko erabilera edo erabilera kaltegarriak.
7. Eskolak balioak transmititzean zeregin mugatua duen arren hezkuntza sisteman hezteko erantzukizun guztia uzten jarraitzen dugunaren antzematea, beste agente batzuen arreta alde batera utziz, hala nola, familia edo teknologia berriak eta komunikabideak.
8. Hainbat nerabek ETAre indarkeria terroristaren aurrean duten jarrera.

Txostenak elementu baikor asko ere azpimarratzen zituen. Horrela, adibidez:

- Adingabeek, oro har, familiari, irakasleei, lagunei... dagokienez azaldu duten asetasun maila altua.
- Terrorismoaren biktimekiko azaldu duten babes maila altua.
- Ingurumenarekiko kontzientzia nahiko zabaldua, behintzat alderdi teorikoan.
- Zaurkortasun egoera jakin batzuen aurrean adierazten duten solidaritatea (hala nola, ezgaitasunari dagokionez).
- Teknologia berrien erabilera maila, harremanetarako eta ikasteko beste modu gisa.
- Eta, orokorrean -eta ziurrenik haxe izango da garrantzitsuena-, txostenean aztertutako alderdi edo baloreen aurrean, pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrerak eta ezberdintasunaren aurrean jarrera irekiak eta onargarriak dituztenen proportzio handia.

Txostena hogei gomendio eginez amaitzen da. Hain zuzen, gomendio horiek hartzaileen arabera egituratzen dira: gizarte osoa eta gizarteko erakundeak, familiak, komunikabideak, hezkuntza-sistema...

Jarraipena egiten hasteko eta txostenean jasotako gomendioen ildoari zenbateraino ekin zaion jakiteko, azaroan informazioa eskatzeko idazki bana bidali genien auziak zuzenen eragiten zien hiru administrazio hauei: [Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari](#) (aurrerantzean, Hezkuntza Saila); [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari](#) eta [Kultura Sailari](#).

**Hezkuntza Sailari**, gure gomendioetako gehienak **hezkuntza-sistemari** zuzenduta zihoa-zen aldetik, honi buruzko informazioa eskatu genion:

1. Tutoretza-lana: tutoretza-ekintzarako irakasleek dituzten laguntzak: laguntza horiek eskuratzeko moduak; irakasleen esku dauden metodologiak, materialak eta baliabideak; prestakuntza zehatza (ikastaro kopurua, plazak eta eskaria 2011. urtean).
2. Herritasunerako hezkuntza: curriculum akademikoan kokapena eta edukia; ezarpena: maila eta zailtasunak; irakasleentzako laguntza baliabideak –prestakuntza moduluak, material didaktikoak, erreferentziazko pertsonak...-; helburuen aurreikusitako ebaluazioa.
3. Euskal hezkuntza sisteman esperientzia aitzindariak edo praktika onak, honi buruzkoak:
  - a. Irakasleen eta familien arteko lankidetzaren balioen transmisioari dagokionez.
  - b. Eskolako dinamikan edo euren komunitatean adingabeen parte hartzea eta ardura.
  - c. Metodologia kooperatiboak.

Txosten hau amaitu genuen unean, ez genuen informazio hori jaso izanaren berririk.

Txostenak guztiz argi agertzen duen beste kontu bat da **familiak** pisu handia duela balioen transmisioan. Nahiz eta erronka handia izan erakundeentzat familia bezalako eremu pribatu batean eragitea, erakunde honek uste du familiei beren eginkizun sozializatzaile eta hezitzailean laguntzeko ahalegin oro, zalantzarik gabe, haurren eta nerabeen eta, azken batean, beroriek partaide diren gizartearen mesedetan izango dela.

Gomendioen jarraipena egiten hasi ginen unean, Eusko Jaurlaritzako **Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** —familia eta komunitate arloko politikaren arduraduna— *Haur eta Nerabeen I. Plana* eta *Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana (2011-2015)* egiten ari zen (azken hori 2011ko abenduaren 27ko Gobernu Kontseiluaren bileran onartu zuten). Horregatik, informazioa eskatu genion sail horri, bi planak egiteko orduan Arartekoaren gomendioak, bai erakunde guztiei zuzendurikoak eta bai familiei

buruzkoak, kontuan zenbateraino hartu ziren jakiteko. Bestalde, gomendioak betetzeko zer ildo estrategiko eta zer jarduketa zehatz aurreikusi zituen ere galdetu genion.

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, erakunde arteko bi planen sustatzaileak, bere erantzunean hau adierazi zuen: *familiekin sentsibilizazioa eta prestakuntza landuz eta beharrezko tresna eta baliabideak eskainiz lan egitearen alde egin dugu, hezkuntza eta balioen transmisio egokia bermatzen saiatzeko, bai eta erantzukidetasunean oinarritutako garapen pertsonal bete-betekoa bermatzen saiatzeko ere.*

**Familiei Laguntzeko III. Planaren** lau ildo estrategiko handietako bigarrenak bost helburu handi ezartzen ditu. Laugarren eta bosgarren helburuek erakunde honek bere gomen-dioetan planteatutako kontuetako zenbait jorratzen dituzte. Hala, Planak hauxe ezartzen du helburu gisa: *herritarren kontzientzia sustatzea, erantzukidetasunari, familien barruko harreman arduratsuei eta familian izateko, bizitzeko eta sentitzeko esperientzien aniztasunarekiko errespetuari dagokienez.* Kanpainak eta programak eratzea ere aurreikusi da, hainbat ingurunetatik bateragarritasunaren eta erantzukidetasunaren inguruan sentsibilizatzeko, prestatzeko eta informatzeko, (eskola inklusiboa, gizarte-zerbitzuak, familiak, osasuna), bai eta balioen, aniztasunaren eta abarren inguruan sentsibilizatzeko, prestatzeko eta informatzeko ere.

Ezari den beste helburu batek —*familia-proiektuak garatzeko behar diren guraso-eskumenen garapena indartzea*— alderdi hauek barne hartzen ditu: zaintzaileak prestatzeko programak, gurasotasun positiborako tresnen eta programen garapena, arrakala digitala eta ICTen arriskuak saihesteko programak, aitatasun aktiborako eta erantzukidetasunerako programak, familiei arreta psikosoziala emateko zerbitzuak eta abar.

Sailak sustatutako bigarren plana, *Haur eta Nerabeen Erakunde arteko I. Plana* —prestatzen ari ziren txosten hau idazten ari ginenean—, lau ardatzen inguruan egituratu da: sustapena, prebentzioa, babesa eta parte-hartzea.

Sustapenaren ardatzean, **“Eskubideak eta betebeharrak” kanpainari** eustea aurreikusi da; hain zuzen, sailak jakinarazi duenez, adingabekoen eskubideak zabaltzeko eta sustatzeko garrantzia nabarmentzen du, erantzukidetasun pertsonal eta sozialaren ikuspegitik.

Bestalde, prebentzioaren ardatzean, honako hau proposatzen da: balio positiboetan oinarritutako hezkuntza lantzea, berdintasuna eta tratu ona sustatzea, aisialdia modu hezigarri eta integratzailean erabiltzea, gurasotasun positiboa lantzea...

Bi planek agertu dute erakunde publiko guztiak inplikatzeko beharra, eta erakundeen eta gizarte-sektorearen artean lana modu koordinatuan egiteko beharra —haur eta nerabeen planaren kasuan—.

Kontuan hartuta dokumentu horiek 2011. urtekoak direla, ezin ditugu oraindik aurreikusitako lanaren emaitzak ebaluatu; izan ere, 2012. urtean hasiko dira garatzen, eta ordutik aurrera jadanik baloratu ahal izango da zer garapen izan duen. Nolanahi ere, erakunde honek oso



positibotzat dauka haurren eta familien arloko jarduketak planifikatzeko lana. Gure gomendioetan adierazi izan dugun bezala, plan edo konpromiso publikoak izateak ugaritu egiten ditu Administrazioaren jarduketak sozialki kontrolatzeko aukerak, eta arlo horretan jardutea errazten die eskubideak kontrolatu eta defenda ditzaketen eta kontrolatu eta defendatu behar dituzten erakundeei. Era berean, plan horietan jasotako ebaluazioaren aurreikuspenak ikusita, baikor gara etorkizunean haren eraginkortasunaren eta efizientziaren inguruan egingo den balorazioari dagokionez.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako **Kultura Sailari** informazioa eskatu genion, txostenean adierazten zelako balio klasikoak sozializatzeko edo transmititzeko eragileekin batera (familia, eskola-ingurunea, berdinen taldea) komunikabideek edo teknologia berriek gero eta indar handiagoa dutela, eta EITB sail horri atxikitako erakunde publiko bat delako.

Txostena ikusita, ondorioztatu daiteke Euskadiko haurrek telebista erruz ikusten dutela, hainbat ordutegitan. Horietako asko haurrak bereziki babesteko ordutegiak dira. Horrek esan nahi du ordutegi horietan eskaintzen diren edukien hautapen arduratsua egin behar dela. Dena den, gai horren inguruan aldiari-aldiari egiten diren ikerketek frogatu dute ordutegi horien barruan ere adingabeentzat desegokiak diren programak edo iragarkiak eskaintzen direla.

Telebistako produktuen kalitatea da hain zuzen ere Ararteko erakundeak dituen kezketako bat. Erakunde honen aburuz, komunikabideek, titulartasun publikoa dutenek bereziki, desegokiak diren edukiak saihestez gain, telebistako produktuen kalitatea modu aktiboan sustatu behar dute. Hizpide dugun txostenak agerian utzi du gizarte komunikabideek duten garrantzia sexuen arteko berdintasuna, desberdintasunen onarpena eta errespetua (jatorria, etnia, sexu-joera...), indarkeriaren erabileraren gaitzespena, ingurumenaren zaintza, etab. bezalako balioak transmititzerakoan.

Bestalde, txostenean honako hau ere aipatu zen: ezarritako legebiltzarreko parte-hartze, kontrol edo jarraipen organoen erregulazioan ez dela inolako berariazko erreferentziarik egin haurren eskubideen babesaren inguruan eta ematen duela legeak organo horientzat ezarri dituen antolaketaren eta funtzioen barruan eginkizun horiek sartzea zaila dela. Dena den, txostenaren gomendioetan beste zenbait formula aipatu ziren, hala nola, zenbait autonomia erkidegotan sortutako ikus-entzunezko kontseiluak. Horien eginkizunen artean, haurren eskubideen babesa berariaz gaineratu da. Horri esker, ikus-entzunezko kontseilu horiek nolabaiteko aukera daukate zenbait arlotan esku-hartzeko eta irizpideak ezartzeko –programazioaren ikus-entzunezko seinaleztapena, adingabeei buruzko datuak zabaltzeko zuhurtasuna, ordutegi jakin batzuetan zenbait eduki emateko debekua...-. Horrez gain, hori betetzen dela bermatzeko mekanismoak ere dituzte –ikusatzeko, arautzeko eta zigortzeko boterea, programazioari buruzko azterlanak eta ikerketak egiteko ahalmena...-.

Hedabideei buruz txostenean agertzen diren hiru gomendioak direla eta, honako informazioa eskatu zen:

1. EiTBn, haurrak eta nerabeak bereziki babesteko ordutegietako programazioa eta iragarkien irizpideak aldi berean behin berraztertzeko mekanismoak ezartzeari dagokionez aurrerapenak egin diren.
2. EAE osoan edo zati batean programak ematen dituzten komunikabideentzako (hala nola, tokiko telebistak) araudi zehatza ezartze aldera, aurrerapenak egin diren edo aurreikusi diren.
3. Zein neurritan hartzen den kontuan komunikabideek, zenbait balioen igorle gisa, duten garrantzia programazioaren edukiak aukeratzeko, bai eta edukiak hautatzeko erabiltzen diren mekanismoak ere.
4. Bizikidetzeta eta errespetuari buruzko oinarritzko balioak sustatzen dituzten eta haurrei eta nerabeei zuzenduta dauden berezko materialak ekoiztu diren edo ekoizteko aukera aurreikusi den.
5. Arlo horren erregulazioan aurrerapenak egin diren edo aurreikusi diren –lehen aipatutako ikus-entzunezko kontseiluen ildoan–, haurren eskubideen babesean berme handiagoa lortze aldera, zehatz-mehatz, haurrei igorritako balioei dagokienez.

Txosten hau amaitu genuen egunean artean ez genuen informazio hori jaso izanaren berririk.

### **3.2. EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan txosten bereziaren jarraipena**

2010eko apirilaren 10ean, [EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan](#) txosten berezia aurkeztu genion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari, eta geroago, 2010eko ekainaren 23an, euskal ganberako Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari aurkeztu zitzaion.

Txostenean, erakundeek nerabeen kontsumoaren errealitate horri nola erantzuten dioten aztertzen da, horri buruz azken urteetan gure erkidegoan egin diren azterlan ugarietako datuak abiapuntutzat hartuz.

Bertan, argiro nabarmentzen dira behintzat hobetzeko beharra duten bi arlo handi:

1. Esparru horretan lan egiten duten instantzia guztien arteko koordinazioa.
2. Prebentzio selektiboaren garapen handiagoa, berariaz arrisku edo zaurgarritasun bereziko egoeretan dauden nerabeen sektore jakin batzuentzat.

Txosten bereziaren jarraipena egiten hasteko, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari alderdi hauen gaineko informazioa eskatu genion:

- Berriki onartutako *EAEko 2011-2015 aldirako Drogen Mendekotasunari buruzko VI. Planari* dagokionez (Gobernu Kontseiluaren 2011-12-13ko erabakia), txosten berezian jasotako 21 gomendioetako zein sartu diren planean, zenbaterainoko estaldurarekin edo indarrarekin sartu diren eta zein neurri eta/edo jarduketaren bidez zehaztu diren.
- Txostenean hobetu beharrekotzat jo ziren bi arlo handiei dagokienez, alderdi hauei buruzko informazioa eskatu genion:
  - o Hitzarmenak, protokoloak, organoak eta erakunde arteko edo gizarte-sarekiko koordinazioa hobetzeko garrantzirikotzat jotzen zituen beste edozein jarduketa, 2010eko urtarriletik gaur egunera arte egindakoak.
  - o Zenbat gastu bideratu den 2010. eta 2011. urteetan prebentzio selektibora, hala programa eta zerbitzuen zuzeneko kontratazio bidez, nola gizarte-ekimenekin loturiko hirugarren sektorearen jarduerak sustatuz, euskarri ekonomiko publiko hori duten proiektuak identifikatuta.

Txosten hau amaitu genuen egunean artean ez genuen informazio hori jaso izanaren berririk.



IV

## TXOSTEN BEREZIAK

aRarteko



## IV) TXOSTEN BEREZIAK

2011. urtean hiru txosten berezi egin dira. Urtarrilean, *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoaren* inguruan egin genuen ikerketaren berri eman genuen, eta ekainaren amaieran, *EAE nortzeraren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* txostena aurkeztu genuen. Bi kasuetan uler dezakegu txostenaren analisiaren xedea hurrei eta nerabeei ere badagokiola, baina, talde horri buruzko berariazko erreferentziak oso urri direnez, interesa duten pertsonak txosten orokorreko V. atalera edo txosten horietara igortzen ditugu.

Txostenetako hirugarrenak, aurrekoek ez bezala, haurrengan jartzen du arretagunea, zehazkiago beren eskubideak arrisku handiagoan dituzten haur eta nerabe jakin batzuen egoeretan. Txosten honetako ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu kapitulu honetan.

### 4.1. Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak txosten berezia

Txosten hau bi ezaugarri bereizten dute beste txosten berezietatik. Hasteko, Arartekoak bere balibideekin egin du oso-osorik, zehazki Hurrei eta Nerabeei Arreta Emateko Bulegoan sartuta dauden Arartekoko langileek. Bestalde, ez da hainbeste ikerketa berri edo zehatz baten emaitza, baizik eta Arartekoan urte askoan hainbat egoeraren inguruan egindako jarraipen-lan etengabearen emaitza. Egoera horiek denek izendatzaile komun bat daukate, ezaugarri partekatu bat: hurrei eragiten diete, eta, batez ere, eskubide aldetik ahulen diren hurrei eta nerabeei. Hortik izenburua: *"Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak"*.

Haur eta nerabe guztiak, dituzten ezaugarri bereziengatik, arrisku berezian dauden biztanleriaren sektore bat dira. Gure kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urtetik beherako biztanleria osatzen duten 158.000 neska eta 167.000 mutilak, zenbaki biribiletan. Denak, hala izate hutsagatik. Alabaina, multzo horren barruan, arrisku-egoera berezietan dauden taldeak edo sektoreak bereiz daitezke eta bereizi behar dira.

Urte hauetan, Arartekoak lehentasunezko arreta eman izan die egoera txarretan edo premia berezikoetan dauden haur eta nerabeen sektoreei: arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak, babeserako gizarte-zerbitzuetan hartu direnak (ia 2.000 azken urteetan); bakarrik dauden atzerritar adingabeak (azkenaldian, 1.000tik gora urteko); adingabe arau-hausleak (1.000-1.200 inguru azken urteetan); desgaitasunei loturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak (12.000 inguru gaur egun), familiaren egoera sozioekonomikoari (zailago da zenbatzen) edo jatorriari (20.000 etorkin baino gehiago) edo etniari (ia 4.000 ijito inguru) loturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeak (10.000 ingururi ematen zaie arreta urtean); droga-kontsumo problematikoak dituzten nerabeak (kopuru asko aldatzen da adinaren, sexuaren edo substantziaren arabera); eskola-jazarpena pairatzen duten adingabeak (hemen ere oso aldakorrek dira kopuruak, baina milaka eskola-umeri eragiten die)...

Begi bistakoa da haurrei eragiten dieten arazoak ez direla hemen bukatzen, badirela horiek bezain garrantzitsuak diren beste egoera batzuk ere. Arartekoak horiei eman dien arreta ez da izan hain sistematikoa, baina bai esanguratsua: joera homosexuala (lesbianak eta gayak) edo bisexuala eta transgenero edo transexual identitatea duten adingabeen egoera, genero-indarkeriaren egoeretan tratu txarrak pairatutako haurrak, teknologia berrien erabilera txarraren edo gehiegizkoaren ondoriozko arriskuak, komunikabideetan adingabeei emandako tratamendua... Sektore horiek, egoera horiek ere jaso dira txosten honetan; nahiz eta ez zaien jarraipen sistematizaturik egin urteetan zehar, ikusarazi egin nahi ditugu, eta jendeari arduraturik aurkeztu.

Hasieran esan dugun bezala, haurren arloan egindako aurreko txosten berezietan alde handiena da honako honetan sektore bakoitzari buruzko ikuspegi sintetikoago, globalago bat eman nahi dugula, ez hain zehatza; funtsean, eboluzio-ikuspegi bat (ez une jakin batekoa), zertan aurreratu den, zerbaitetan atzera egin ote den edo oraindik hobetzeko zer dagoen nabarmentzeko modua emango duena... Horrez gain, egoera guztietan sortzen diren harremanak aztertu nahi izan ditugu, horietako askok batean izan ditzaketan arazoak.

Beraz, **sintesi-txosten bat da**. Hemen, etengabe aipatzen dira gaur arte Arartekoak haurrei buruz argitaratu dituen ia txosten berezi guztiak edo haurrei berariaz eskainitako atalak dituztenak, eta lortutako informazioa aprobeztatu nahi izan dugu, urtez urte horietako bakoitzaren inguruan egindako jarraipenak baliatu.

Aukera horrek baditu bere **arriskuak**, eta baita **mugak** ere. Hala, esate baterako, oraingoan nahiago izan dugu aurreko txosten monografikoen luzera, sakontasuna eta zehaztasuna bera alde batera utzi, argitasunaren eta laburtasunaren mesedetan, eta are, beharbada, dibulgazio-balio handiago baten mesedetan. Halaber, erabilitako informazio-iturriak albat gehien murriztu nahi izan ditugu. Funtsean, erakundean bertan erabilgarri ditugun iturriak soilik erabili ditugu. Horri dagokionez, aipatu behar dugu aztertutako informazioaren denbora-muga 2009ko abendua dela; izan ere, txostena 2010ean zehar egin dugu. Ohar horrek badu garrantzia; izan ere, errealitate batzuk oso azkar aldatu dira ordutik, eta ez beti orduan erakusten zuten joerei jarraituz.

Hemen, Haur eta Nerabeen Bulegoaren jarduketak aurkeztean, sektore bakoitzaren errepaso txiki bat egingo dugu: lehendabizi, oinarriko zenbait datu, funtsezko arazo batzuk eta gomendio edo hobetzeko proposamen batzuk nabarmenduko ditugu, eta, ondoren, ikuspegi orokorrago bat emango dugu, hala arazoena nola txostenak eskaintzen dituen balizko irtenbide bateratuena.

**Arrisku edo babesgabezia larrian dauden adingabeei** buruzko daturik esanguratsuenen artean, nabarmentzekoa da azken hamabost urtean hirukoiztu egin dela gizarte-zerbitzuek haurrei bigarren mailako arreta emateko ireki dituzten urteko espedienteen kopurua. Arlo honetan dauden arazoaren edo hobetu beharreko alderdien artean, Arartekoaren ikuspegitik, lau hauek dira bereziki esanguratsuak:

- Familiekin egiten den esku-hartzea hobetzeko eta instituzionalizazioaren alternatiba guztiak indartzeko premia.



- Erakundeen eta zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko beharra (batez ere tokiko eta foru esparruen artean).
- Jokabide- edo osasun-arazo larriak dituzten nerabeentzako “zentro berezien” problematikari arreta berezia jartzeko beharra, gero eta gehiago baitira halako zentroak.
- Adingabeek eta haien familiek esku hartzeko bideak sustatzeko beharra.

Gomendioak (9 espezifiko kapitulu honetan) hobekuntza horiek lortzeko asmoz egin ditugu, nahiz eta beste kontu batzuk ere ematen dituzten aditzera, hala nola erreferentziako tutorearen figura, gizarte-txostenen kalitate teknikoa, prozedurak egitea edo hobetzea, eta abar.

Arrisku edo babesgabezia larrian dauden adingabeen artean, arreta berezia jarri behar diegu **bakarrik dauden atzerritar adingabeei**. Sektorre hori ia ez zen existitzen duela urte gutxi batzuk arte, eta oso denbora gutxian aldatu egin du babesik gabeko adingabeentzako bizitegi-baliabideen sarea.

Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, arriskuan dauden biztanleen artean sektore horri eskaini behar izan dio dedikazio gehiago Arartekoak azken urteetan. Txostenean aitortzen da handia izan dela erakundeek harrera-baliabideak sortzeko egin duten ahalegina, nahiz eta lurraldeen artean alde handia izan. Alabaina, oraindik ere arazo asko dago konpontzeko. Arartekoak 2008. eta 2009. urteetan egindako esku-hartzeak aztertuta, ikusiko dugu alderdi hauekin lotuta egon zirela: adina zehazteko probekin, hezkuntzarako, defentsarako edo entzunak izateko zuten eskubidearekin, zentro jakin batzuen kokapena baztertzarekin, er-kidegoen arteko lekualdatzeekin, tutoretzak hartzeko betebeharra ez betetzearekin...

Gomendio espezifikoek dagokienez, azterlan honetan hiru nabarmendu dira. Beharrezkoa dela:

- Oinarrizko akordio bat lortzea administrazioen artean adingabeen harreraren arloan.
- Hiru lurralde historikoetarako harrera-protokolo bateratu bat izatea, adina zehazteko prozeduran bereziki eraginda.
- Bide ematea defentsa juridikoa behar bezala baliatzeko, batez ere babes-erakundeen erabakien eta adingabeen euren interesen artean gatazka sortzen denean.

**Delituren bat egin duten eta neurri judizialak ezarri zaizkien adingabeei** dagokienez, txostenean jaso diren datuen arabera, 12 urtean bilakaera hau izan da: 1998an 140 neurri hartu ziren, 2001ean 400 baino gehiago —urte horretan sartu zen indarrean [Adingabeen Erantzukizunari buruzko Legea](#)—, eta 2009an, berriz, 1.200 baino gehiago. Ingurune zabalako neurriak guztizkoaren % 70 baino gehiago dira, eta barneratze-neurriak lautik bat dira. Gehikuntza horren ondorioz, jakina, handitu egin behar izan da arreta emateko baliabideen sarea.

Arlo honetako alderdi kezkarrienen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Adingabe asko eta asko babes-sistemetatik datozela.
- Errealitate berriak agertu direla edo ugaritu direla, hala nola bakarrik dauden atzeritar adingabeak edo familian delituak egiten dituztenak (seme-alabek gurasoekin indarkeriaz jokatzeari).
- Osasun mentalaren arazoekin eta/edo toxikomaniarekin loturiko jokabideak.
- Delitu horien biktimak, horiek ere adingabeak, ehuneko handi bat direla.

Gazte Justiziaren Sistema hobetzeko, zazpi gomendio espezifiko egin ditugu, batzuk oso orokorrak (hala nola gaur egungo arau-esparrua bere potentzialtasun osoan aplikatzea eta zerbitzuen arteko lankidetzaren hobetzea), eta beste batzuk oso zehatzak, hala nola ofiziozko txanda hobetzea, adingabeentzako polizia-bulego espezifikoak ezartzea eta medikazioaren erabilera eta kontrola hobetzea.

**Hezkuntza-premia berezi edo espezifikoak dituzten ikasleei** dagokienez, txosten honek bost azpikapitulu ere eskaintzen dizkie: bat desgaitasunen bati loturiko premiei, beste bat gizarte-egoera ahuleko ikasleei loturiko premiei, beste bat ijito-herriko ikasleei loturikoei, beste bat sasoiko langileei loturikoei eta beste bat etorkinei loturikoei. Horietako bakoitza bere ezaugarri espezifikoekin aztertu da, baina denak ikuspegi berberarekin: abiapuntuko desberdintasunak konpentsatzea; gizarteratzeko bidean al bait gehien laguntzea. 35.000 ikasle baino gehiagori buruz ari gara —hau da, eskolatutako biztanle guztien % 10-11 inguru—, txostenean “gizarte-egoera ahuleko” gisa agertzen den taldea kontuan hartu gabe, eta banaketa oso desberdina da ikastetxeen artean.

Zorionez, euskal hezkuntza-sistemak duela urte asko egin zuen eskola-integrazioaren aldeko apustu irmoa, edo, nahiago bada, inklusioaren aldekoa. Eta horri baliabide eta programa ugari eskaini izan dizkio eta eskaintzen dizkio. Eskolatzeko datuak eta eskolako arrakastari eta porrotari buruzko datuak, ordea, ekitaterik ezaren zantzu nabarmenak agertzen dituzte, eta, erakunde honen iritziz, gainditu beharra dago hori. Hori horrela, sektore bakoitzaren kasuistikan sartu gabe, txostenak 8 gomendio espezifiko egiten ditu alderdi hauen inguruan: konpentsazio, detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako neurriak ezartzea, familiekin lankidetzan aritzea, ebaluatzea, aniztasuna izatea profesional-taldeetan ere, arkitektura-oztopoak behin betiko kentzea.

**Haurren eta gazteen osasun mentalaren** arloan, eta aurkeztutako kexekin eta egindako jarraipenekin bat etorritik, txostenean funtsezkotzat jotzen diren hiru alderdi nabarmentzen dira:

- Arazoen detekzio eta arreta goiztiarra, larriagotu aurretik.
- Baliabide eta sistemen arteko koordinazio-arazoak, maiz erantzuteko ahalmena oztopatzen baitute.

- Adin-tarte jakin batzuetarako (esate baterako, 16-18 urte) edo premia jakin batzuetarako baliabide eta programen urritasuna.

Eta, ondorioz, berriro ere nabarmendu nahi ditugu osasun-sistemari egindako gomendioetako batzuk, hala nola adingabeek baimena jakinaren gainean emango dutela bermatzeko, haurren arretari lehentasuna emateko, osasun-sistemaren eta gainerako sistemen arteko koordinazioa hobetzeko, adingabeen osasun mentaleko arazoei ematen zaien erantzuna hobetzeko eta adingabeen osasunerako eskubidea zenbateraino aplikatzen den “neurtzeko” jarraipen-elementu gisa osasun-adierazle jakin batzuk erabiltzeko gomendioak.

**Eskola-eremuko bizikidetzari** dagokionez, egindako jarraipenak hein berean ditu argiak (esate baterako, arau-esparruari edo protokoloen existentziari dagozkionak) eta ilunak (esate baterako, urtez urte berdinen artean mantentzen diren eskolako jazarpenaren eta tratu txarren datuei dagozkienak). Alde horretatik, sei gomendio azpimarratu ditugu, hala nola:

- bizikidetzara-arauek egiteko eta aplikatzeko parte-hartzea sustatzea.
- Ikasleen familiekiko lankidetzara hobetzea.
- Jardunbide onak ezagutzea eta zabaltzea.
- Bizikidetzara-planen eta beste tresna batzuen burokratizazioa saihestea.
- [Eskubideen eta Betebeharren Dekretua](#) aplikatzeko jarraipen sistematikoa egitea.
- Eta, era berean, dauden protokoloen aplikazioen jarraipena egitea (esate baterako, berdinen arteko botere-abusuaren edo bullyingaren ondoriozko tratu txarrena).

Azkenik, txostenak atal espezifiko bat eskaintzen dio errealitate ez oso ezagun bati: **nerabe homosexualen (lesbianak eta gayak), transexualen eta bisexualen problematika**. Oraindik ere intolerantzia, gaitzespena eta homofonia badirela agertzen duten datuekin batera, Arartekoak 2008an abian jarritako foroan agerian geratu zen hezkuntza afektibosexuala oraindik ere konpondu gabeko arazo bat dela gure eskola-sisteman, eta baita beste sistema batzuetan ere; horrek bide ematen du bereizkeriaz jokatzeko eta jendeak oro har horren berri ez jakiteko, eta zaildu egiten du sexu-aniztasuna onartzea. Egoera hori gainditzeko, hezkuntza-sistemari hiru gomendio espezifiko egin dizkiogu, batzuk oso orokorrak eta beste batzuk zehatzak: aniztasun afektibosexualari buruzko plan bat, horri heltzeko modua antolatu eta sistematizatuko duena; jarduketa konkretuak aniztasuna ikusarazteko eta homofobia erazteko; haur eta nerabe *lgtb*-entzako tutoretzak.

Honaino, txostenean aztertutako sektore edo egoera batzuen errepaso txikia, ezinbestean laburra eta alderdi batzuk azpimarratzera mugatua. Auziari heltzeko modu horrek —sektorez sektore edo egoeraz egoera—, ordea, hainbat muga edo arrisku ditu, eta komeni da hori ez ahaztea: ez du ahalbidetzen ikuspegi global bat, egoeren artean izaten diren harremanak, horien artean batzuetan izaten den jarraipena eta gehiago edo gutxiago partekatzen dituz-

ten arazoak agerrarazi eta nabarmenduko dituen. Areago, bide eman dezake pentsatze-ko elkarrekin loturarik ez duten egoerak direla, elkarren artean inolako loturarik ez duten adingabeen taldeak direla. Baina hori ez da hala. Kasu askotan, gaur harrera-zentro batean dagoen nahiz eskola utzi duen edo eskolan porrot egiten ari den haur edo nerabe berbera bihar barneratze-zentro batean aurkituko dugu, edo aurrerago berriro arrisku-egoera berezi batean aurkituko dugu. Horrek agerian uzten du badirela benetako bazterketa-zirkuitu edo -bideak, horietako asko adingabeak hazteko eta bere premietarako oinarrizko euskarri eta laguntza gisa familiarik ez izateari lotuak edo familiak horretarako gaitasunik ez izateari edo soil-soilik porrot egin izanari lotuak.

Azterlanak honako honi erantzun nahi dio “begirada” horrekin: Badira arazo komunak, egoera batzuetan eta besteetan errepikatzen direnak? Zeharkako elementu-sorta moduko bat, alegia, aztertutako sektore guztiei edo askori eragiten diena eta adingabe horien premiei ematen zaien erantzuna baldintzatzen ari dena. Hala, agerian geratu da badirela errepikatzen diren elementu kezkarri batzuk, adingabeekin egoera horietan egiten den esku-hartzearen izendatzaile komun moduko batzuk; kontu kezkarriak dira ikuspegi bermatzaile batetik, hobetu beharrekoak eta benetako erronka direnak, hala pertsona horien eskubideak defendatzeko nola esku-hartze eraginkorrako bat lortu nahi badugu.

Sistema publikoek arrisku-egoera berezian dauden adingabeen premiei erantzuteko dituzten ahultasunak edo mugak dira horiek; dena dela, ez dira ahaztu behar auzi honetan oso garrantzitsuak diren beste elementu batzuk —giltzarriak aztertutako egoera askotan—, edo faktore estruktural jakin batzuk, kasu asko eta askotan arrisku-egoeren sustraian baitaude. Bereziki esanguratsuak iruditzen zaizkigun bost ahulguneak honako hauek dira:

- 1<sup>a</sup> *Zerbitzu espezializatuen eta ohiko laguntza-sareen arteko harreman- eta erantzukizun-arazoak.*
- 2<sup>a</sup> *Administrazio edo sailtako zerbitzu eta erakundeen arteko koordinazio-arazoak.*
- 3<sup>a</sup> *Esku hartzen duten elementu guztien erantzukizuna argiro mugatuko duten eta baliabideek bete beharreko prozedurak edo betekizunak ezarriko dituzten arau-esparrurik ez izatea edo eskasa izatea.*
- 4<sup>a</sup> *Plangintzarik ez izatea, eta, batez ere, esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko bide emango duen ebaluazio publikorik ez izatea.*
- 5<sup>a</sup> *Agertzen ari diren edo azkar hazten ari diren premiei erantzun egokiak emateko zailtasunak.*
- 6<sup>a</sup> *Erresistentzia hala konpentsazio-neurriak hartzeko (ekitatea xede dutenak) nola prebentziokoak hartzeko (ghettoak sortzea edo finkatzea saihestuko dutenak).*
- 7<sup>a</sup> *Detekzio eta arreta goiztiarraren arazoak.*

8<sup>a</sup> Irteera- eta emantzipazio-programen ahultasuna.

9<sup>a</sup> Informazioaren tratamenduan konfidentzialtasuna bermatzeko irizpide argirik edo mekanismorik ez izatea.

10<sup>a</sup> Herritar guztien artean zabalduko den haurren eskubideen kulturarik ez izatea.

11<sup>a</sup> Adingabeen eskubideak defendatzeko eta bermatzeko gaur egungo tresnen mugak.

Kausa edo ahultasunen analisi hori baliozkoa bada:

- Errotik atera beharko dira halako egoeren jatorrian dauden kausak (beraz, prebentzioa hobetu beharko da).
- Zerbitzu espezializatuen eta ohiko sare edo sistemen arteko lankidetzak hobetu beharko da.
- Saihestu egin beharko da halako egoeretan esku hartzen duten administrazioen eta zerbitzuen arteko deskoordinazioa.
- Esku-hartzeak planifikatu beharko dira, sistematikoki ebaluatu, eta, emaitzen arabera, beharrezko aldaketak sartu.
- Hobetu egin beharko da, azkartasun eta egokitasun aldetik, egoera “berriei” ematen zaien erantzuna.
- Konpentsazio-neurriak hartu beharko dira egoerarik okerrenetarako.
- Konfidentzialtasuna bermatu beharko da datuen tratamenduan.
- Arrisku-egoera berezian dauden adingabeekin esku hartzeko fase guztietan hobetu beharko da, batez ere hasierako faseetan (detekzioa, neurriak hartzea) eta azkeneko faseetan, emantzipatzeko eta gizarteratzeko bide ematen baitute.
- Arrisku-egoera berezietan dauden adingabeekin esku hartzen dutenen erantzukizunak eta jarduketa-esparruak argitu beharko dira, eta baldintza hobeak eskaini profesionalen lanerako.
- Gizartearen sentsibilizazio edo kontzientzia handiagoa lortu beharko da haurren eskubideen inguruan.
- Adingabe horien eskubideak defendatzeko eta bermatzeko tresna eraginkorragoak izan beharko dira.

Eta arazo edo disfuntzio hauexei heltzen saiatu gara txosteneko **gomendio orokorrenetan**:

- Haurren eskubideen gaineko gizarte-kontzientzia indartzea eta zabaltzea.
- Parte hartzeko, entzuna izateko eskubidea praktikan jartzea.
- Familiei laguntzea, adingabeei dagokienez dituzten funtzioak egoki gara ditzaten.
- Hobeto argitzea erakundeen erantzukizunak eta haurrei arreta emateko hirugarren sektorearen egitekoa.
- Erakundeak gidari izatea beharrezko baliabideak sortzeko eta defendatzeko orduan.
- Lortutako emaitzak sistematikoki eta publikoki ebaluatzea.
- Zerbitzu eta profesionalen arteko koordinazioa hobetzea adingabeekiko esku-hartzeetan koherentzia handiagoa izango dela bermatzeko bide eraginkor gisa.
- Konpentsazio-politikak segregazioaren edo estigmatizazioaren aurkako neurriekin uztartzea.
- Ahultasun-egoerak eta horien eboluzioa aldian-aldian aztertzea.

Txosten hori 2011ko maiatzaren 3an eman genion Legebiltzarreko lehendakariari, eta, egun horretatik aurrera, Arartekoaren ohiko harreman-sarean banatu zen, eta, zehazki, haurren esparruan lanean diharduten erakunde/entitateen artean. Horretan sakonduz, maiatzean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Haurren Arloko Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-erakundeak bilera batera gonbidatu genituen, txostenaren diagnostikoa eta gomendioak aurkezteko eta kontrastatzeko. Horren emaitza ekarpen interesgarri batzuk izan ziren. Hain zuzen, ekarpen horiek kontuan hartu ditugu dokumentu honen II. kapituluko edukiak lantzeko orduan.



V

**GURE HAUR ETA NERABEEN AHOTSA:  
ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA**



ararteko





## V) GURE HAUR ETA NERABEEN AHOTSA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

[Haurren Eskubideen Hitzarmenak](#), [Nazio Batuek](#) 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010eko ekainaren 25ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen lehenengo Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

[Haur eta Nerabeen Kontseilua](#) neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili izan diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta babesteko edo neurri judizialak betetzeko bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 12 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

2011. urtean hiru bilera presentzial egin dira, bi Arartekoaren Gasteizko egoitzan eta bestea Bilbon. Bilera presentzialak beti eskola-ordutegitik kanpo egiten dira, eta kontseilariak teknologia berrien erabilerari esker etxean egiten duten lanarekin osatzen dira: proposamenak helbide elektroniko bidez bidaltzen dituzte, kontseilariekin komunikatzeko foro pribatu bat sortu da, eta abar.

Kontseiluaren funtzionamenduak eskola-egutegiari jarraitzen dio; hala, 2011. urteko azken bilera 2011/2012 ikasturteko lehenengo bilera izan zen. Hori izan zen lehenengo bilera kontseilua lehenengoz berri ostean sartu ziren zazpi kontseilari berrientzat ere; izan ere, kontseilua, kontseilariak berek hala iradokita, partzialki berritzen da.

Hurrengo paragrafoetan laburki azalduko dugu 2011ko saioetan egindako lana.

– 2011ko otsailaren 4ko bilera

Bileraren gai nagusia euskal nerabeen droga-kontsumoa izan zen: 2010eko apirilean argitaratutako *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan* txosten berezia erreferentzia izan zen, bai gure berriemaileei helarazi genizkien galdesortak egiteko, eta bai bildutako informazioa egiaztatzeko. Oraingo honetan, inkestagile bihurtzera gonbidatu genituen, eta, hala, beren iritzia eta 12 eta 18 urte bitarteko beste neska-mutil batzuen bildu zuten beren eguneroko errealitatean egiten den drogen erabilerrari eta kontsumoari buruz. Kontseilariak beren kideen eta lagunen iritzia jaso zuten, topaketa pertsonaletan, elkarrizketetan edo Tuenti gizarte-sarearen bidez.

Egindako inkesten emaitza —41 guztira— azaltzea izan zen bileraren abiaburua, eta horri buruz oso eztabaida aberatsa eta interesgarria izan zen. Geroago, inkestetan bildutako informazioa eta bileran azaldukoaren emaitza jasotzen zituen dokumentu bat bidali zitzaizen kontseilariari, eta eskatu zitzaizen osa zitzatela proposamenak, Arartekoak kontseiluarentzat prestatu zuen Interneteko foro pribatuaren bidez.

Bai galdesortarako eta bai bilerarako erabilitako metodologiak —ikustea, epaitzea, jardutea— hiru fase ezartzen zituen: lehenengoan, helburua zen besteak beste jakitea nerabeek gehienbat zer substantzia kontsumitzen dituzten, genero aldetik desberdintasunik ba ote den kontsumoan edo kontsumitzen hasteko adinean; bigarren fasean, kontseilariari eskatu zitzaizen azal zitzatela beren ustez zein ziren kontsumitzeko arrazoiak eta balora zezatela substantzia toxikoak kontsumitzeak dakartzan ondorioen eta arriskuen inguruan jasotzen duten informazioaren kalitatea; azkenik, neska-mutilei eskatu zitzaizen egin zitzatela gehiegizko kontsumoaren egoera hobetzeko proposamenak edo “prebentzio-eragile” gisa beren parte-hartze aktiboarekin zerikusia zuten proposamenak.

Erabilerei eta kontsumoei buruz eman zuten informazioa guztiz bat zetorren metodologia zorrotzagoa duten azterlanen datuekin, hots:

- Kontsumitzen diren hiru substantzia nagusiak alkohola, tabakoa eta cannabisa dira. Genero aldetik izan daitezkeen aldatetei dagokienez, gehienei iruditzen zaie ez dagoela alde esanguratsurik alkohol eta tabako kontsumoari dagokionez neska-mutilen artean, eta cannabisa, gehienbat, mutilek kontsumitzen dutela.
- Parte-hartzaile gehienek iritziak, kontsumitzen hasteko adina, behintzat alkohola eta tabakoa, 13-14 urteak izaten dira. Bigarren hezkuntzara igarotzea, neska-mutil zaharagoekin kontaktuan egotea eta asteburuetan irteten eta jaietara joaten hastea inguruabar esanguratsuak dira kontsumitzen hasteko.
- Jaietan —zaindarienak zein beste edozein arrazoiengatik ospatzen direnak (azterketak amaitzeagatik, esate baterako)— kontsumitzen da alkoholik gehiena; areago,

“mozkortzeko asmoz” irteten da. Ohiko asteburuetan alkohola kontsumitzen da, baina askoz ere neurri handiagoarekin. Alkohola lortzea erraza da, ez baita zailtasunik izaten supermerkatuetan eta tabernetan lortzeko (edo adinez nagusi den lagunen bati eskatzen zaio laguntza); asteburu "normaletan" tabernan kontsumitzen da, eta kalean, helburua mozkortzea bada.

- Alkohola kontsumitzeko arrazoiei dagokienez, adierazi da eragin deshinibitzaile eta euforikoak dituela eta dibertsioari lotzen zaio (“*alkoholik gabe pasa dezakezu ondo, baina edaten baduzu seguru pasatuko duzula ondo*”). Kontsumitzeko beste arrazoi garrantzitsu bat berdinen taldeak onartzea izaten da. Alde horretatik, adierazi da maiz edaten duten pertsonak autoestimatu txikiagoa izaten dutela, eta, beraz, lagunen presioak errazago eragiten diela.
- Tabakoa kontsumitzeko arrazoiaren artean, bi aipatu dira, antzeko proportzioan: batzuek, arrazoi gisa, besteengandik bereiztea eta nagusiarena egitea edo nabarmendu nahi izatea aipatu dituzte, eta beste batzuek, berriz, taldeak egiten duena egitea eta baztertuta geratzeko arriskurik ez hartzea aipatu dute oinarrizko arrazoi gisa. Jabetzen dira tabakoak adikzioa sortzen duela.
- Cannabisari dagokionez, berriro ere dibertsioa eta sortzen dituen ondorio atseginak aipatu dituzte. Berriro ere, kontsumitzeko arrazoi gisa taldearen onospena, nabarmentzeko nahia eta esperimendatzea aipatu dira. Cannabisaren kasuan, kontsumitzeko indar handiagoa du arazoetatik ihes egin nahi izateak (arazoak ahaztea, ezkutatzea) eta arauak hautsi nahi izateak, agintea dutenekiko eta arauak ezartzen dituztenekiko errebeldiaren adierazle gisa.
- Uste dute badutela aski informazio substantziek gorputzean dituzten ondorioei buruz eta hartzen dituzten arriskuei buruz; dena dela, kasu batzuetan adierazi dute informazioa azalekoa edo osatugabea dela eta hobetu litekeela. Ez dute berriaz informazio gehiago edo hobe eskatu. Adierazi dute ezagutzen dituztela arriskuak, baina ez dituzte behar beste baloratzen (“*hori beste batzuei gertatzen zaie... zopazopa eginda doazen horiei...*”, “*hainbeste ere ez dut edaten...*”).
- Ikastetxetik heltzen zaie informazio gehiena drogei eta drogen arriskuei buruz, eta ez dute zalantzan jartzen ematen dieten informazioaren kalitatea. Hitzaldi teorikoen bidez jasotzen dute informazioa, eta zenbaitetan urtero errepikatzen da informazio hori; beraz, ez dira sentitzen oso interpelatuak. Kasuren batean, oso esperientzia interesgarritzat jo dute egoera kezkarrietan ekiteko jarraibide praktikoei buruz eman zieten informazioa (esate baterako, zer egin lagunen bat mozkor-mozkor eginda dagoenean edo konortea galdu duenean...). Halaber, berdinen taldea ere ezagutza-iturri garrantzirikotzat jo dute, baina ez dute argiro adierazi informazio hori fidagarria ote den.

Droga-menpekotasunaren prebentzioa hobetzeko proposamenei dagokienez, honako hau iradoki dute:

- Ikastetxeetako hitzaldietan ondorioak erakuts daitezela, eta, batez ere, nabarmendu dadila norberari gerta dakiokela.
- Gehiago hitz egin dadila bizipen eta esperientzia pertsonalei buruz, substantziei eta horien ondorioei edo arriskuei buruzko informazio neutroaz baino.
- Eman dadila nahasketei eta ondorio bereziki kaltegarriei buruzko informazioa, hain kaltegarri ez direnak aukeratzeko, eta, hala, gorputzari al bait kalte gutxien egin ahal izateko.
- Familian naturaltasunez hitz egin ahal izan dadila gaiari buruz. Nagusiek beren esperientzia kontatu ahal izan dezatela, haiei ere gertatu baitzaizkie gauzak.
- Familian konfiantza lantzea.
- Uste dute zaila dutela "prebentzio-eragile" bihurtzea, arrazoi hauengatik: talde berruan bazaude, ez duzu behar besteko distantziarik gertatzen dena ikusteko, jabetzeko; zail ikusten dute beren aholkuekin beste pertsona batzuegan eragitea (kontuan izango al dute?, haien erabakia da, haien bizitza); ez baduzu aurkitzen aurre egiteko modu egokia, lagunen bat gal dezakezu.
- Adierazi dute batzuetan beharrezkoa dela giroz edo lagunez aldatzea, beste dibertsio-modu bat aurkitzea eta ondo pasatzeko edatea eta erretzea ez den beste moduren bat bilatzea.

### – 2011ko maiatzaren 13ko bilera

Urteko bigarren bileran, 2010/2011 ikasturteko azkenekoan, bi kontu jorratu genituen. Lehenik eta behin, gizarte-sareen erabilera arduratsu eta ziurrari buruzko material didaktiko bat, Arartekoari argitaratzeko eta zabaltzeko proposatu ziotena, interes, erabilgarritasun, formatu eta egokitasun aldetik baloratu genuen. Ondoren, bileraren muinari heldu genion: Kontseiluaren jardunaren ebaluazioa, lehenengo esperientzia-urtearen ostean. Gogoeta egin eta Arartekoari kontseiluaren etorkizunaren inguruko erabakiak hartzen laguntzeko ekarpenak egin ahal izan zitzaizten, aurrez galdesorta bat bidali zitzaizkien kontseilariari, eta hainbat elementu balora zitzaizkien eskatu zitzaizkien.

Bileran sortutako eztabaidan, denak ados azaldu ziren kontseiluaren tamainari zegokionez (12 neska eta mutil), ikuspegi aniztasunaren eta funtzionatzeko konplexutasunaren artean oreka onargarria gordetzen duen neurrian.

Sexuen eta lurralde-proporzionaltasunaren arteko orekari dagokionez, denek nabarmendu zuten beharrezkoa dela mutilen eta nesken ordezkariak parekidea izatea. Ez zuten hain ezinbestekotzat jo lurralde historiko bakoitzeko biztanleriari dagokionez proportzioa gordetzea (Bizkaiko 6, Gipuzkoako 4 eta Arabako 2), baina ez zioten gaizki iritzi ere. Beste aldagai bat gaineratu zuten: hiriguneen eta landaguneei zegokienez ikuspegi askotarikoak biltzea komeni zela.

Adin-tartea handitzeko aukerari buruz, adierazi zuten horrek, teorian behintzat, iritzi-aberastasun handiagoa ekarriko duela. Nolanahi ere, nabarmendu zuten zaila dela 10 urteko eta 17-18 urteko neska-mutilek interesgune bertsuak aurkitzea. Adin-tartea urte bat luzatzearen alde agertu ziren, hots, batxilergoko edo heziketa-zikloko 1. mailara arte; izan ere, urte hori —derrigorrezko hezkuntza uzten den urtea— jauzi kualitatibo interesgarria da kontseiluan egoteko.

Orobat, garrantzizkotzat jo zuten parte hartzen esperientzia pixka bat izatea; beraz, egoki iruditu zitzairen izangaiak dinamika horiek martxan dauzkaten ikastetxeetan bilatzea.

Urtean zehar izandako funtzionamendua ere oso modu positiboan baloratu zuten, bai bileren antolaketari eta garapenari zegokionez, eta bai bilera horietan erabilitako metodologiari zegokionez.

Kontseilua berritzeko mekanismoei dagokienez, gehienak partzialki berritzearen alde agertu ziren; izan ere, haien ustez, hori mesedegarria da batzuek besteengandik ikasteko, jende sartu berriaren aire berriei leku eginda, eta aldi berean, zenbait dinamika eta ohitura finkatzen dira. Kontseiluko kideak partzialki berritzeko irizpidea honako hau izan liteke: dena delako arrazoiengatik beste urte batez jarraitzerik ez duen jendearen berezko mugimendua aprobetxatzea. Edonola ere, iritzi zitzaion Kontseiluan gehienez bi urtez egon beharko litzaitekeela. Halaber, egoki iritzi zitzaion beste ikastetxe batzuei parte hartzeko aukera ematea eta ikastetxe bakoitzeko pare bat pertsona hautatzeko irizpideari eustea (lagunduta sentitzeko, kontrastatzeko eta abar).

### — *2011ko azaroaren 12ko bilera*

2011. urteko azken bilera, esan bezala 2011/2012 ikasturteko lehenengoa, Bilbon egin genuen, eta hori lehenengo kontaktua izan zen zazpi kontseilari berrientzat.

Bilera ohikoa baino luzeagoa izan zen, larunbat goiz osoa erabili baitzen, eta hizketagaia parte-hartzea eta teknologia berriak izan ziren. Arartekoa txosten berezi bat egiten ari da, *e-inklusioa eta herritarren parte-hartzea eremu sozial eta publikoan Euskadin IKTen bidez* izenekoa. Horretarako, hainbat eremutako pertsonen parte-hartzea bilatzen ari da (gizarterakundeak, administrazio publikoa, unibertsitatea eta abar), eta, jakina, nerabeen iritzia ere jasoko du, segur aski testuinguru batzuetan jadanik deitzen dituzten bezala, benetako *berezko digitalak* baitira.

Hiru ordu eta erdiz, kontseiluko gure neska-mutilek imajinatu, pentsatu eta *serio jokatu* zuten [CTIC Fundazioko](#) taldeak egindako proposamenera; hain zuzen, txostena egiteko lan-saioak dinamizatzen ari da fundazio hori. Proposamen metodologikoa honetan zetzan: hainbat dinamika sortzaile erabiltzea herritarren parte-hartzeari bide emateko eta teknologia berrien gainean gogoeta eta proposamenak egiteko (mapa mentalak egitea eta Lego Serious Play —horren bidez, Legoko piezak erabiliz, ideiak sortu eta askotariko pentsamenduak eraiki daitezke—). Eskatu zitzairen ez ziezaiotela soilik orainari begiratu, baizik eta,

batez ere, imajinatu, amestu zezatela etorkizunean nola parte hartu nahiko luketen eremu sozial eta publikoan eta hor zer eginkizun izango duten teknologia berriek.

Zalantzarik gabe, urteko bilera guztien artetik saio horretan ikusi zen, modu agerikoenean, gure neska-mutilek erabateko protagonismoa zutela eta errespetuz eta emozioz entzun zituztela bileran parte hartzeko pribilegioa izan zuten Arartekoko pertsonak. Zinez aberasgarria izan zen entzutea nola imajinatzen duten etorkizuneko gure gizartea: ICTak pertsonen zerbitzura egongo diren beste tresna bat gehiago izango dira, eta, hala diren aldetik, emango diegun erabileran egongo da aldea, zertarako erabiliko ditugun. Konfiantzarekin hartzen dituzte, mundu hobea batekin egiten dute amets ("*munduak denontzako etxea izan behar du, denok egon behar dugu bertan gustura, berdina*"), baina ez dira xaloak eta inozoak dauden arriskuei dagokienez.

Uste dute informazio gehiago eskuratzeko aukera emango digutela, eta horrek bide emango digula gure iritzia hobeto oinarritzeko; maite ditugun pertsonetikiko komunikazioa erraztuko digutela, distantzia traba izan gabe; eredu edo modu berriak ekarriko dizkigutela lan egiteko, gestioak egiteko, eguneroko zereginak erosoago egiteko; kontsumitzaileak enpresa ekoizleetara gerturatuko dituztela eta herritarrak ekintza politiko eta legegilerara; ingurumena gehiago zaintzen lagunduko digutela... Baina horrek guztiak ezingo dio, ez dio kendu behar baliorik aurrez aurreko eta hurbileko harremanen beroari: "*orduak ere joango gara lagunen etxera afaltzera*", "*urrun dauden pertsonak hurbilduko dizkigu, baina ezin zaizkigu ahaztu hurbil daudenak*".

Jabetzen dira ICTak gehiegi edo zitalki erabiltzen badira arazoak sor daitezkeela, eta balioa ematen diote mundu birtual hori ere pribatutasuna, errespetua eta abar zainduko dituzten arau adostu batzuen arabera erabiltzeari ("*denok zaindu behar dugu jartzen duguna*"). Baina hori badakite eta ez da hori gehien kezkatzen dituen kontua. Goragokoa da haien ikuspegia.

Beldur dira ICTak ez ote diren izango gizartea bananduko duen beste elementu (eta indartsu) bat: "*...gizateria bananduko duena: munduaren zati batean, teknologia aurreratua izango da; bestean, teknologiaren premia; batzuek nahi dutena izango dute, eta beste batzuek borroka egin beharko dute nahi dutena lortzeko*"; "*punta-puntako teknologia oso garestia da oraindik ere; beraz, aberatsenek baizik ez dute lortuko*"; "*Internetek hobetzeko modua eman dio sarbidea duenari, baina pertsona batzuek ez dute sarbiderik eta horrek eskubideak galtzea dakar eta desberdintasuna sortzen du*".

Bileraren azken zatia Eusko Jaurlaritzaren egiten ari den *Haur eta Nerabeen I. Plana* aurkezteko erabili zen. Hain zuzen, plan hori egiteko kontseilarien laguntza eskatu zuten. Neska-mutil guztiei galdesorta bat banatu zitzaienten, eta laguntza eskatu zitzaienten galdesorta beste kide batzuei helaraz ziezaien eta parte hartzera anima zitzaienten.

VI

**HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO  
KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK**

ararteko





## VI) HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DITUEN KULTURA BAT SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

### 6.1. Gizarte-eragileekiko lankidetzatza

Arartekoak, eta zehazkiago Haur eta Nerabeen Bulegoak, dokumentu honetako lehenengo kapituluari adierazi bezala, bere jarduketara ildoen artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari. Bai haien eskubideak jendarteratuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera arazoetan dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzatza-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan, informazio-eskaerak eta abar.

[UNICEF](#), [Save the Children](#) eta [Amnesty Internationalekin](#) egindako alde biko bileretan, helburutzat hartu da haurren eta nerabeen errealtatearen inguruan elkar aberastea, bai eta lankidetzarako ildoak, arloak eta proiektu zehatzak aztertzea ere. Horietako batzuk aipatzearen, adieraziko dugu Unicefen Hiri Adiskideak programa adingabeen beren eremurik hurbilenean ahotza emateko apustu serio bat iruditzen zaigula, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben errealtatearen gaineko kezka [Save the Children](#)-ekin konektatzeko lotura garrantzitsua izan dela, eta, gisa berean, babesik gabe dauden adingabeentzako zentro terapeutikoen egoeraren gaineko kezka [Amnesty Internationalekin](#) konektatzeko.

Informazio eta Komunikazio Teknologien eremuan, segur aski adingabeek tresna horiek modu seguruan erabil ditzaten erakunde honek egin duen sustapen-lanaren ondorioz, hainbat modutara aritu gara elkarlanean [Komunikazioaren Teknologiaran Institutu Nazionalarekin](#), [EDE Fundazioarekin](#), [Protégeles Elkartearekin](#), Euskal Autonomia Erkidegoko kolaboratzailearekin, [Espainiako Safer Internet Centre](#) elkartearen kudeatzailearekin eta Europako Batzordeak sustaturiko haurren zibersegurtasunaren gaineko erreferentzia-zentroarekin, [CTIC Fundazioarekin](#), eta abar.

Dagokion arloak desgaitasunen bat duten pertsonen elkarteekin eta federazioekin egin dituen bileren osagarri, harremanetan egon gara Fekoor-ekin eta arreta gabezia eta hiperaktibitatea duten haurren terapeutekin, eskuarki keza edo kontsulta baten ondorioz.

Jadanik aipatu dugun *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txosten bereziaren aurkezpen eta zabalkundeak —haurren eta nerabeen munduari loturiko Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte guztiei bidali genien— bide eman zigun maiatzean Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Haurren Arloko Kontseiluan ordezkatutako erakundeekin errealtate hori kontrastatzeko ([AVAIM](#), [APNABI](#), [IRSE](#) Araba, [EGK-ko Astialdi Foroa](#), Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargoa, Psikologoaren Elkargo Ofiziala, [Hirugarrendar Kaputxinoak](#), Unicef). Zati handi batean babesik gabe dauden haurren errealtateari

buruz jardun bagenuen ere, desgaitasunen bat duten adingabeez edo diagnostiko azpiklinikoa duten portaera-nahasmenduez ere aritu genuen.

Aurreko kapituluari aipatu dugun Haur eta Nerabeen Kontseilua berritzeko prozesuaren ondorioz, berritzeguneekin, zuzendaritzekin, irakasleekin eta gurasoekin ditugun harremanak berritu edo ezarri behar izan ditugu; modu berean, foroetan, jardunaldietan eta biltzarretan parte hartzearen ondorioz, harremanetan egon gara haurren arloko beste erakunde batzuekin —[Haurren Erakundeen Plataforma](#)— eta ikerketa-taldeekin —[Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua](#)—. Azken atal honetan, eskola-jazarpenari buruzko estatuko ikerketa-talde batekin izan dugun kolaborazioa nabarmendu behar dugu. Hain zuzen, artikulua hau idatzi dugu: *Begirada bat eskolako jazarpenari, ikuspegi bermatzaile batetik: Arartekoak eskolako tratu txarren inguruan egindako jarraipena*.

## 6.2. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko espazioak eta uneak. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua, Gizarte Gaietako sailburuordea eta Enplegu eta Prestakuntzako sailburuordea.
- Eusko Legebiltzarreko Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Kontseiluko Idazkaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako ahalduna eta Haur eta Gazteen zuzendaria.
- Hiru foru aldundien Gizartekintza / Gizarte Politika sailtako haurren zerbitzuetako arduradunak (+ zenbait zerbitzu, programa eta baliabidetako arduradunak).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familien Zerbitzuko arduraduna (+ zenbait programa eta baliabidetako koordinatzaileak).
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko arduradunak
- Eusko Jaurlaritzako Justizia zuzendaria eta Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduraduna (+ zenbait programa eta baliabidetako arduradunak).
- Justiziarekiko Lankidetzarako Zerbitzuko eta Zigor Arloko Bitartekaritza Zerbitzuko arduradunak.

- Talde psikosozialetako koordinatzaile nagusia eta koordinakundeak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, Hezkuntza sailburuordea eta Kabinete zuzendaria.
- Hezkuntza Saileko Ikuskaritza.
- Hezkuntza Berriztatze zuzendaria (+ Eskola 2.0 Programaren arduradunak).
- Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako fiskalburuak.
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendaria.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol zuzendaria (+ Eskola Kiroleko arduraduna).
- Lehen mailako arreta ematen duten gizarte-zerbitzuetako koordinakundeak eta/edo arduradunak: Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Enkarterria, Elgoibar, Tolosa, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia.

Bilera horietako batzuen esparruan edo hain zuzen ere horien ondorioz, Arartekoak lehen eskutik ezagutu ahal izan ditu politika publikoak eraginkor bihurtzeko plan, protokolo, estrategia eta bestelakoen proposamenak; horrez gainera, erakunde eskudunei iritzia eskatu ahal izan die egoera kezkarri jakin batzuen inguruan —arretaren premia duten behar gisa azaldu zaizkie—, eta esku hartzean ezinbesteko eskubideak bermatu behar direla zehaztu. Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana, Haurren I. Plana, III. Gazte Plana nahiz bakarrrik dauden atzerritar adingabeei premiazko harrera egiteko protokoloa dira jardura horren erakusgarrietako batzuk.

Herriaren **beste defentsa-bulego** batzuetako haur eta nerabeen atalekin eskuarki izan ohi ditugu harreman eta kontaktuak; beraz, orain, modu bereizian aipatuko ditugu aurten horietako batzuekin izandako bilera garrantzitsuenak:

- Truke Jardunaldia Kataluniako [Síndic de Greuges](#) erakundearekin.
- [Madrilgo Komunitateko Adingabeen Defentsa Bulegoarekin](#) batera egindako ikerketa, babesik gabe zeuden frantziar nazionalitateko bi anaia adingaberen egoeraren ingurukoa.
- [Andaluziako Herriaren Defentsa Bulegoarekin](#) egindako ikerketa, babesik gabe zeuden Andaluziako adingabe baten egoera administratiboari buruzkoa.
- 2012ko Defentsa Bulegoen Koordinazio Jardunaldiak prestatzea, haurren eta gazteen osasun mentalari dagokionez.

- **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO)** barruan Haurren Sarea formalki eratzea.

### 6.3. Ekitaldietako parte-hartzea

Hala elkarte eta erakundeekin izandako elkarlanaren esparruan, nola Arartekoak berak gidatu dituelako, Arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeen gaineko foro eta topaketetan esku hartu dute, bai gure erkidegoan eta bai gure erkidegotik kanpo. 2011n izandako parte-hartze esanguratsuenak, dokumentu honetan orain arte aipatu gabeak, honako hauek izan dira:

- ✓ *Oinarrizko Eskubideak eta Autonomia Erkidegoak* Jardunaldi Akademikoak, Palma de Mallorca.
- ✓ Unicefen Nazioarteko XII. Mintegia (Nazioarteko Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko Unibertsitate Masterraren barruan). *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aplikazioa*.
- ✓ Hitzaldia Badaia institutuan, Langraiz Okan.
- ✓ Konferentzia [El Sitio](#) elkartearen, Bilbon.
- ✓ *Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen oraina eta geroa: denon erronka*, Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Familia Ugarien V. Euskal Kontseilua, Donostia.
- ✓ *Dibortzio Egoeretan Gurasoen Erantzukidetasunari buruzko II. Jardunaldiak*, Vitoria-Gasteiz.
- ✓ Genero Indarkeriari eta berdintasunari buruzko X. Jardunaldiak: *Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta ematea*, Vitoria-Gasteiz.
- ✓ [Zerbitzu Ikasketa Solidarioari buruzko I. Biltzarra](#): *Hiritartasuna praktikatzuz*, Portugalen.
- ✓ Deustuko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Workshop Mintegia: *Arriskuan edo zaurgarritasun-egoera berezian dauden adingabeak: esku hartzeko jardunbide onak*, Bilbo.
- ✓ Espainiako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aplikazioaren jarraipen Jardunaldiak: *Haurren Eskubideen Batzordeak 2010ean Espainiari Azken Oharrak egin eta urtebetera egindako balorazioa*, Madril

#### 6.4. Material didaktikoak eta ikastetxeekiko kolaborazioa

Erakunde hau, sortu zenez geroztiko hogeitau urte luze hauetan, etengabe aritu da haurrak beren eskubideen inguruan sentsibilizatzeko eta ezagutarazteko material didaktikoak egiten eta zabaltzen.

2011. urtean, hainbat material argitaratu dira, eta EAEko lehen hezkuntzako ikastetxe guztietan banatu dira, berriki estreinatutako [Eskubideen uhartea](#) web gunea ezagutarazteko xedez; hain zuzen, hurrengo atalean azalduko dugun bezala, web gune horretan jarduera ugari proposatzen dira 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilekin haurren eskubideen gainean lan egiteko. Hala, web guneko pertsonaiekin eskola-egutegirako plantilla bat egin dugu, itsasgarrien formatuan, eta ikastetxeetan banatu dugu ikasturte hasieran. Pertsonaia horiek izan dira protagonista, orobat, azaroaren 20an **Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna** harira ikastetxeetarako egin zen kartelean eta lehen hezkuntzako haur guztiei banatu zitzaizen orri-markatzakoan.

Bestalde, aurten **Rainbow proiektua** jarri da abian (proiektuaren zentzuaren ingelesezko sigla jasotzen du: Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World/ Intolerantziaren aurkako eskubideak: aurreiritzirik gabeko mundu bat eraikiz). Horren xedea da haurren, nerabeen, gazteen eta irakasleen artean homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko testuak eta ikus-entzunezko materialak sortzea eta zabaltzea, eta Europar homosexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatu eta aitortuko dituen kultura bat sustatzea. Proiektuan Europako zazpi herrialdetako hamar erakunde publikok eta pribatuk parte hartzen dute (Alemania, Belgika, Bulgaria, Espainia, Herbehereak, Italia eta Erresuma Batua), eta [Europako Batzordeak](#) babesten du (Justizia, Askatasun eta Segurutasuneko Zuzendaritza Nagusiko Oinarrizko Eskubideen eta Hiritartasunaren Zuzendaritza).

Lehenengo gauzatze-urte honetan (bi aurreikusi dira), ikerketa bat egin da jadanik Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-umeen eta irakasleen artean gai horren inguruan dauden estereotipoak buruz, aurrera egin da eskoletan estereotipo horien aurka borrokatzeko tresna didaktiko gisa balioko duten hezkuntza-materialen prestakuntzan, eta Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Pedagogikorako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzeko oinarriak ezarri dira. Bestalde, urte amaieran, gonbit egin zaie bigarren mailako, batxilergoko eta heziketa-ziklo artistikoetako ikastetxeei Europako 15 eta 19 urte bitarteko nerabe eta gazteentzat **LGTB** gaiaren inguruan antolatu den film laburren lehiaketan parte hartzea. Epaimahaiaren erabakia, bai eta hautatutako film laburren erakusketa ere, Milanen izango da, 2012. urtearen erdialdera.

Europako beste herrialde batzuekin elkarlanean aritzeko proiektu hau guztiz aberasgarria izaten ari da, eta erakunde honek espero du emaitzak zabaltzea —Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin— baliagarria izango dela bizikidetzaren berri baten oinarriak ezartzeko, non adin goiztiarretatik aniztasun afektibo-sexuala eta generokoa guztiz onarturik eta integraturik egongo diren.

Azkenik, aipatu behar dugu urteko lehenengo hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-zentro guztiei birbidali genizkiela teknologia berrien erabilera zuzurra sustatzeko material didaktikoak: *Leihoak*. *Abentura erreala mundu birtualean eta ziberbullynga*. *Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko gida azkarra*.

## 6.5. Adingabeentzako web gunea

2011ko otsailaren 28an, jendaurrean aurkeztu genuen Eskubideen uhartera web gunea (<http://www.ararteko.net/apl/derechosdelainfancia/euskara.html>).

Lehen Hezkuntzako haurrentzako web atari bat da (6 eta 12 urte bitartekoentzat). Bi helburu ditu: batetik, haurrak erakundera gerturatu nahi ditugu, giza eskubideen eta haurren eskubideen inguruko erreferente gisa ezagut dezaten —modu hurbilago eta eskuragarriago batean—; eta, bestetik, haurrak eurak beren eskubideen gainean sentsibilizatu nahi ditugu eta eskubide horien berri zabaldu.

Ikus dezagun astiro web gunearen edukia.



Web gunean sartzeko pantailan, etengabe mugitzen ari diren hainbat elementu daude. Hala, esate baterako, irudiaren erdian ikusten diren bi pertsonaiak —horiek erabiltzen ditugu ikastetxeetara bidaltzen ditugun materialetan— web gunean sartzera gonbidatzen dituzte haurrak, beren eskubideak ezagut ditzaten, jolastuz ondo pasa dezaten, laguntzaren bat behar badu-

te nori galdetu jakin dezaten, eta abar. Horrez gain, Arartekoaren web gunera ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)) garamatzen txalupa mugitzen ari da etengabe, baita web guneko ataletara sartzeko bide ematen duten gainerako pertsonaiak eta objektuak ere: itsasargia, barruan mapa bat duen botila, arrain-ontzia, periskopioa eta jokoan eta esteken kartelak.

**Itsasargian**, neska-mutilek beren eskubideak ezagutzeko informazioa aurkituko dute: Haurren Eskubideen Hitzarmenaren historia eta Hitzarmena bera, haientzako bertsio ulergarriago batean kontatua. Atal honen barruan daude, halaber, Francesco Tonucciren ilustrazioak. Tonuccik, hezkuntzaren munduko artista eta zientzialari ospetsuak, hamar bineta utzi dizkigu, eta horiei animazioa emateko baimena eman digu, haurrei beren eskubideetan zehar egingo duten ibilaldian lagun egiteko.

Olagarroak **botila** bat du garro artean eta horren barruan haurren eskubideen mapa dago. Mapa zabaltzean, 10 ikono agertzen dira, eta horiek 10 ipuin animatutara eramaten gaituzte; hain zuzen, ipuin horien bidez, identitaterako, familiarako, osasunerako, hezkuntzarako, jolasteko, babeserako, parte hartzeko eta ongizaterako eskubideak azaltzen dira, eta, azkenik, adingabearen interes gorenaren nagusitasuna agerian agertzen duen historia bat kon-

tatzen da. Historia batzuk deskargatu ere egin daitezke. Web gunean helduentzat jasotako materialaren barruan, hainbat orientazio metodologiko dator, historia animatu horiek bai hezkuntza-ingurunean eta bai familian erabiltzeko.

**Egurrezko upelean**, haurrek informazio interesgarria aurki dezakete, laguntza behar izanez gero: SOS gunea da.

Ezkerraldean agertzen den telebista-pantailan, Arartekoak eta Haur eta Nerabeen Bulegoko zuzendariak beren burua aurkezten dute, eta, haurrentzat gertukoa den hizkera batean, Arartekoa zer den eta erakundearen lana zertan datzan azaltzen dute.



Espazio horretatik, hainbat gairekin loturiko beste laguntza-webgune batzuetara sar daitezke: Interneten erabilera ziurrari edo elikadura osasungarriari buruzkoak, esate baterako. Ziberbullyingari buruz eta Interneten erabilera ziurrari buruz, espazioan bertan, oinarrizko orientabide xume batzuk daude.

SOS gune horretan dago, orobat, Eusko Jaurlaritzak haurrei eta nerabeei laguntzeko jarri duen telefonoa, [Zeuk esan](tel:166111) (166 111); horren bidez ere jar daitezke haurrek Arartekoarekin harremanetan, bai eta kexak jarri ere.

Hasierako pantailan, haurrentzako beste hiru elementu daude: **Arrain-ontziak** parte hartze-ara animatzen ditu (protesta-proposamena) eta aisialdirako edo kultur jardueretarako hainbat gomendio biltzen ditu haientzat. Horrez gain, neska-mutilek agerrarazi nahi dizkiguten ekimenak ere iraul daitezke horra.

**Estekek eta jokoek** ixten dute haurrentzako proposamena. Estekak munduko orriei eta ekologiarri buruzkoak dira, beste bat ikasiz dibertitzeko da, eta, horrez gain, adingabeek eurek proposatutakoak ere badatoz. Jolasak ere badu leku garrantzitsu bat web gunean. Zortzi jolas eskaintzen dira, eta horien bidez, bide-segurtasunari, birziklapenari, elikadura osasungarriari eta beste hainbat gairi buruz ikas daitezke.

Periskopioak —helduen konpainia eta begirada arretatsua irudikatzen du— **itsaspekora** garamatza, aita-amei eta hezitzaileei berariaz eskainitako espazio bakarrera.



Atal honetan, ipuin animatuak edo Hitzar-mena lantzeko proposamen metodologikoak daude. Horrez gain, udal arduradunentzat ere badago atal bat; bertan, haurrentzako eta nerabeentzako udal planak egiteko proposamenak datoz.

Itsaspekoan dago liburutegia ere, eta, bertan, gurasoentzat eta hezitzaileentzat interesgarri izan daitezkeen dokumentuak eta web guneak aurki daitezke.

Hasieran genion bezala, web guneak otsailean ikusi zuen argia, Arartekoko Haur eta Nerabeen Bulegoa komunikabideei aurkeztu zitzaizen garaian. Beraz, aurtan web gunea jendartatzeko aritu gara lanean. Ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta azken hartzaileen —6 eta 12 urte bitarteko haurren— esku jartzeko, gutun bat bidali genien EAEko ikastetxe guztiei, posta-helbide eta elektronikoko bidez, web gunearen berri emateko eta erabiltzera animatzeko. Horrez gain, haurrekin loturiko beste web gune batzuei ere eskatu genien laguntza (Unicef, Save the Children, Haurren Erakundeen Plataforma ...), Interneteko haien guneetan *Eskubideen uhartea* gunera joateko esteka bat ipin zezaten.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza ere nabarmendu nahi dugu. Izan ere, materiala interesgarria zela ikusirik eta guk egindako laguntza-eskaerari erantzunez, *Eskubideen uhartea* gunerako lotura txertatu du Eskola 2.0 programako Eskola Bakegunean; beraz, EAEko lehen hezkuntzako eskola-ume guztientzat dago eskuragarri.



VII

## ONDORIOAK

aRarteko



## VII) ONDORIOAK

Aurreko kapitulu guztietan aipaturiko problematika, premia, erantzun eta baliabide guztiak orri gutxi batzuetan biltzeak dakarren mugarekin, interes gorenekotzat dauzkagun hainbat alderdi nabarmentzeko asmoz heldu diogu atal honi, eta, kasuan-kasuan, astiroago irakurtzera animatuko dugu.

Izapidetutako kexei dagokienez, 2011. urtean kudeatutako kexen kopurua kontuan hartuta, baieza dezakegu **hezkuntza-arloa** dela pisu erlatibo handiena duten arloetako bat, Haur eta Nerabeen Bulegoaren jardun osoa kontuan hartuta.

Kexa horiek ikertzean, bereziki azpimarratu izan direnak, hezkuntza administrazioa bultzatu nahi izan dugu hezkuntza programaren egokitzapen eta hobekuntza jarraitua egiten jarrai dezan unibertsitatekanpoko sarea antolatzeko eta planifikatzeko ezarri diren irizpideak (adierazpenak) eraginkortasunez lortu arte. Garrantzitsua da irizpide horien artean hezkuntza eragile guztien partaidetza herritarren hezkuntza beharrian errealean planifikazio demokratiko eta egokia sortzeko prozesuan bermatzen saiatzeko konpromisoa gaineratu izana. Hala eta guztiz ere, beldur gara irekia izan daitekeen hizkuntza ereduaren eskaintzak ez ote duen arriskuan jarriko hezkuntza sistemarako sarbidea berdintasuneko baldintzetan familiek aukeratutako hizkuntza ereduaren kontuan hartuta.

Hain zuzen ere, erabateko aukera berdintasuna bermatzeko beharra dela-eta hezkuntza administrazioak kontu handia izan behar du ikasleak onartzeko prozesuak kudeatzean, plaza nahikorik ez dagoen kasuetarako ezarritako lehentasuneko irizpideak erabat aplikatzen direla egiaztatuz (familien benetako egoitza) eta diskriminazioa eragin dezaketenean edo beharrezkoak diren helburuetan -familiarren eta laneko beharrak bateratzea, adibidez- lagundu ezin duten beste horien aplikazioa berraztertuz edo berriz hausnartuz. Era berean, egokia litzateke hezkuntza administrazioak ikasleak onartzeko prozesu horien ebazpen mekanizatua bideratzen duen aplikazioa berraztertzea, ahal den heinean, tratu berdintasun hori burutzeko (bigarren eta hirugarren aukerak esleitzea). Ohiko epeetatik kanpo, eskolatzeko lurralde batzordeen proposamenak, ahal duten neurrian, familien borondatearen arabera izan beharko lirateke.

Komenigarria da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak, albait lasterren, haur hezkuntzako lehen zikloko errealitatearen inguruan egiteke dagoen diagnostika amaitzea. Horri esker, hezkuntza administrazioaren mendeko zentro publikoetako bi urteko geletan gertatzen diren hainbat errealitateen inguruan behar bezala esku hartu ahalko litzateke.

Haurreskolak Partzuergoaren mendeko haur-eskolen eremuan hartzen ari diren antolamendu erabakiekiko (taldekatzeak) gure kezka azaltzen dugu, baita Enplegu eta Gizarte Gaia-tako Sailak (Haur Etxea) sustatu duen zerotik hiru urte bitarteko haurtzaroarekiko arreta plan berriak eskain ditzakeen ondorioekiko ere.

Garraio eta jantokiko zerbitzu osagarriak dagokienez, eskola-garraioaren kasuan batik bat, gure ustez, hezkuntza Administrazioak ez du baztertu behar zerbitzua lortzea ahalbidetzen

duten irizpideen aplikazio malguago bat, baina ez arbitrarioa, egiten saiatzeko aukera, horren bidez ikasleei arreta hobea eskaintzea lor baldin badaiteke, baina, jakina, eskola maparen berrikuspenaren bidez zerbitzuaren antolamendu aukerak hobetzen saiatzeko ahaleginei kalterik egin gabe.

Jantokiei dagokienez, aurrekontu erabilgarritasun aukera guztiak erabili behar direla uste dugu jantokiko kuoten murrizketa kudeaketa zuzeneko jantoki zerbitzurik ez duten eta eguerdiko garraio zerbitzurik ez duten hezkuntza zentro publikoetan derrigorrezko ikasketak egiten dituzten ikasle garraiatuei ere eskaintzeko.

Hezkuntza-premia berezien alorrean berriro ere azpimarratu beharko genuke beharrezkoa dela ahaleginak areagotzea hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazio handiagoa eskaintzera bideratutako jardunbide egokiak zehazteko. Horrek, aldi berean, hezkuntza premia bereziak dauzkaten adingabeei emandako hezkuntza erantzunaren jarraipen egokia eta ebaluazio aproposa eta familiekiko lankidetzaren handiagoa bermatuko ditu. Aniztasunaren arretarako hurrengo plan estrategikoa, eskola inklusibo baten esparruan, jarduera dinamika horiek finkatzeko edo ezartzeko ahalegin garrantzitsua izango delakoan gaude.

Eskola bizikidetzaren alorrean, burokratizazioa ekiditen saiatzeko eta praktika onak ezartzen sakontzeko beharra azpimarratzen dugu. Azken horien artean, familiekiko lankidetzaren handiagoa gaineratu behar da nahitaez. Onartutako gida berriak lagunduko duelakoan gaude.

Unibertsitate mailan, pasa den deialdiko esperientziak unibertsitatearen eta batxilergoaren eskaintzen duten zentroen artean beharrezkoa den koordinazioa handitzera eraman behar gaitu ariketak batxilergoaren curriculumera egokitu daitezten.

Era berean, Unibertsitatean Sartzeko Gidan dagoen informazioa zabaltzeko komenientzia kontuan hartu behar da eta administrazio hobera bideratutako praktika berriak aztertu behar dira.

Babesik ez duten haurrentzako **gizarte-zerbitzuen** eremuan, lehenik eta behin adierazi behar dugu, iaz egin genuen bezala, beharrezkoa dela familiei laguntzea beren guraso-eskumenak garatzeko orduan. Nahiz eta egia den dokumentu honetan nagusiki bigarren mailako arretaren esparruko gizarte-zerbitzuen jarduna ikusarazi dugula, hau da, babesgabezia-egoerak bereziki larriak direnean eta, beraz, familia-nukleoa hein handi batean jadanik banandu denean esku hartzen duten zerbitzuena, orain zabaldu egin nahi dugu ikuspegia, eta hain justu ere aurreko etapetan, ezer gertatu aurretik edo egoera larriagotu aurretik, prebenitzeko eta arreta goiztiarra emateko asmo argiarekin familientzat dauden laguntzen balioa nabarmendu. Oraindik ez da behar beste adierazi nola eragiten duten haurrak eta nerabeak garatzen diren ongizate- eta kohesio-baldintzetan hezkuntza-ereduen inguruan orientatzeko eta aholkatzeko denbora luzean egindako lanak, zailtasun hasi berrietan lagun egiteak, berezko eta komunitateko eremuan esku hartzeak; izan ere, argiro desaktibatzen edo minimizatzen dituzte babesgabeziaren ondorioz larriak.

Hala, azpimarratu nahi dugu indartu egin behar dela udal gizarte-zerbitzuek bai prebenitzeko eta bai familian eta komunitatean esku hartzeko egiten duten ahalegina. Bestalde, foru al-

dundietako haurrentzako gizarte-zerbitzuak animatu egin nahi ditugu familiekin —bai itxuraz berregitura daitezkeen familiekin eta bai harrera- edo adopzio-familiekin— egiten duten lana indartzera. Familia-harreraren kasu konkretuan, uste dugu pauso bat gehiago eman behar dela banantze-neurri hori arautzeko, eta orain arte zehaztu ez diren alderdiak argitu behar direla, hala nola harrera-familien eskubideak eta betebeharrak zein diren, eta betekizunak, gidalerroak eta prozedurak ezarri behar direla inplikaturako pertsona guztien eskubideak bermatzeko: haurrak eta familiak. Hori gertatu bitartean, ezinbestekoa da harrera-prozesuetan lagun egiten dieten hezitzaile-taldeak handitzea eta egonkortzea.

Babesteko gizarte-zerbitzuetan arreta eman zaien neska-mutilen prozesuko beste une kritikoa emantzipazioa da. Legezko adin-nagusitasunera iritsita, nekez imajina ditzakegu pertsona beregain gisa, ez baitira benetako autonomia ematen duten elementuen jabe: lana, baliabide ekonomikoak eta egoitza-baliabideak. Beste gazte batzuei familiak ematen die emantzipatzeko bidean behar duten euskarria, baina gazte hauek familiarik ez dutenez, administrazioak ardura handiz zaindu beharko du bide hori egoki egin dadin. Eta, horretarako, batez ere koordinazio eta lankidetzaren onak behar dira zerbitzuen, sailen eta erakundeen artean.

Emantzipazio-prozesu hori ez dagoela oso egituratua bakarrik dauden atzerritar adingabeek nabaritzen dute gehien, laguntza-sare urria aurkitzen baitute. Nahiz eta gure erkidegora iristen diren adingabeen kopuruak 2011. urtean ere 2009an hasitako beheranzko joerari eutsi dion, erakunde hau erne dago adingabe horien eskubideak behar bezala bermatzen ari ote diren, aurreko urteetan arlo horretan egindako gomendioen argitan. Horri dagokionez, berriro ere nabarmendu behar dugu beharrezkoa dugula jada premiazko harrera egiteko protokolo bat, horrek argituko baititu erantzukizunak eta jarduketako ildoak, eta, aldi berean, koherentzia eta arintasuna emango baitzikio harrera-prozesuari.

Bestalde, espero dugu etorkizunean orain arteko ohitura aldatzea eta foru baliabideetatik irteten direnei tutoretza edo egoitza-harrera utzi dutela dioen agiria ematea; izan ere, aurten hainbat kexa izan da horren inguruan.

Atal hau amaitzeko, aitortu nahi dugu hainbat hobekuntza sumatu dugula babesteko gizarte-zerbitzuen funtzionamenduan, hala nola: eragileek adostu eta partekatutako tresna baten bidez egitea balorazioa —horri esker, arreta faserik goiztiarrenetan emateko besteko ñabardurarekin detekta daitezke babesgabezia-egoerak—, eta bizitegi-harrerako zerbitzuetan ematen den arreta; izan ere, aurten zuzenean ikusitakoaren arabera, oraindik ere hobetzen jarraitzen dute, eta, agian interesgarriena, premiak aldatu ahala, egokitu egiten dute eman beharreko erantzuna.

**Familia-politikari** dagokionez, euskal botere publikoek, oro har, jabetu behar dute garrantzitsua dela familientzako laguntzak gehitzea; izan ere, beharrezko babes ematen dute premia-egoeretan, eta, alde horretatik, kasu askotan osatu eta ordezkatzeko dituzte ongizate-estatuaren funtzioak. Herritarren kexek eta elkartegintza-sareak agerrarazi dute familientzako laguntza publikoak ugaritzeko behar hori, batez ere zailtasun bereziak dituztenentzat, hala nola familia ugariarentzat, guraso bakarrek familientzat eta beren baitan mendekotasun- edo

gaixotasun-egoera bereziren bat duten kideak dituzten familientzat. Uste dugu, gaur egun dauden zuzeneko laguntzez gain, beharrezkoa dela gaur egungo zerga-sistema berrikustea ere, familia-egoera guztietarako laguntza publikoa egituratzeko benetako tresna bihur dadin.

Egokitzat jotzen dugu Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren (2011-2015) zeharkako ikuspegia, bai eta komunitate-zerbitzuen eskaintza handiago bat sortzeari begira familiei laguntzeko modu berrietarantz bideratzea ere. Positibotzat daukagu, halaber, plan horretan estrategiak, helburuak eta neurriak sartzera ere, erakunde honen *Adingabekoei balioak transmititzea* txosten bereziko gomendioetan proposatutako ildoan aurrera egiteko. Nolanahi ere, beharrezkoa da arlo honetan erantzukizunen bat duten euskal erakunde guztiek beren ahaleginak koordinatzea, haien aurreikuspenak eraginkorrak izan daitezen.

Adi jarraitzen diogu nerabeek gurasoen aurka egiten duten indarkeriaren bilakaerari, hala gertakariaren azalpenarekin eta diagnostikoarekin zerikusia duen arloan, nola hainbat instantzia administratibo eratzen ari diren arretaren eta esku-hartzearen arloan. Jardunbide ontzat daukagu ezagutu ahal izan ditugunak, eta berriro diogu beharrezkoa dela prebentziko eta fase goiztiarretan arreta emateko ahalegina areagotzea.

Profesionalen eta gizarte-erakundeen antzera, gu ere kezkatuta gaude genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak gerta litezkeen egoerarekin; izan ere, oraingoz, ez dira hartzen indarkeria horren zuzeneko biktimatzat, berariaz eraso egin ez bazaie. Diagnostikoan sakontzearen alde egiten dugu (zenbat haurri buruz ari gara? Zein dira etxean indarkeriaren eraginpean egoteak dakarren ondorearen ebidentziak?) eta zuzeneko biktimatzat hartzearen alde, besteak beste sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren eta erakunde arteko koordinazioaren arloan dagozkion esku-hartzeak egituratzeko abiaburu gisa.

Bestalde, erne egongo gara dagokien administrazioek beharrezko neurriak har ditzaten banandutako eta dibortziatutako gurasoei, seme-alaben zaintza izan zein ez izan, beren seme-alaben gaineko informazioa (osasu-egoera, eskola-eboluzioa eta abar) jasotzeko eskubidea aitortzeki, bai eta irakasleekin hitz egiteko eta ikastetxeko hezkuntza-komunitatean laguntzeko eskubidea aitortzeki ere, gainerako aita-amek dituzten baldintza eta arreta berberekin.

Kontuan hartuta gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotako deribazio judizial bidezko familia-elkarguneen erantzukizun publikoa hartu dela, horien funtzionamendua hobetu dela eta eskumena ere aldatu dela —Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren erantzukizuna dira 2012. urtearen hasieratik—, baikor gara, eta uste dugu hobeto txertatuko direla sistema judizialean, eta, ondorioz, eraginkorragoak eta efizienteragoak izango direla baliabide horiek, egunez egun erakusten baitute baliagarriak direla haurrek beren gurasoekiko harremanari eusteko duten eskubidea bermatzeko, are adostasunik gabeko banantzeetan. Arretaz jarraituko dugu zer bilakaera duten.

**Osasu**-arloan eta **mendeko adingabeentzako** arretan aurrerapenak izan dira kronikotasunaren strategiaren garapenean. Alabaina, beharrezkoa da erakundeek laguntza handiago ematea gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen, pertsonen elkarteei eta pertsona

horien eskubideen alde lanean diharduten gizarte-erakundeei, eskaintzen dituzten programen eta zerbitzuen egonkortasuna bermatzeko; izan ere, egiaztatuta geratu da baliagarriak direla gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen taldeentzat.

Aurreko urteetan adierazi izan dugu Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluak ez zuela jarduten. Bada, hori jadanik amaitu da, eta garrantzi handiko dokumentuak onartu ditu arreta-mota hori, mendeko pertsonen problematikari heltzeko ezinbestekoa, ezartzeko eta hobetzeko. Bereziki nabarmendu behar dira erakunde horrek onartutako Arreta Goiztiarraren Ereduan egin diren hobekuntzak, hau da, onuradunen adina 6 urteetara luzatu izana. Aurten Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* txosten bereziko gomendioetako batean eskatzen zen bezala.

Eskuarki, linfedemak, metabolismoaren sortzetiko gaixotasunek eta prebalentzia baxuko beste gaixotasun batzuek erasandako pertsonen ematen zaien arretari buruz duten pertzepzioa ez dator bat Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuak emandako informazioarekin. Hori oso tresna baliagarria da osasun-administrazioak bere antolaketa-aurreikuspenen aplikazio praktikoa kontrolatu ahal izan dezan eta bidezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izan ditzan.

Gizarte- eta osasun-sistemek premiazko jarduketak egiten dituzte osasun mentalaren arloan dauden tarteko azpiegituren urritasuna konpontzeko, eta bereziki nabarmendu nahi dugu mugako nortasun-nahasmenduari ematen zaion arreta, batez ere gazteei eragiten dien gaitza baita. Guztiz baliozkoa iruditzen zaigu inplikaturako alderdi guztientzako laguntzate gisa eta segurtasun-bermeekin planteatutako tratamendu asertibo-komunitarioko programen aldeko apustua, Osakidetzako Osasun Mentaleko Sareak egindakoa.

Haur eta nerabeekin egindako **arte- eta kirol-jardueren** esparruan, horien ahalmen hezitzailea nabarmendu nahi dugu; hain zuzen, diziplina horiei (musika, pintura, adierazmena, estola-kirola...) berez dagozkien trebetasun eta gaitasun teknikoak ikasi eta garatze soilaz harago doa, eta neska-mutilek osoko hezkuntza izan dezaten laguntzen du; gainera, balio positiboetan oinarritutako hezkuntzan barneratzen da, garapen pertsonal eta sozial osasungarria izan dezaten.

**LGTB**en elkarteek helarazi dizkiguten arazoaren artean, jazarpen homofobiko eta transFOBikoa nabarmentzen da, duen larritasunagatik; izan ere, batzuetan, oharkabean pasatzen da berdinaren artean detektatutako tratatu txarren jatorri edo arrazoi gisa. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindako aniztasun afektibo-sexuala kudeatzeko lan-plana berri ona da, eskola-jazarpenaren aurkako protokoloan jazarpen homofobikoa detektatzeko tresnak gehitzea planteatzen baitu, eta, aldi berean, irakasleekin prestakuntza arloan lan egiten baitu ikasgeletan detekzioa hobetzeko, baina, dena dela, adi jarraituko diegu planaren ezarpenari eta emaitzei.

Beste behin, adierazi behar dugu beharrezkoa dela hezkuntza-erakundeek beharrezko estrategiak jorratzea, eskola leku ziur bat izan dadin, adingabeei joera sexuala eta genero-identitatea modu aske eta bete-betekoan garatzeko babesa bermatuko diena, eskolako

bizikidetzaren eredu baketsu eta aniztasunaren integrazioaren batean. Espero dugu 2011n eta 2012an modu berezian laguntzea egiteko horretan, Europako *Rainbow* proiektuan izango dugun parte-hartzearen bidez; hain zuzen ere, proiektu horren xedea da hezkuntza alde-tik esku-hartzeko tresnak sortzea eskolaren esparruan jazarpen homofobiko edo transformatibokoaren aurka borroka egiteko.

Aurreko paragrafoetan **arloko arreta-sistemen** inguruan egindako gogoeten azken ohar gisa, eta ikusirik horietan aurrerapenak eta hobekuntzak izan direla, uste dugu orain dugula garaia horiek guztiak izango duten **erronketako** bati buruz hitz egiteko —jadanik azaldu eta justifikatu dugu hori 2011n aurkeztutako *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txosten berezian—: arreta elkarguneetan, mugako edo sistemen artean partekaturiko lurraldeetan, erantzun konplexuetan eta erakunde artekoetan, instituzio artekoetan, diziplina artekoetan emateko erronka. Izan ere, gure adingabeak osoki garatzeko eta haiek gizartean parte hartzeko bideak izan daitezten, beharrezkoa da horretan konprometitutako eragile eta instantzia guztiak elkarrekin eta modu integratuan lan egitea.

Horrez gainera, beharrezkoa da Haurren Eskubideen Hitzarmeneko 12. eta 13. artikuluei leku ematea; hain zuzen, **adingabeek beren iritzia adierazteko eta informazioa jasotzeko eta emateko eskubidea dutela** gogorarazten digute artikuluko horiek. Haur eta Nerabeen Kontseiluaren esperientzia oinarritzat hartuta, jadanik harekin hasi baikinen bidea egiten, eta *Eskubideen uhartea* 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako web gunea argitaratu dugularik, aurrera egitera animatzen dugu, **parte hartzeko bide erreal eta egonkor** gehiago eratuta, horri denbora gehiago eskainita eta mekanismo egokiak, metodologia erakargarriak eta halakoak ezarrita, adingabeek beren bizitzari eragiten dioten arloetan parte hartuko dutela bermatzeko.

Azkenik, ezin dugu ondorioen kapitulu hau amaitu **haurren pobrezian** arreta jarri gabe. Ekonomia- eta enplegu-krisiak 2007 arte beren oinarritzako premiak beteta zeuzkaten eta erdi mailako klasearen edo erdi-behe mailako klasearen artean zeuden gizarteko sektoreak harrapatu ditu. Politika publikoetako adituak bat datoz tradizionaliki pobrezia pairatzeko arrisku handiena izan duten nukleoak —horien artean jadanik bazeuden haurrak— etiketarik gabeko pertsona (eta familia) samalda bat gehitu zaiela, gizarte-gastuak murriztu direla eta. Hala, nahiz eta ez daukagun datu espezifikorik Euskal Autonomia Erkidegoaren inguruan, Europako, estatuko eta are aldameneko autonomia-erkidegoetako erakundeek datuek diote izugarri hazi dela haur-pobrezia tasa.

Denboran zehar egindako azterketek erakusten dutenez, haurrek helduek baino pobrezia-arrisku handiagoa dute, eta, areago, arrisku hori handiagoa da haurren talde jakin batzuetan. Pobrezia horrek berekin dakar infraetxeak sortzea, elikadura egokia bermatua ez izatea, hezkuntza eta aisialdiko jarduerarik ezin egin izatea, ikasketak garaia baino lehenago utzi behar izatea. Beraz, haur horiek arrisku-egoera izugarrian daude oinarritzako eskubideak —hala nola bizi-maila egokia, hezkuntza eta osasuna izateko eskubidea— aukera-berdintasunean baliarazteko orduan. Horregatik, gogorazi behar dugu botere publikoak behartuta daudela haurrak bereziki babestera, eta haur-pobrezia aurre egiteko oinarritzako tresna direla gizarte-prestazioak, hala ekonomikoak nola zerbitzuetakoak —zenbaitetan zuzenean haiei eskaintzen zaizkie, eta beste batzuetan haien familiei—.



VIII

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

aRarteko



## VIII) GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera.....	28
2. grafikoa.	Kexen banaketa, arlo tematikoaren arabera.....	28
3. grafikoa.	Baztertutako eta tramiterako onartutako kexen ehunekoa.....	29
4. grafikoa.	Baztertutako kexak: baztertzeko arrazoiak.....	30
5. grafikoa.	2011. urtean haurrentzako foru gizarte zerbitzuek artatu dituzten adingabe berrien kopurua.....	41
6. grafikoa.	Egoitza-harrera neurriaren eboluzioa: 1995-2011.....	42
7. grafikoa.	Familia-harrera neurriaren eboluzioa: 1995-2011.....	42
8. grafikoa.	EAEn eta lurraldearen arabera, 2011. urtean egoitza- eta familia-harrera neurrien arteko konparaketa.....	43
9. grafikoa.	Adopzio eskaeren eboluzioa EAEn 1995-2011 (nazionala eta nazioartekoa).....	44
10. grafikoa.	2011. urtean EAEn eta lurraldeen arabera burututako adopzioen kopurua (nazionalak eta nazioartekoak).....	44
11. grafikoa.	Bakarrik dauden adingabe atzerritar "berriak", foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2011.....	61
12. grafikoa.	Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, abenduaren 31ra arte foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2011.....	61





**ERANSKINA**

**ARLOKO ARAUDIA**





**ERANSKINA. Arloko araudia****Hezkuntzarako eskubideari** dagokionez:

- [8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa](#), hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- [1/93 Legea, otsailaren 19koa](#), Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- [2/2006 Lege Organikoa, 3 maiatzaren 3koa](#), Hezkuntzari buruzkoa.
- [118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa](#), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- [201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa.

**Babesik edo aterperik ez duten haurrak eta nerabeak babesteari** dagokionez:

- [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- [54/2007 Legea, abenduaren 28koa](#), Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.
- [1/2008 Legea, otsailaren 8koa](#), Familia Bitartekaritzakoa.
- [12/2008 Legea, abenduaren 5koa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- [1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa](#), elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa<sup>1</sup>.
- [40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzekoa.
- [114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa](#), Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena eta, aldi berean, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 28ko 263/2003 Dekretua aldatzen duena.
- [124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen, eta honen bidez aldatu

<sup>1</sup> Horren xedea da banandutako gurasoen seme-alaba adingabeek diru-kopuru bat hartuko dutela bermatzea —aurrerakintzat hartzen da—, familia-unitateak haien premiei aurre egin ahal izan diezaien, obligaziodunak ordaindu beharreko elikagaiak ordaintzen ez dituela eta.

dena: [239/2011 Dekretua, azaroaren 22koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judicialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena.

- [131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa](#), gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena.
- [238/2010 Dekretua, irailaren 14koa](#), Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa.
- [230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa](#), BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

#### **Osasunari** dagokionez:

- [14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa](#), Osasunari buruzkoa.
- [33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa](#), Osasun Publikoari buruzkoa
- [8/1997 Legea, ekainaren 26koa](#), Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- [41/2002 Legea, azaroaren 14koa](#), informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (9.3 artikulua: 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- [2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa](#), sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa (13.4 artikulua: haurdunaldia borondatez etetea baimentzeko eskubidea).
- [175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa](#), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.

#### **Desgaitasun eta/edo mendekotasunen bat duten adingabeei dagokienez:**

- [26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa](#), araudia Desgaitasuna duten Pertsonei buruzko Eskubideen Nazioarteko Konbentziora egokitzekoa.
- [51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa](#), ezinduen aukera berdinerako, bereizkeriarik ezerako eta erabilerraztasun unibertsalerakoa.
- [39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- [12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.



**Zigor-arloko erantzukizunari** dagokionez:

- [5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa](#), adingabeen erantzukizun penala arautu duena eta lege hauek aldatu dutena: [7/2000](#) eta [9/2000](#) Lege Organikoak, abenduaren 22koak; [9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10ekoa](#); [15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#); [19/2003](#) eta [8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koak](#).
- [1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa](#). Horren bidez, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartu da.
- [163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- [80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa](#), askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa.

**Familia-erantzukizunari eta haren osotasuna babesteari** dagokionez:

- [Abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#), familiei laguntzekoa.
- [15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#). Horren bidez aldatu zen Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa. Araudi horrek, besteak beste, haurrei dagozkien neurriak ezartzen ditu arlo hauetan: etxeko indarkeria, adin txikiak galbideratzeko delituak eta haurren osotasun fisiko eta psikologikoen kontrakoak.
- [1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa](#), genero-indarkeriaren aurkako erabateko babesari buruzkoa.





## ARARTEKOAREN ARGITALPENAK





**TXOSTEN BEREZIAK**

- *Kalabozaok. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak.* 1991.
- *Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera.* 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).* 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).* 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.* 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.* 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak.* 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.* 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.* 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.* 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.* 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.* 2002.
- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.* 2003.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.* 2003.
- *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* 2003.
- *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.* 2005.
- *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.* 2005.
- *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.* 2006.
- *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan.* 2006.
- *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.* 2007.
- *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrera-pausoak. Hurbilketa.* 2008.
- *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.* 2008.
- *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.* 2009.
- *Adingabekoei balioak transmititzea.* 2009.
- *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.* 2009.
- *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.* 2010.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.* 2010.
- *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa.* 2011.
- *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa.* 2011.

## URTEKOTXOSTENAK

- Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011.

## ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

- *Gomendioak* 2002, 2003, 2004.

## BESTELAKO ARGITALPENAK

- *Idatz arauak / Normas de redacción*. 1992.
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia*. 1993.
- *Esanak eta eginak / Dichos y hechos*. Juan San Martín, Arartekoa. 1994.
- *XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo*. 2000.

## Faksimilak

- *Jaquin-bide Iritarautia - 1820*. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- *Gaioren Institutionum*. 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- Aita Frantzisko Vitoriakoaren *De indis insularis. De iure belli*. 1993. (Lyonen 1557an egin-dako lehen argitaralditik aterea).
- Valentín de Forondaren *Cartas sobre la policía*. 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- Miguel de Lardizábal y Uriberen *Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias*. 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Manuel de Lardizábal y Uriberen *Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma*. 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Xabier Maria Muniberen *Discursos inéditos*. 2002.
- Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. *Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII*. 2006.

## «Padre Francisco de Vitoria» Giza Eskubideen Saila (bekadunen lanak)

- E. J. Ruiz. *El derecho al ambiente como derecho de participación*. 1993.
- M. Á. Encinas. *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*. 1994.
- G. Varona. *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*. 1994.
- A. Bergara. *Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. 1996.
- M<sup>o</sup> J. Fernández de Landa. *El control interinstitucional en la Unión Europea*. 1996.
- I. P. Sánchez. *Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV*. 1998.
- J. Morquecho. *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. 1999.

- G. Moreno. *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*. 2003.
- A. Olarte. *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad*. 2006.
- B. Sicilia. *Derechos fundamentales y Constitución Europea*. 2006.
- J. Zarauz. *Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular*. 2007.
- I. Mujika. *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. 2007.

## «Francisco de Vitoria» Giza Eskubideen Bilduma

### **Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak**

- *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak*. 2007.
- *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan*. 2008.

### **Jardunaldiak**

- *Eskubide sozialen egungo egoera*. 2008.
- *Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean*. 2009.

## «Juan San Martín» Giza Eskubideen Bilduma (bekadunen lanak)

- J. M. Septién. *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desagokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo atzerritarra? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. 2010.
- M. Arnoso, M. Mazkieran, A. Arnoso, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.

## **Material didaktikoak**

- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando* CDa. 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- ZiberBullying-a. *Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa*. 2008.
- *Leihoak. Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu Internetez... Sarean erori gabe*. 2008.

### «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías*. 2002.
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos*. 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro*. 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia*. 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana*. 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak*. 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak*. 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean*. 2010.







ararteko

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoria del Pueblo*

[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)